3. grafikoa: Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleak, etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera. 2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Halaber, % 10 baino gehiago dira emantzipazioan pentsatu ez duten pertsonak (% 16,8) eta etxebizitza eskuratzeko beharra izanik behar horri aurre egiteko diru-sarrerarik ez duten pertsonak (% 13,1).

Azpimarratu beharrekoak dira, halaber, etxebizitza izanik familia-etxebizitzan bizi nahi duten pertsonen ehunekoa (% 5) eta diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztelako emantzipazioa gogoan ez duten pertsonena (% 3,6).

Bilakaerari dagokionez, 2019tik 2021era bitartean EAEko 18-44 urteko pertsonen kopuruak behera egin du: 24.620 pertsona gutxiago (-% 3,6). Zehazki, 682.005 pertsona ziren 2019an, eta 657.385, 2021ean.

Bi urte horietan, 18-44 urteko pertsonen kolektiboaren barruan, emantzipatu ez diren pertsonen kopuruak beherakada txiki bat izan du, eta 645 pertsona gutxiago ziren 2021ean (-% 0,2). Zehazki, 266.075 pertsona ziren 2019an (18-44 urteko pertsona guztien % 39,1), eta 266.075, 2021ean (guztien % 40,5).

Dinamika horrekin batera, etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat ere baduten pertsonen kopuruak gora egin du zertxobait (% 0,2). Halaber, igoera handia izan du beharra duten baina diru-sarrerarik ez duten pertsonen kopuruak (% 24,2: 6.677 pertsona gehiago azken bi urteetan).

Bestalde, 18-44 urteko pertsonen kolektiboan etxebizitza eskuratzeko beharrik ez duten pertsonen kopuruak behera egin du; hain zuzen, 10.001 gutxiago dira (-% 5,8). Beherakada horren arrazoi nagusia da hainbat arrazoirengatik (ikasleak izatea eta abar) emantzipazioan pentsatzen ez duten pertsonen kopuruak behera egin duela (17.689 pertsona gutxiago: -% 28,7 termino erlatiboetan). Bigarren arrazoa, berriz, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztela jakinda emantzipazioan pentsatu ez duten pertsonen kopuruaren beherakada da (-% 34,4: 4.959 pertsona gutxiago).

**6. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren inguruko egoera, EAE. 2019-2021**

(Gurasoeekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonen kopurua eta adin horretako pertsona guztiekiko ehunekoak)


	2019			2021			2019-2021 aldiko aldakuntza					
	18-44, guztira	Emakumeak	Gizonak	18-44, guztira	Emakumeak	Gizonak	18-44 urte, guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)
18-44 urte, guztira	682.005	337.195	344.810	657.385	325.995	331.390	-24.620	-% 3,6	-11.200	-% 3,3	-13.420	-% 3,9
Emantzipatutako pertsonak	415.285	218.836	196.449	391.310	204.755	186.555	-23.975	-% 5,8	-14.081	-% 6,4	-9.894	-% 5,0
. Etxebizitzaren titularra/titularkidea	340.778	176.569	164.208	306.978	152.429	154.549	-33.800	-% 9,9	-24.140	-% 13,7	-9.659	-% 5,9
. Titularraren bikotekidea	46.200	30.229	15.971	57.728	39.563	18.165	11.528	% 25,0	9.334	% 30,9	2.194	% 13,7
. Beste egoera bat	28.307	12.038	16.270	26.604	12.763	13.841	-1.703	-% 6,0	725	% 6,0	-2.429	-% 14,9
Emantzipatu gabeko pertsonak	266.720	118.359	148.361	266.075	121.240	144.835	-645	-% 0,2	2.881	% 2,4	-3.526	-% 2,4
Oinarria: emantzipatu gabeko 18-44 urteko pertsonak												
EAEen etxebizitza eskuratzeko behararekin	92.282	42.034	50.248	99.114	45.545	53.569	6.832	% 7,4	3.511	% 8,4	3.321	% 6,6
a. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrerak badituzten pertsonak	64.703	29.226	35.477	64.858	30.556	34.302	155	% 0,2	1.330	% 4,6	-1.175	-% 3,3
. Diru-sarrera nahikoak dituztenak	23.980	9.189	14.791	18.248	7.983	10.265	-5.732	-% 23,9	-1.206	-% 13,1	-4.526	-% 30,6
. Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	40.724	20.037	20.686	46.610	22.573	24.037	5.886	% 14,5	2.536	% 12,7	3.351	% 16,2
b. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten baina diru-sarrerarik ez duten pertsonak	27.579	12.808	14.771	34.256	14.989	19.267	6.677	% 24,2	2.181	% 17,0	4.496	% 30,4
EAEtik kanpo etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	1.330	245	1.085	3.856	1800	2.056	2.526	% 189,9	1.555	% 634,7	971	% 89,5
Etxebizitza eskuratzeko beharrik ez duten pertsonak	173.106	76.080	97.026	163.105	73.896	89.209	-10.001	-% 5,8	-2.184	-% 2,9	-7.817	-% 8,1
Ez du diru-sarrerarik	81.570	37.471	44.099	84.567	37.830	46.737	2.997	% 3,7	359	% 1,0	2.638	% 6,0
Ez du emantzipazioan pentsatzen	61.673	27.532	34.141	43.984	19.320	24.664	-17.689	-% 28,7	-8.212	-% 29,8	-9.477	-% 27,8
Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituela uste du	14.396	6.108	8.288	9.437	3.362	6.075	-4.959	-% 34,4	-2.746	-% 45,0	-2.213	-% 26,7
Badu etxebizitza	6.201	2.010	4.191	12.738	6.252	6.486	6.537	% 105,4	4.242	% 211,0	2.295	% 54,8
Beste egoera batzuk	9.266	2.959	6.307	12.379	7.132	5.247	3.113	% 33,6	4.173	% 141,0	-1.060	-% 16,8
Oinarria: 18-44 urteko pertsona emantzipatuak												
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak	8.221	2.738	5.482	7.452	3.784	3.668	-769	-% 9,4	1.046	% 38,2	-1.814	-% 33,1

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta errenta propioak dituzten pertsonen ehunekoa azken bi urteetan egonkortu egin dela dirudi, eta emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko biztanleen laurdenak dira gutxi gorabehera (% 24,3 2019an, eta % 24,7 2021ean). Etxebizitza eskuratzeko beharra duten baina diru-sarrerarik ez duten pertsonen ehunekoak, berriz, goranzko joera izan du 2017tik 2021era bitartean (% 8,2 eta % 13,1, hurrenez hurren).

Bestalde, diru-sarrerarik ez duten pertsonen kopuruaren bilakaerak gorabeherak izan ditu azken lau edizioetan. 2019tik 2021era bitartean, ia bi portzentaje-puntuko igoera izan du (% 30,6 eta % 32,3, hurrenez hurren).


4. grafikoa: Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleak, etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera. EAE. 2015-2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021. urtean, 18-44 urteko biztanleen % 59,5 guraso edo tutoreengandik emantzipatuta daude. Jakina, proportzio hori oso lotuta dago biztanleen adinarekin. 35-44 urteko adin-taldean, hamarretik bederatzi daude emantzipatuta (% 87,5); 25-34 urteko taldean, ehuneko hori ez da % 53ra iristen, eta 25 urtetik beherakoen taldean, berriz, ez da % 9ra iristen.

5. grafikoa: 18-44 urteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera banatuak, adina kontuan hartuta. EAE. 2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


18-24 urteko biztanleen ia erdiak emantzipatu gabe dauden, etxebizitza eskuratzeko beharrik ez duten eta errenta propiorik ez duten pertsonak dira (% 46,5). Biztanle horien % 14,0k emantzipatzeko beharra dute, baina ez dute errentarik. Hortaz, adin-tarte horretako biztanleen % 60,5ek ez du errenta propiorik.

Bitarteko adin-tarteko pertsonen (25-34 urtekoen) barruan, ehuneko handi samarra du emantzipatu gabe dauden eta etxebizitza eskuratzeko beharra dutela eta errenta propioak dituztela adierazi duten pertsonen kolektiboak (% 16,6).

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboaren ikuspegitik, egiazta daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta horretarako diru-sarreraren bat duten biztanleen taldea dela nagusi 25-34 urteko pertsonen taldearen barruan (% 35,2). Nolanahi ere, alde txikia dago adinik handieneko taldean duten ehunekoarekin (% 33,4).

Aitzitik, 18-24 urtekoen taldean, kategoria nagusia errenta propiorik ez duten pertsonen taldearena da, eta ehunekoa % 66,3ra iristen da: % 51,0k ez du emantzipatzeko beharrik, eta % 15,3k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du.


6. grafikoa: Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleak, etxebizitzaren beharrari dagokionez duten egoeraren arabera eta adina kontuan hartuta. EAE. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

18-44 urteko biztanleak sexuaren arabera alderatuta ikus daitekeenez, emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute emantzipatzeko (% 62,8 eta % 56,3, hurrenez hurren).


7. grafikoa: 18-44 urteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera banatuak, sexua kontuan hartuta. EAE. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Gainera, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren pertsonen artean, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeak gizonak baino gehiago dira (% 25,2 eta % 23,7, hurrenez hurren).

8. grafikoa: Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleak, etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera, sexua kontuan hartuta. EAE. 2021




Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Talde horretan, beharra dutela adierazi duten baina diru-sarrerarik ez duten pertsonen ehunekoa handixeagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino (% 13,3 eta % 12,4, hurrenez hurren). Era berean, beharrik eta diru-sarrerarik ez duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handixeagoa da (% 32,3 eta % 31,2, hurrenez hurren).

Halaber, emantzipazioan pentsatzen ez duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 17,0 eta % 15,9, hurrenez hurren).

Lurralde-azterketa eginez gero egiazta daitekeenez, 18-44 urteko biztanleen artean emantzipatuta daudela adierazi dutenen ehunekorik handiena Arabako biztanleena da. Pertsona horiek lurralde horretan bizi diren 18-44 urteko pertsona guztien % 63,4 dira. Ehuneko hori Gipuzkoako biztanleena baino lau portzentaje-puntu handiagoa da (% 59,3), eta Bizkaiko biztanleena baino bost portzentaje-puntu handiagoa (% 58,5).

9. grafikoa: 18-44 urteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera, lurralde historikoa kontuan hartuta. EAE. 2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Kolektibo horren barruan, emantzipatzeko beharra duten eta errenta propioak dituzten pertsonen ehunekorik handiena Gipuzkoakoa da (% 10,6). Bizkaiko eta Arabako ehunekoak antzekoak dira, baina ez dira % 10era iristen (% 9,7 eta % 9,5, hurrenez hurren).

Azpimarragarria da, halaber, Gipuzkoan emantzipatu gabe dauden eta diru-sarrerarik ez duten pertsonen ehunekoak (% 18,6: % 5,3 beharrarekin). Nolanahi ere, Bizkaiko datua ere antzeko samarra da: % 18,3 (% 5,4 beharrarekin). Arabako ehunekoak, berriz, txikiagoa da; hain zuzen, bi puntutik gorako aldea dago (% 16,2: % 4,4 beharrarekin).


Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleen kasuan, ez dirudi lurraldeen arteko aldeak esanguratsuak direnik.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrerarik edo errentak dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez, alde txiki batzuk ikus daitezke. Ehunekorik handiena Arabakoa da (% 26,6), eta txikiena, berriz, Bizkaikoa (% 22,8). Gipuzkoa tartean kokatu da (% 25,9), EAEko batezbestekotik hurbilago.

Diru-sarrerarik ez duten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanleen ehunekoari dagokionez, % 13,0a iritsi da Gipuzkoan eta Bizkaian, eta portzentaje-puntu bat txikiagoa izan da Araban (% 12,0).

Diru-sarrerarik ez duten eta etxebizitza eskuratzeko beharrik ere ez duten biztanleen ehunekoak handixeagoa izan da Gipuzkoan (% 32,7) Araban eta Bizkaian baino (% 32,3 eta % 31,1, hurrenez hurren).

10. grafikoa: Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko biztanleak, etxebizitza eskuratzeko beharrari dagokionez duten egoeraren arabera eta lurralde historikoa kontuan hartuta. EAE. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

7. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko biztanleen banaketa, lurralde historikoaren arabera, EAE. 2021

(Balio absolutuak eta pertsona guztiekiko eta beharra duten pertsonen ehunekoak)

	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak (diru-sarrerekin)		Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak, guztira		18-44 urteko biztanleak			Gurasoekin bizi direnak		
	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a	Kop.	B %-a (1)	B %-a (2)	Kop.	B %-a (1)	B %-a (2)
Guztira	64.858	% 100	99.114	% 100	657.385	% 9,9	% 15,1	266.075	% 24,4	% 37,3
Araba	9.836	% 15,2	14.279	% 14,4	101.126	% 9,7	% 14,1	37.024	% 26,6	% 38,6
Gipuzkoa	22.770	% 35,1	34.167	% 34,5	215.418	% 10,6	% 15,9	87.749	% 25,9	% 38,9
Bizkaia	32.252	% 49,7	50.668	% 51,1	340.841	% 9,5	% 14,9	141.302	% 22,8	% 35,9

(1). Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak.

(2). Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak, diru-sarrerak dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2.1.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren guztizko kuantifikazioa

Arestian adierazi dugunez, EAEn bizi diren 130.085 pertsonak dute lehen etxebizitza eskuratzeko beharra 2021ean. Haietatik, bi herenek (86.677 pertsonak) adierazi dute badutela diru-sarreraren bat behar horri aurre egiteko. Gainerako herenak (43.408 pertsonak) ez du diru-sarrerarik.

Aztertzen ari garen informazioa eman duen inkestan, etxebizitza eskuratzeko moduari buruz galdetu da (bakarrik ala bikotekidearekin). Horren bidez, lehen etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzeko zenbat etxebizitza behar diren kalkula daiteke.

Ondoriozta daitekeenez, 2021ean **112.718 etxebizitza beharko lirateke EAE osoan** beharra duten biztanle guztiek etxebizitza eskuratzeko. Diru-sarrerak dituzten pertsonak soilik kontuan hartuta, 74.938 etxebizitza beharko lirateke. Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonak behar dituzten 74.938 etxebizitza horietatik, 21.245 beren diru-sarrerak emantzipatzeko nahikoak direla uste duten pertsonen lotuta daude, eta gainerako 53.693 etxebizitzak, berriz, diru-sarrera gutxiegia edo ezegonkorak dituzten pertsonen.

8. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propio eskuragarrien arabera. EAE. 2021

(Balio absolutuak eta familien eta pertsonen guztizkoarekiko ehunekoak)

	Absolutuak					Bizt. %-a				
	Diru-sarrera edo errenta propioen bat dutenak			Diru-sarrerarik ez dutenak	Beharra dutenak, guztira	Diru-sarrera edo errenta propioen bat dutenak			Diru-sarrerarik ez dutenak	Beharra dutenak, guztira
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegia edo ezegonkorak dituztenak	Diru-sarrerak dituztenak, guztira			Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegia edo ezegonkorak dituztenak	Diru-sarrerak dituztenak, guztira		
Behar diren etxebizitzak										
Eskuratzeko beharra dutenak, guztira	21.245	53.693	74.938	37.780	112.718	% 18,8	% 47,6	% 66,5	% 33,5	% 100
Emantzipatu gabeko 18-44 urteko pertsonak	16.392	41.745	58.137	31.026	89.163	% 18,4	% 46,8	% 65,2	% 34,8	% 100
Emantzipatu gabeko 44 urtetik gorako pertsonak	2.595	6.378	8.973	1.415	10.388	% 25,0	% 61,4	% 86,4	% 13,6	% 100
Beste egoera-mota batzuk. Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak	2.258	5.570	7.828	5.339	13.167	% 17,1	% 42,3	% 59,5	% 40,5	% 100
Beharra duten pertsonak										
Eskuratzeko beharra dutenak, guztira	25.384	61.293	86.677	43.408	130.085	% 19,5	% 47,1	% 66,6	% 33,4	% 100
Emantzipatu gabeko 18-44 urteko pertsonak	18.249	46.610	64.859	34.256	99.115	% 18,4	% 47,0	% 65,4	% 34,6	% 100
Emantzipatu gabeko 44 urtetik gorako pertsonak	2.632	6.576	9.208	1.557	10.765	% 24,4	% 61,1	% 85,5	% 14,5	% 100
Beste egoera-mota batzuk. Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak	4.503	8.107	12.610	7.595	20.205	% 22,3	% 40,1	% 62,4	% 37,6	% 100

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Arestian adierazi dugunez, etxebizitza behar duten baina diru-sarrerarik ez duten 43.408 pertsona daude. Haien eskariari erantzuteko, 37.780 etxebizitza beharko lirateke, eta haien diru-sarrerak badituzten pertsonen behar dituzten 74.938 etxebizitzak gehituz gero, guztira 112.718 etxebizitza beharko lirateke EAEn.

2.1.3. Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa

EAEEn, eta diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko pertsonen dagokienez, puntu-erdiko igoera izan du lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak 2019tik (urte horretako familia-etxebizitza guztien % 6,0) 2021era (% 6,5: 58.137 etxebizitza).

Urrun geratzen da 2009ko beharraren bolumena. Urte horretako kopurua serieko handiena izan zen. Izan ere, beharra 110 mila etxebizitzatik gorakoa izan zen (urte horretako parkearen % 13,2).

9. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren eta eskariaren ehunekoak. EAE. 2007-2021

	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Beharra (*)	% 10,4	% 9,0	% 13,2	% 11,7	% 9,0	% 6,8	% 7,4	% 6,3	% 6,0	% 6,5
4 urterako eskaria (**)	% 54,4	% 68,5	% 51,6	% 64,7	% 59,3	% 57,2	% 65,7	% 76,3	% 60,5	% 65,4
2 urterako eskaria (**)	% 26,2	% 32,7	% 38,1	% 36,6	% 33,4	% 35,6	% 45,7	% 49,2	% 39,2	% 40,1
Urte 1erako eskaria (**)	% 18,5	% 20,9	% 20,5	% 21,2	% 6,3	% 9,9	% 2,7	% 7,2	% 6,4	% 6,4


(*) **Familia guztiekiko %-a:** etxebizitzaren beharra duten eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharrezkoak diren etxebizitzaren guztizkoaren eta EAEko familia-etxebizitzaren guztizkoaren arteko erlazioa da.

(**) **Beharra duten familien %-a².**

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

11. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharren bilakaera. EAE, 2007-2021*

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonentzat zenbatetsitako etxebizitzaren balio absolutuak)



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

² 1, 2 eta 4 urterako eskariaren zenbatespenari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus definizioei buruzko eranskina.

Azken biurtekoan, berdintsu jarraitu du etxebizitza hurrengo urtean eskuratu ahal izango dutela aurreikusten duten familien ehuneko erlatiboak (% 6,4); etxebizitza hurrengo bi urteetan eskuratu ahal izango dutenen ehunekoak ia portzentaje-puntu bateko igoera izan du (% 39,2 2019an eta % 40,1 2021ean), eta lau urteetan eskuratu ahal izango dutenen ehunekoak, berriz, ia bost puntukoa (% 60,5 2019an eta % 65,4 2021ean).

2007. urteko datuekin alderatuta, ikus daiteke beherakada handia gertatu dela beharraren eta eskariaren kontzeptu guztietan, baina badirudi azken edizioarekiko konparazioan datuak egonkortu egin direla eta beheranzko joera eten egin dela, termino erlatiboetan bederen.

10. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskariaren aldakuntza. 2007-2021 eta 2019-2021

	2007-2021 aldiko aldakuntza				2019-2021 aldiko aldakuntza			
	Absolutuak		Tasa (%)		Absolutuak		Tasa (%)	
	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.
Beharra	−% 3,9	−24.754	−% 37,8	−% 29,9	% 0,5	4.690	% 7,9	% 8,8
4 urterako eskaria	% 11,0	−7.052	% 20,3	−% 15,6	% 4,9	5.709	% 8,2	% 17,7
2 urterako eskaria	% 13,9	1.613	% 53,2	% 7,4	% 1,0	2.391	% 2,4	% 11,4
Urte 1erako eskaria	−% 12,1	−11.580	−% 65,3	−% 75,7	% 0,0	281	−% 0,6	% 8,2


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2007. urtearekin alderatuta (urte horretan 82.891 etxebizitza eskatu ziren), beharraren tasak ia % 30eko (−% 29,9) beherakada izan badu ere, ia 9 portzentaje-puntuko (% 8,8) igoera izan du 2019ko datuarekin alderatuta (4.690 etxebizitza 2019an).

Epe luzeko bilakaeraren ikuspegitik, 2021. urtean joera-aldaketa bat gertatu da etxebizitza eskuratzeko beharra duten familien indizean. Izan ere, portzentajezko puntu-erdiko igoera izan du 2019. urtearekin alderatuta. Horrela, beraz, serieko ehunekorik handiena izan zuen 2009. urteaz geroztik ikusitako pixkanakako beherakada eten egin da, 2015. urtean izan ezik (% 7,4). Nolanahi ere, 2013. urteaz geroztik ehunekoa % 7,5etik beherako balioetan egonkortu dela dirudi.

12. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren bilakaera, EAE. 1996-2021*

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Lurralde-ikuspegitik, diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak gora egin du hiru lurraldeetan 2019tik 2021era bitartean, igoera hori Araban bereziki handia izan bada ere. Izan ere, 9.237 etxebizitza behar dira Araban (etxebizitza-parkearen % 6,7); hau da, portzentajezko bi puntu gehiago 2019. urtearekin alderatuta (% 4,6 urte horretan). Gipuzkoan (% 6,9) eta Bizkaian (% 6,1), berriz, igoerak oso txikiak izan dira (portzentajezko 0,1 eta 0,3 puntukoak, hurrenez hurren).

11. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2005-2021


(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoa)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a
2005	90.815	% 11,7	13.217	% 12,1	49.348	% 11,8	28.290	% 11,4
2006	92.788	% 11,8	13.156	% 11,8	48.613	% 11,5	31.019	% 12,3
2007	82.891	% 10,4	12.424	% 10,9	46.299	% 10,8	24.167	% 9,4
2008	74.461	% 9,0	10.992	% 9,2	39.052	% 8,8	24.417	% 9,2
2009	110.677	% 13,2	11.476	% 9,3	66.418	% 14,8	32.783	% 12,2
2010	97.800	% 11,7	15.246	% 12,3	54.157	% 12,1	28.397	% 10,6
2011	76.360	% 9,0	8.306	% 6,6	46.808	% 10,4	21.246	% 7,8
2013	59.318	% 6,8	6.666	% 5,0	29.945	% 6,5	22.707	% 8,1
2015	64.290	% 7,4	8.362	% 6,3	34.949	% 7,8	20.979	% 7,5
2017	55.531	% 6,3	8.383	% 6,2	30.543	% 6,6	16.605	% 5,7
2019	53.447	% 6,0	6.302	% 4,6	27.958	% 6,0	19.187	% 6,6
2021	58.137	% 6,5	9.237	% 6,7	28.612	% 6,1	20.288	% 6,9

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

13. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 18-44 urteko pertsonak. 2005-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Araba	% 12,1	% 11,8	% 10,9	% 9,2	% 9,3	% 12,3	% 6,6	% 5,0	% 6,3	% 6,2	% 4,6	% 6,7
Bizkaia	% 11,8	% 11,5	% 10,8	% 8,8	% 14,8	% 12,1	% 10,4	% 6,5	% 7,8	% 6,6	% 6,0	% 6,1
Gipuzkoa	% 11,4	% 12,3	% 9,4	% 9,2	% 12,2	% 10,6	% 7,8	% 8,1	% 7,5	% 5,7	% 6,6	% 6,9

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Azterketa 18-44 urteko pertsona guztiekin eginez gero (diru-sarrerak dituzten ala ez kontuan hartu gabe), azken bi urteetan EAE osoan behar diren etxebizitzaren pisu erlatiboan nolabaiteko egonkortasuna egon dela ikus daiteke (% 9,9).

12. taula: 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2015-2021

(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a	Kop.	Familia guztiekiko %-a
2015	91.693	% 11,8	12.940	% 11,8	49.807	% 11,9	28.946	% 11,6
2017	76.406	% 9,7	11.628	% 10,4	41.339	% 9,8	23.440	% 9,3
2019	79.256	% 9,9	10.494	% 9,2	41.891	% 9,7	26.871	% 10,5
2021	89.163	% 9,9	13.264	% 9,7	44.922	% 9,5	30.977	% 10,6

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Azterketa horretan, halaber, Araba da igoera erlatiborik handiena izan duen lurraldea, aurreko datua baino portzentajezko puntu-erdi handiagoa baino izan ez bada ere. Gipuzkoako igoera are txikiagoa izan da (puntu-hamarrena baino ez). Bizkaiak, bestalde, bi hamarreneko beherakada izan du.


2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen ezaugarriak

Atal honetan, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta lehen emantzipaziorako urratsa egiteko baliabideak dituzten pertsonen kolektiboaren ezaugarriak zehaztea ahalbidetzen duten emaitza nagusiak jasotzen dira. Horretarako, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutela eta diru-sarrera edo errenta propioak dituztela adierazi duten 18-44 urteko EAEko biztanleak hartu dira azterketa-kolektibo gisa.

2.2.1. Ezaugarri soziodemografikoak

Emantzipatzeko beharra duten eta diru-sarrera propioen bat duten 18-44 urteko pertsonen batez besteko adina 29 urte da 2021. urtean. Hortaz, berriz ere 30 urtetik beherako balioetara itzuli da batez besteko adina, 2013ko ediziora arte bezalaxe (28,8 urte batez beste edizio horretan).

14. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen batez besteko adinaren bilakaera, 1997-2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Bestalde, etxebizitza eskuratzeko eskari-motaren arabera (bakarka edo bikotekidearekin) batez besteko adinean alde txiki bat dagoela ikus daiteke. Izan ere, diru-sarrera propioak izanik etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adina 29 urtetik gorakoa da etxebizitza bakarrik eskuratu nahi duten pertsonen kasuan (29,4 urte), eta 29 urtetik beherakoa bikotekidearekin eskuratzeko asmoa duten pertsonen kasuan (28,6 urte).

13. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2021

(Beharra duten pertsonen batez besteko balioak)

		EAE	Lurralde historikoa			Eskuratzeko modua		Sexua	
			Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bakarrik	Bikotekidearekin	Emakumeak	Gizonak
Pertsona-kopurua	Diru-sarrerak dituztenak, guztira	64.858	9.836	22.770	32.252	35.941	28.918	30.556	34.302
	. Diru-sarrera nahikoak dituztenak	18.249	2.349	5.772	10.128	9.957	8.292	7.983	10.265
	. Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	46.609	7.487	16.998	22.124	25.984	20.626	22.573	24.037
Batez besteko adina	Diru-sarrerak dituztenak, guztira	29,0	27,5	28,1	30,1	29,4	28,6	28,9	29,1
	. Diru-sarrera nahikoak dituztenak	29,9	26,4	29,3	31,1	30,6	29,0	28,8	30,8
	. Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	28,7	27,8	27,8	29,6	28,9	28,4	28,9	28,4

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Lurralde-ikuspegitik, Bizkaiko zifra autonomia-erkidegoko batezbestekoa baino handixeagoa da (30,1 urte diru-sarrerak dituzten pertsonen taldean). Batezbesteko horiek handiagoak dira, halaber, diru-sarrerak nahikoak diren ala ez kontuan hartuta (31,1 urte eta 29,6 urte, hurrenez hurren).

Gipuzkoako eta Arabako zifrak EAEko batezbestekoa baino txikiagoak izan dira (28,1 urte eta 27,5 urte batez beste, hurrenez hurren). Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektiborik gazteena Arabakoa da, bai diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen kasuan (26,4 urte), bai diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen kasuan (27,8 urte), azken kasu horretan zifra Gipuzkoakoaren berdina bada ere.

Diru-sarrera edo errenta propioak izanik lehen etxebizitza eskatzen duten pertsona horien adinaren arabera banaketa zehazki aztertuta, proportziorik handieneko kolektiboa 25-34 urteko pertsonena da (% 53,5). 18-24 urtekoen kolektiboaren proportzioa % 26,8 da, eta 35-44 urtekoena, berriz, % 19,7.

Bilakaeraren ikuspegitik egiazta daitekeenez, talderik gazteenak eten egin du azken urteotan pisu erlatiboa galtzeko izan duen joera, eta zifrarik txikiena 2017an izan ondoren (% 15,6), zazpi hamarren gehiago izan zituen 2019an (% 16,3), eta hamar puntu inguru gehiago 2021ean (% 26,8).

Aztertutako gainerako bi adin-taldeen ehunekoak behera egin du 2019. urtearekin alderatuta: bost portzentaje-puntu inguru 25-34 urteko pertsonen kasuan (% 58,3tik % 53,5ra jaitsi da), eta sei portzentaje-puntu inguru 35-44 urteko pertsonen kasuan (% 25,5 2019an eta % 19,7 2021ean).

14. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, EAE. 2007-2021
(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	2007		2009		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	92.365	% 100	125.514	% 100	88.127	% 100	65.345	% 100	72.835	% 100	62.101	% 100	64.703	% 100	64.857	% 100
Beharra duen pertsonaren adina																
18-24 urte	27.894	% 30,2	27.273	% 21,7	12.964	% 14,7	8.431	% 12,9	8.692	% 11,9	9.657	% 15,6	10.535	% 16,3	17.376	% 26,8
25-34 urte	47.938	% 51,9	89.633	% 71,4	63.342	% 71,9	47.861	% 73,2	49.687	% 68,2	38.943	% 62,7	37.696	% 58,3	34.685	% 53,5
35-44 urte	16.533	% 17,9	8.608	% 6,9	11.821	% 13,4	9.053	% 13,9	14.456	% 19,8	13.501	% 21,7	16.472	% 25,5	12.796	% 19,7
Batez besteko adina (urteak)	29,1		27,8		28,8		28,8		30,3		30,0		30,6		29,0	
Sexua																
Emakumeak	41.287	% 44,7	55.227	% 44,0	42.420	% 48,1	31.777	% 48,6	30.957	% 42,5	29.507	% 47,5	29.226	% 45,2	30.536	% 47,1
Gizonak	51.078	% 55,3	70.287	% 56,0	45.708	% 51,9	33.569	% 51,4	41.879	% 57,5	32.594	% 52,5	35.478	% 54,8	34.302	% 52,9
Ikasketa-maila																
Ikasketarik gabe/lehen mailakoak	15.240	% 16,5	20.961	% 16,7	15.837	% 18,0	7.451	% 11,4	8.292	% 11,4	6.966	% 11,2	7.771	% 12,0	7.871	% 12,1
Lanbide-ikasketak	28.633	% 31,0	39.327	% 31,3	22.949	% 26,0	21.248	% 32,5	25.644	% 35,2	21.640	% 34,8	19.308	% 29,8	24.558	% 37,9
Bigarren mailako ikasketak	9.698	% 10,5	14.292	% 11,4	9.188	% 10,4	6.917	% 10,6	6.203	% 8,5	7.345	% 11,8	9.377	% 14,5	5.626	% 8,7
Unibertsitate-ikasketak	38.793	% 42,0	50.934	% 40,6	40.154	% 45,6	29.730	% 45,5	32.698	% 44,9	26.150	% 42,1	28.247	% 43,7	26.801	% 41,3
ED/EE	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lan-egoera																
Ez-soldatakoak	5.810	% 6,3	15.296	% 12,2	6.983	% 7,9	7.161	% 11,0	9.695	% 13,3	5.846	% 9,4	7.001	% 10,8	4.099	% 6,3
Kontratu finkoarekin lanean	47.162	% 51,1	59.581	% 47,5	60.880	% 69,1	28.821	% 44,1	27.472	% 37,7	24.227	% 39,0	28.984	% 44,8	23.740	% 36,6
Aldi baterako kontratuarekin lanean	33.307	% 36,1	35.749	% 28,5	12.848	% 14,6	23.885	% 36,6	32.556	% 44,7	28.517	% 45,9	25.478	% 39,4	33.159	% 51,1
Langabeak	4.332	% 4,7	8.083	% 6,4	5.089	% 5,8	3.608	% 5,5	2.162	% 3,0	2.063	% 3,3	1.880	% 2,9	3.424	% 5,3
Beste egoera bat	1.755	% 1,9	6.248	% 5,0	2.329	% 2,6	1.341	% 2,1	952	% 1,3	1.447	% 2,3	1.360	% 2,1	437	% 0,7
ED/EE	-	-	557	% 0,4	-	-	530	% 0,8	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza eskatzen dutenen artean, emakumeak %47,1 dira. Ehuneko hori 2017ko ediziokoaren antzekoa da (% 47,5 2017an), eta 2019koa baino ia bi puntu handiagoa (% 45,2 2019an). Nolanahi ere, berriz ere gizonak nagusi dira kolektibo horren barruan (% 52,9 ziren 2021ean).

Ikasketa-mailari dagokionez, eskatzaileen % 41,3k unibertsitate-titulazioa du, eta % 37,9k, lanbide-ikasketak. Bigarren edo lehen mailako ikasketak dituztenen ehunekoa txikiagoa da (% 8,7 eta % 12,1, hurrenez hurren).

Aldagai horretan, finkatu egin da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen pisu erlatiboa, eta % 40tik gorako balioak izan dituzte edizio guztietan. Era berean, bigarren lekuan finkatu da lanbide-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa. Izan ere, berreskuratu egin du 2019an galdu zuen pisu erlatiboa, eta portzentajezko 8 puntu gehiago izan ditu 2021ean.

Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa 2019koaren antzekoa da, eta bigarren mailako ikasketak dituztenak, berriz, azken lekuan sailkatu dira, ia 6 puntu galdu baitituzte 2019. urtearekin alderatuta. Gainera, bere serieko bigarren pisu erlatiborik txikiena izan dute, 2015eko edizioan izan zutenaren atzetik (% 8,5 urte horretan).

15. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen ezaugarri soziodemografikoen aldakuntza, EAE. 2007-2021 eta 2019-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	2007		2019		2021		2007-2021 aldiko aldakuntza		2019-2021 aldiko aldakuntza	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	92.365	% 100	64.703	% 100	64.858	% 100	-27.507	-% 29,8	155	% 0,2
Beharra duen pertsonaren adina										
18-24 urte	27.894	% 30,2	10.535	% 16,3	17.376	% 26,8	-10.518	-% 37,7	6.841	% 64,9
25-34 urte	47.938	% 51,9	37.696	% 58,3	34.686	% 53,5	-13.252	-% 27,6	-3.010	-% 8,0
35-44 urte	16.533	% 17,9	16.472	% 25,5	12.796	% 19,7	-3.737	-% 22,6	-3.676	-% 22,3
Batez besteko adina (urteak)	29,1		30,6		29,0		-0,1	-% 0,3	-1,6	-% 5,2
Sexua										
Emakumeak	41.287	% 44,7	29.226	% 45,2	30.556	% 47,1	-10.731	-% 26,0	1.330	% 4,6
Gizonak	51.078	% 55,3	35.478	% 54,8	34.302	% 52,9	-16.776	-% 32,8	-1.176	-% 3,3
Ikasketa-maila										
Ikasketarik gabe/lehen mailakoak	15.240	% 16,5	7.771	% 12,0	7.871	% 12,1	-7.369	-% 48,4	100	% 1,3
Lanbide-ikasketak	28.633	% 31,0	19.308	% 29,8	24.558	% 37,9	-4.075	-% 14,2	5.250	% 27,2
Bigarren mailako ikasketak	9.698	% 10,5	9.377	% 14,5	5.626	% 8,7	-4.072	-% 42,0	-3.751	-% 40,0
Unibertsitate-ikasketak	38.793	% 42,0	28.247	% 43,7	26.801	% 41,3	-11.992	-% 30,9	-1.446	-% 5,1
ED/EE	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lan-egoera										
Ez-soldatukoak	5.810	% 6,3	7.001	% 10,8	4.099	% 6,3	-1.711	-% 29,4	-2.902	-% 41,5
Kontratu finkoarekin lanean	47.162	% 51,1	28.984	% 44,8	23.740	% 36,6	-23.422	-% 49,7	-5.244	-% 18,1
Aldi baterako kontratuarekin lanean	33.307	% 36,1	25.478	% 39,4	33.159	% 51,1	-148	-% 0,4	7.681	% 30,1
Langabeak	4.332	% 4,7	1.880	% 2,9	3.424	% 5,3	-908	-% 21,0	1.544	% 82,1
Beste egoera bat	1.755	% 1,9	1360	% 2,1	437	% 0,7	-1.318	-% 75,1	-923	-% 67,9
ED/EE	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021eko edizioan, azpimarratu beharra dago lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen artean aldi baterako kontratuarekin lanean ari direnen ehunekoa. Izan ere, aldi baterako kontratu batekin lanean ari diren pertsonak erdiak baino gehiago dira (% 51,1). Talde horren serieko ehunekorik handiena da, eta % 30,1eko tasara iritsi da (7.681 pertsona gehiago, 2019ko datuarekin alderatuta).

Kontratu finkoarekin lanean ari diren pertsonak azterketa-kolektiboaren % 36,6 dira 2021ean, eta sailkapenaren bigarren tokian geratu dira, 2019an baino 5.244 pertsona gutxiago baitira (–% 18,1). 2019an, lehen tokian zeuden (% 44,8).

Etxebizitza eskuratzeko moduari dagokionez, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten, diru-sarrerara propioak dituzten eta etxebizitza **bakarrik eskuratu** nahi duten pertsonen ehunekoak gora egin du azken bi urteetan. Izan ere, % 43,7 ziren 2019an, eta % 55,4 2021ean. Beraz, 2017ko balioetara itzuli dira (% 55,2 urte horretan).

16. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, urtearen eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera, 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Ezaugarriak (*)	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021		
								Guztira	Bakarrik	Bikotekidearekin
Beharra duen pertsonaren adina										
18-24 urte	% 21,7	% 19,8	% 14,7	% 12,9	% 11,9	% 15,6	% 16,3	% 26,8	% 24,9	% 29,1
25-34 urte	% 71,4	% 66,6	% 71,9	% 73,2	% 68,2	% 62,7	% 58,3	% 53,5	% 53,5	% 53,5
35 urte eta gehiago	% 6,9	% 13,6	% 13,4	% 13,9	% 19,8	% 21,7	% 25,5	% 19,7	% 21,6	% 17,4
Batez besteko adina (urteak)	27,8	28,5	28,8	28,8	30,3	30,0	30,6	29,0	29,4	28,6
Sexua										
Emakumeak	% 44,0	% 44,4	% 48,1	% 48,6	% 42,5	% 47,5	% 45,2	% 47,1	% 49,0	% 44,7
Gizonak	% 56,0	% 55,6	% 51,9	% 51,4	% 57,5	% 52,5	% 54,8	% 52,9	% 51,0	% 55,3
Ikasketa-maila										
Ikasketarik gabe/lehen mailakoak	% 16,7	% 14,1	% 18,0	% 11,4	% 11,4	% 11,2	% 12,0	% 12,1	% 10,0	% 14,8
Lanbide-ikasketak	% 31,3	% 33,0	% 26,0	% 32,5	% 35,2	% 34,8	% 29,8	% 37,9	% 39,3	% 36,0
Bigarren mailako ikasketak	% 11,4	% 11,0	% 10,4	% 10,6	% 8,5	% 11,8	% 14,5	% 8,7	% 7,7	% 9,9
Unibertsitate-ikasketak	% 40,6	% 41,9	% 45,6	% 45,5	% 44,9	% 42,1	% 43,7	% 41,3	% 43,0	% 39,2
Lan-egoera										
Bere kontura lanean	% 12,2	% 7,4	% 7,9	% 11,0	% 13,3	% 9,4	% 10,8	% 6,2	% 5,0	% 7,6
Kontratu finkoarekin lanean	% 47,5	% 49,7	% 69,1	% 44,1	% 37,7	% 39,0	% 44,8	% 36,6	% 39,0	% 33,7
Aldi baterako kontratuarekin lanean	% 28,5	% 33,8	% 14,6	% 36,8	% 44,7	% 45,9	% 39,4	% 51,1	% 50,5	% 51,9
Langabeak	% 6,4	% 5,9	% 5,8	% 5,5	% 3,0	% 3,3	% 2,9	% 5,3	% 5,5	% 5,0
Beste egoera bat (ikasleak...)	5,0%	% 3,2	% 2,6	% 2,6	% 1,3	% 2,3	% 2,1	% 0,8	% 0,0	% 1,8
Eskuratzeko modua										
Bakarrik	% 51,0	% 57,8	% 47,4	% 52,3	% 49,9	% 55,2	% 43,7	% 55,4	% 100,0	
Bikotekidearekin	% 49,0	% 42,2	% 52,6	% 47,7	% 50,1	% 44,8	% 56,3	% 44,6		% 100,0

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-24 urteko pertsonen artean, etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi dutenen pisu erlatiboa handiagoa da bakarrik eskuratu nahi dutenena baino (% 29,1 eta % 24,9, hurrenez hurren). Aitzitik, 35 urte eta gehiagokoen taldean, bakarrik independizatu nahi duten pertsonen pisu erlatiboa handiagoa da lehen etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi duten pertsonena baino (% 21,6 eta % 17, hurrenez hurren). Bestalde, 25-34 urtekoen taldean ez dago alderik (% 53,5 bi kasuetan).

Sexua kontuan hartuta, emakume eskatzaileek nahiago dute etxebizitza bakarrik eskuratu (% 49,0k). Gizonek, berriz, bikotekidearekin nahiago dute (% 55,3k).

2021. urtean etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen familia-etxebizitzaren ezaugarriak kontuan hartuta ikus daitekeenez, etxebizitza horietan 3,6 pertsona bizi dira batez beste, eta etxebizitzaren batez besteko azalera 92,5 m² da.

17. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen familien bizitegi-ezaugarriak. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Ezaugarriak (*)	Guztira	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorrak dituztenak	Bakarrik	Bikotekidearekin
Familiaren tamaina					
2 pertsona	% 12,0	% 12,0	% 12,1	% 11,9	% 12,2
3 pertsona	% 39,5	% 37,9	% 40,1	% 41,5	% 36,9
4 pertsona	% 33,9	% 30,4	% 35,3	% 35,2	% 32,3
5 pertsona edo gehiago	% 14,6	% 19,7	% 12,6	% 11,3	% 18,6
Batez besteko kopurua (pertsonak)	3,6	3,6	3,6	3,5	3,7
Etxebizitza babestua (BOE edo etxebizitza soziala)					
Bai	% 13,5	% 17,0	% 12,1	% 17,7	% 8,2
Ez	% 86,5	% 83,0	% 87,9	% 82,2	% 91,8
Etxebizitzaren azalera erabilgarria					
60 m ² -ra bitarte	% 10,8	% 12,0	% 10,3	% 9,2	% 12,7
61-75 m ²	% 22,2	% 20,6	% 22,8	% 27,2	% 15,9
76-90 m ²	% 32,4	% 38,2	% 30,1	% 35,1	% 29,1
90 m ² baino gehiago	% 34,6	% 29,1	% 36,8	% 28,5	% 42,3
ED/EE					
Batez besteko azalera (m²)	92,5	88,7	93,9	88,6	97,2

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko pertsonen % 39,5 3 pertsonak osatutako familietan bizi dira, eta % 33,9, berriz, 4 pertsonak osatutako familietan.


Diru-sarrera gutxiegi/ezegonkorrak dituzten eskatzaileak eta etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi dutenak tamaina handiagoko etxebizitzetan bizi dira (93,9 m² eta 97,2 m²-koetan, batez beste, hurrenez hurren).

2.2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoiak

Edizio honetan ere, diru-sarrera propioak dituzten pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren arrazoi nagusia familiarik emantzipatzea da (kasuen % 78,0tan); % 17,4rentzat, berriz, beste pertsona batekin bizitzeko asmoa da emantzipatzeko arrazoia.

15. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko duten arrazoiak. EAE. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

18. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusia, EAE. 2007-2021

(Pertsonen kopurua eta beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	2007		2009		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eskuratzeko beharra	92.365	% 100	125.514	% 100	88.128	% 100	65.346	% 100	72.837	% 100	62.101	% 100	64.703	% 100	64.858	% 100
Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea	21.115	% 22,9	31.630	% 25,2	29.369	% 33,3	14.519	% 22,2	17.498	% 24,0	17.772	% 28,6	15.175	% 23,5	11.305	% 17,4
Independizatzea	70.253	% 76,1	90.119	% 71,8	57.264	% 65,0	48.816	% 74,7	53.754	% 73,8	43.574	% 70,2	48.384	% 74,8	50.622	% 78,1
Beste arrazoi bat	997	% 1,1	3.765	% 3,0	1.495	% 1,7	2.011	% 3,1	1.585	% 2,2	755	% 1,2	1.144	% 1,8	2.931	% 4,5

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ikus daitekeenez, azken bi urteotan nolabaiteko igoera gertatu da familiarik independizatu nahi duten pertsonen taldean (2.238 pertsona gehiago: % 4,6ko igoera-tasa). Bestalde, bikotekidearekin bizi edo ezkondu nahi duten pertsonak duela bi urte baino laurden bat gutxiago dira (-% 25,5: 3.870 pertsona gutxiago).

19. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusiaren aldakuntza, EAE. 2007-2021 eta 2019-2021

(Pertsonen kopurua eta beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak)


	2007		2019		2021		2007-2021 aldiko aldakuntza		2019-2021 aldiko aldakuntza	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Abs.	%	Abs.	%
Eskuratzeko beharra	92.365	% 100	64.703	% 100	64.858	% 100	-27.507	-% 29,8	155	% 0,2
Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea	21.115	% 22,9	15.175	% 23,5	11.305	% 17,4	-9.810	-% 46,5	-3.870	-% 25,5
Independizatzea	70.253	% 76,1	48.384	% 74,8	50.622	% 78,1	-19.631	-% 27,9	2.238	% 4,6
Beste arrazoi bat	997	% 1,1	1.144	% 1,8	2.931	% 4,5	1.934	% 194,0	1.787	% 156,2

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Epe luzera, ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko asmoak indarra galdu du lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi gisa. 2000. urtera arte, pertsona horien ehunekoa % 40tik gorakoa izan da. 2001. urtetik aurrera, berriz, arrazoi horrek behera egin du, eta, gorabeheraren batekin, azken edizio honetan izan du mailarik txikiena (% 17,4).

16. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko dituzten arrazoi nagusien bilakaera. EAE. 1997-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Zirkunstantzia horren ondorioz, jakina, familiatik independizatzeko arrazoiak gora egin du, eta 2021ean izan du ehunekorik handiena (% 78,0).

2.2.3. Beharraren maila subjektiboa eta eskari-epeak

Otik 100erako eskala batean, 18-44 urteko biztanleen etxebizitza **eskuratzeko beharraren indize subjektiboa**³ 61,8 puntukoa izan da batez beste; hau da, azken lau edizioetako handiena.

20. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko biztanleen etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Behar-maila	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 36,9	% 35,2	% 42,1	% 26,0	% 31,2	% 33,2	% 19,5	% 31,3
Handi samarra	% 41,1	% 39,3	% 31,9	% 41,9	% 33,1	% 35,7	% 40,2	% 34,2
Txiki samarra	% 17,2	% 18,9	% 20,6	% 27,6	% 23,1	% 22,2	% 31,2	% 24,2
Txikia	% 4,9	% 6,5	% 5,4	% 4,5	% 12,6	% 8,8	% 9,1	% 10,3
Beharraren batez besteko indizea (0-100)	69,7	67,5	70,0	62,8	60,7	64,2	56,3	61,8

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Oro har, adierazleak behera egin du lehen edizioetatik (2013. urtearen aurrekoetatik), baina 2021ean gora egiten hasi dela dirudi. 2019tik 2021era bitartean pertzepzio horrek izan duen igoera *behar handia* dutela adierazi duten eskatzaileen ehunekoaren igoerari lotuta dago (ehuneko hori % 19,5 zen 2019an, eta % 31,3 2021ean). Era berean, *behar handi samarra* dutela adierazi dutenen ehunekoaren beherakada (% 40,2 2019an eta % 34,2 2021ean) *behar txiki samarra* dutenen ehunekoaren beherakadarekin konpentsatu da (% 31,2 2019an eta % 24,2 2021ean).

Behar *handia* edo *handi samarra* dutela adierazi duten pertsona guztiak kontuan hartuta, proportzioa % 65,5era iritsi da 2021ean. Proportzio hori 2007. urteaz geroztik behera egiten ari bada ere (% 97,8 urte horretan), badirudi azken edizioan nolabaiteko igoera izan dela eta 2015eko edizioiko proportziora hurbildu dela.

17. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharraren mailaren bilakaera (behar handiko edo handi samarreko kategoriak), 1997-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

³ Elkarriketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuari dagozkion erantzunen batezbestekoa da, honako eskala honen arabera: 100, handia; 66, handi samarra; 33, txiki samarra; eta 0, txikia.

Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanle guztien behar-maila aztertzean ikus daitekeenez, zehaztutako hiru kolektiboen arteko aldeak oso esanguratsuak dira.

Arestian adierazi dugunez, behar *handia* duten pertsonak (% 31,3%) edo *handi samarra* dutenak (% 34,2) kolektibo osoaren % 65,5 dira. Bestalde, 44 urtetik gorako pertsonen kasuan, ehuneko hori hiru puntu txikiagoa da (% 62,1). Hala ere, etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen edo beste egoera-mota batean dauden taldean, behar hori (handia edo handi samarra) duten pertsonak talde horretako pertsona guztien % 81,4 dira.

21. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten biztanle guztien etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Behar-maila	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
Behar handia	% 31,3	% 30,9	% 33,5
Behar handi samarra	% 34,2	% 31,2	% 47,9
Behar txiki samarra	% 24,2	% 32,2	% 13,0
Behar txikia	% 10,3	% 5,7	% 5,6
Beharraren batez besteko indizea (0-100)	61,8	62,1	69,4

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Jakina, ehunekoan banaketan agertzen diren alde horiek eragina dute beharraren batez besteko indizean. Izan ere, 18-44 urteko pertsonen eta 44 urtetik gorako pertsonen antzeko puntuazioak badituzte ere (61,8 puntu eta 62,1 puntu, hurrenez hurren), aztertutako hirugarren kolektiboa 69,4 puntura iritsi da.

Diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko eskatzaileen erdiek baino gehiagok (% 57,3k) bi urte baino gutxiago daramatzate behar horrekin.

22. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran daramaten denbora, 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Behar-egoeran daramaten denbora	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Urte 1 baino gutxiago	% 13,8	% 19,9	% 23,5	% 16,6	% 25,0	% 22,4	% 23,3	% 27,4
1-2 urte	% 26,1	% 34,5	% 28,9	% 34,2	% 36,7	% 36,9	% 43,7	% 29,9
2-4 urte	% 29,0	% 18,6	% 11,4	% 26,0	% 16,5	% 19,9	% 19,3	% 21,5
4 urte baino gehiago	% 31,2	% 27,0	% 36,3	% 23,2	% 21,9	% 20,8	% 13,6	% 21,2
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Gainerako % 42,7a 2-4 urte daramatzaten pertsonen eta 4 urte baino gehiago daramatzatzen artean banatuta dago (% 21,5 eta % 21,2, hurrenez hurren).

Bilakaerari dagokionez, behar-egoeran 2 urte baino gutxiago daramatzaten pertsonen proportzioak ia portzentajezko 10 puntuko beherakada izan du 2019tik 2021era (2019an, % 67,0, serieko ehunekorik handiena, eta 2021ean, % 57,2). Ehuneko hori oraindik handia bada ere, azken lau edizioetako txikiena da.

Bestalde, 2021. urtean gora egin du behar-egoeran denbora gehiago daramatzaten pertsonen proportzioak. Igoera txikiagoa izan da behar-egoeran 2-4 urte daramatzaten eskatzaileen ehunekoan (portzentajezko 2 puntuko igoera 2019tik 2021era), eta % 20ko muga gainditu du lehen aldiz 2015. urtetik. Behar-egoeran 4 urte baino gehiago daramatzatzen ehunekoak, berriz, igoera handiagoa izan du. Izan ere, % 13,6 ziren 2019an, eta % 21,2, 2021ean.

18. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran daramaten denboraren bilakaera, 1997-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2021. urtean, 18-44 urteko pertsonen artean, lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren batez besteko maila handiagoa da behar-egoeran emandako denbora handiagoa den heinean. Ildo horretan, lehen etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran urtebete daramaten pertsonen beharraren maila 42,4 puntukoa da. Etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran 1-2 urte daramatzaten pertsonen, berriz, 62,4 puntuko maila dute, eta egoera horretan bi urte baino gehiago daramatzaten pertsonen are maila handiagoak dituzte: 71,3 puntu 2-4 urte daramatzatzenak, eta 76,4 puntu 4 urte edo gehiago daramatzatzenak.

23. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren batez besteko maila, behar-egoeran emandako denbora kontuan hartuta. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko)

Behar-egoeran daramaten denbora	Batez besteko maila (0-100)		
	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
Urte 1 baino gutxiago	42,4	45,1	66,3
1-2 urte	62,4	71,4	66,7
2-4 urte	71,3	76,8	71,8
4 urte baino gehiago	76,4	60,5	72,5
Guztira	61,8	62,1	69,4

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

44 urtetik gorakoen taldean ere, etxebizitza eskuratzeko beharraren batez besteko maila handiagoa da behar-egoeran daramaten denbora handiagoa den heinean (45,1 puntu urtebete baino gutxiago daramatenak, 71,4 puntu 1-2 urte daramatzatenak eta 76,8 puntu 2-4 urte daramatzatenak), 4 urte baino gehiago daramatzatenean kasuan izan ezik. Izan ere, pertsona horien batez besteko maila 60,5 puntukoa da.

Bestalde, beste egoera-mota baten ondorioz independizatzeko beharra dutenen taldean, beharraren batez besteko mailak antzekoagoak dira, itxarondenbora edozein izanik ere. Ildo horretan, balio oso antzekoak ikus daitezke urtebete baino gutxiago daramatzenen taldean eta 1-2 urte daramatzatenean taldean (66,3 puntu eta 66,7 puntu, hurrenez hurren), eta handixeagoak (eta antzekoak) 2-4 urte daramatzatenean taldean eta 4 urte baino gehiago daramatzatenean taldean (71,8 puntu eta 72,5 puntu, hurrenez hurren).

Azterketa xehatuagoaren xede den kolektiboari berriro erreparatuta, eta etorkizunari begira, beharra duten pertsonen % 40,2k uste du aukera oso handia edo handi samarra duela lehen etxebizitza bi urteko epean eskuratzeko.

Proportzio hori handixeagoa da (% 42,3) denbora-tartea 4 urtera luzatzen denean, baina aukera handi samarra dutela adierazi dutenen pisu erlatiboaren ondorioz (% 41,7), aukera oso handia dutela adierazi dutenen ehunekoa oso txikia baita (% 0,6).

24. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari 2-4 urtean erantzuteko aukera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Behar-egoeran daramaten denbora	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
2 urteko epean eskuratzeko aukera								
Oso handia	% 12,2	% 14,4	% 10,9	% 14,7	% 12,4	% 12,9	% 7,7	% 10,1
Handi samarra	% 25,9	% 22,2	% 22,6	% 20,9	% 33,2	% 36,5	% 31,8	% 30,1
Txiki samarra	% 54,6	% 46,8	% 56,3	% 44,9	% 40,6	% 42,8	% 51,0	% 49,7
Aukerarik ez	% 7,2	% 16,5	% 10,2	% 19,5	% 13,8	% 7,9	% 9,5	% 10,0
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
4 urteko epean eskuratzeko aukera								
Oso handia (**)	% 12,7	% 15,2	% 34,1	% 37,4	% 46,2	% 51,3	% 41,5	% 40,6
Handi samarra	% 38,9	% 49,4	% 25,2	% 19,8	% 19,5	% 24,9	% 19,3	% 25,0
Txiki samarra	% 42,5	% 28,7	% 34,5	% 31,3	% 26,9	% 19,0	% 34,4	% 31,0
Aukerarik ez	% 6,0	% 6,6	% 6,2	% 11,4	% 7,4	% 4,8	% 4,8	% 3,3
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).


(**): 4 urtean eskuratzeko aukera oso handiaren kategoriaren barruan, 2 urtean eskuratzeko aukera oso handia eta handi samarra dutela adierazi dutenak sartu dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2019. urtearekin alderatuta, datuek erakusten dute nolabaiteko egonkortasuna dagoela lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari bi urteko epean erantzun ahal izango diotela aurreikusten duten pertsonen kolektiboan: % 40,2 2021ean eta % 39,5 2019an (urte horretan hamar puntu galdu ziren aurreko edizioarekin alderatuta).

19. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonek etxebizitza eskuratzeko duten beharrari 2-4 urtean erantzuteko aukeraren bilakaera. 1996-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

(**) Beharrari 2-4 urtean erantzuteko aukeraren barruan, aukera oso handiaren eta handi samarraren kategoriak sartu dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Bestalde, beharrari 4 urteko epean erantzutea aurreikusten duten pertsonen proportzioa % 65,5 izan da; hau da, 2019koa baino handiagoa (% 60,8 urte horretan), 2017koa baino txikiagoa (% 76,2 urte horretan) eta 2015ekoaren antzekoa (% 65,7 urte horretan).

Etxebizitza 4 urteko epean eskuratzea aurreikusten duten pertsonen artean etxebizitza aktiboki bilatzen ari direla adierazi duten pertsonen ehunekoa aztertuta ikus daitekeenez, 2015. urteaz geroztik (% 27,4 urte horretan) etengabe egin du gora, eta 2021ean lortutako proportzioa (% 42,5) 2013az geroztik lortu gabeko balioetara itzuli da (% 44,6 urte horretan).

20. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza aktiboki bilatzen ari diren 18-44 urteko pertsonen bilakaera, 1997-2021

Oinarria: lehen etxebizitza 4 urteko epean eskuratzea aurreikusten duten pertsonak

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2.2.4. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak

2021. urtean ere, etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen artean alokairuko etxebizitzek izan dute lehentasuna (kasuen % 42,4tan), jabetzako etxebizitzaren aurretik (kasuen % 39,5etan).

Serie historikoan, 2013. urtetik aurrera gora egin du alokairu-erregimena nahiago duten pertsonen ehunekoak, eta etxebizitza erosi nahi zutenen ehunekoa gailendu du.

Etorkizuneko etxebizitzarako ukaite-erregimen bat zein bestea (alokairua zein erosketa) aurreikusi duten pertsonak barnean hartuz gero, alokairuaren eskaria % 60,5era iritsiko litzateke.

Eskatutako etxebizitzaren azalerari dagokionez, 60 m²-tik beherako azalera duten etxebizitzak izan dira eskatuena. Zehazki, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 43,0k eskatu du horrelako etxebizitza bat. Haien atzetik, 61 eta 75 m² bitartekoak (% 29,2k eskatu ditu) eta 76 eta 90 m² bitartekoak (% 21,5ek) sailkatu dira. % 4,3k baino ez du eskatu 90 m²-tik gorako etxebizitza bat.

Bestalde, azken edizioetan tamainarik txikieneko etxebizitzak eskuratzeko ikusitako joerak bere horretan jarraitu du.

Etxebizitza berria (% 11,9) edo erabilia (% 7,7) izatea ez dirudi faktore erabakigarria denik eskatzaileen lehentasunetan, gehien-gehienek (% 75,7ri) ez baitaie hori axola.



25. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzak ezaugarriak. 2007-2021
(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten familia guztiekiko ehunekoak)

	2007		2009		2011		2013		2015*		2017		2019		2021	
	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%
Eskuratzeko beharra	82.891	% 100	110.676	% 100	76.360	% 100	59.318	% 100	72.835	% 100	62.101	% 100	64.703	% 100	64.858	% 100
Izaera																
Berria	19.396	% 23,4	21.072	% 19,0	18.583	% 24,3	11.019	% 18,6	2.734	% 17,5	6.706	% 10,8	7.918	% 12,2	7.733	% 11,9
Erabilia	4.476	% 5,4	6.816	% 6,2	1.742	% 2,3	5.661	% 9,5	1.511	% 9,7	6.743	% 10,9	7.587	% 11,7	5.026	% 7,7
Bata zein bestea	58.024	% 70,0	79.970	% 72,3	55.307	% 72,4	41.215	% 69,5	9.474	% 60,6	48.652	% 78,3	47.981	% 74,2	49.125	% 75,7
ED/EE	995	% 1,2	2.818	% 2,5	727	% 1,0	1.422	% 2,4	1.926	% 12,3	0	% 0,0	1.217	% 1,9	2.973	% 4,6
Azalera erabilgarria																
60 m ² baino gutxiago	23.732	% 28,6	13.532	% 12,2	15.314	% 20,1	16.828	% 28,4	3.136	% 20,0	23.226	% 37,4	30.871	% 47,7	27.864	% 43,0
61-75 m ²	28.216	% 34,0	48.052	% 43,4	27.158	% 35,6	17.882	% 30,1	4.260	% 27,2	16.392	% 26,4	13.155	% 20,3	18.933	% 29,2
76-90 m ²	21.908	% 26,4	32.881	% 29,7	30.355	% 39,8	15.653	% 26,4	4.840	% 30,9	16.052	% 25,8	13.696	% 21,2	13.997	% 21,6
90 m ² baino gehiago	2.570	% 3,1	8.309	% 7,5	1.768	% 2,3	4.520	% 7,6	1.148	% 7,3	2.310	% 3,7	2.706	% 4,2	2.775	% 4,3
ED/EE	6.465	% 7,8	7.903	% 7,1	1.764	% 2,3	4.436	7,5%	2.261	14,5%	4.120	6,6%	4.274	6,6%	1.289	2,0%
Batez besteko azalera (m²)	67,8		73,6		71,2		69,8		75,8		70,4		62,9		68,1	
Ukaite-erregimena																
Jabetza	56.200	% 67,8	65.835	% 59,5	39.717	% 52,0	21.796	% 36,7	19.392	% 26,6	22.489	% 36,2	26.232	% 40,5	25.624	% 39,5
Alokairua	6.880	% 8,3	18.136	% 16,4	13.566	% 17,8	22.940	% 38,7	37.989	% 52,2	30.357	% 48,9	29.413	% 45,5	27.488	% 42,4
- Alokairua, erosteko aukerarik gabe	-	-	-	-	-	-	-	-	20.973	% 28,8	15.140	% 24,4	20.187	% 31,2	16.777	% 25,9
- Alokairua, erosteko aukerarekin	-	-	-	-	-	-	-	-	17.016	% 23,4	15.217	% 24,5	9.226	% 14,3	10.711	% 16,5
Bata zein bestea	19.811	% 23,9	26.705	% 24,1	23.076	% 30,2	14.582	% 24,6	15.454	% 21,2	9.255	% 14,9	9.059	% 14,0	11.746	% 18,1

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen 18-44 urtekoen baino etxebizitza txikiagoak eskatu dituzte. Zehazki, 44 urtetik gorako pertsonen % 76,2k 60 m²-tik beherako etxebizitzak edo 61 eta 75 m² bitartekoak eskatu ditu (% 47,0k eta % 29,2k, hurrenez hurren). Eta, berriz ere, nagusi dira etxebizitza berriak zein erabiliak eskatu dituztenak (% 80,6). Berriak eskatu dituztenak % 1,9 izan dira, eta erabiliak eskatu dituztenak, berriz, % 15,5.

Beste egoera-mota batean dauden taldean, bereziki nabarmentzen da etxebizitza handiak nahiago dituzten eskatzaileen ehunekoa. Laurdenak (% 24,9k) 90 m²-tik gorako etxebizitzak eskatu ditu, eta % 21,0k, berriz, 76 eta 90 m² bitartekoak nahiago ditu. Pertsona-talde horren lehentasunen artean, ehuneko handi samarra dute, halaber, etxebizitza erabilia eskatu dutenek (% 22,4).

26. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten familia guztiekiko ehunekoak)

	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak		Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera- mota batean daudenak	
	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%
Eskuratzeko beharra	64.858	% 100	9.208	% 100	12.610	% 100
Izaera						
Berria	7.733	% 11,9	172	% 1,9	1.316	% 10,4
Erabilia	5.026	% 7,7	1.430	% 15,5	2.823	% 22,4
Bata zein bestea	49.125	% 75,7	7.419	% 80,6	8.209	% 65,1
Ez daki / Ez du erantzun	2.973	% 4,6	187	% 2,0	261	% 2,1
Azalera erabilgarria						
60 m ² baino gutxiago	27.864	% 43,0	4.330	% 47,0	3.868	% 30,7
61-75 m ²	18.933	% 29,2	2.692	% 29,2	2.963	% 23,5
76-90 m ²	13.997	% 21,6	1.685	% 18,3	2.642	% 21,0
90 m ² baino gehiago	2.775	% 4,3	314	% 3,4	3.137	% 24,9
Ez daki / Ez du erantzun	1.289	% 2,0	187	% 2,0	0	% 0,0
Batez besteko azalera (m²)	68,1		64,7		81,6	

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza alokairu-erregimenean eta bakarrik eskuratu nahi dutenak emantzipazio indibiduala nahi dutenak dira batez ere (% 44,5). Bikotekidearekin eskuratu nahi dutenek, berriz, etxebizitza erosi nahiago dute (% 45,3k). Lehen taldearen barruan, % 20,6ri berdina zaio erosketa edo alokairua, eta bigarren taldean, berriz, ehuneko hori txikiagoa da (% 15,0).

27. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen eskatutako ukaite-erregimena, etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera. 2021

(Pertsonen kopurua eta beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	ESKURATZEKO MODUA				Diru-sarrerak dituztenak, guztira	
	Bakarrik		Bikotekidearekin			
	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a
Ukaite-erregimena	35.940	100%	28.918	100%	64.858	100%
Jabetza	12.537	% 34,9	13.086	% 45,3	25.623	% 39,5
Alokairua	15.988	% 44,5	11.500	% 39,8	27.488	% 42,4
- Alokairua, erosteko aukerarik gabe	10.015	% 27,9	6.762	% 23,4	16.777	% 25,9
- Alokairua, erosteko aukerarekin	5.973	% 16,6	4.738	% 16,4	10.711	% 16,5
Bata zein bestea	7.415	% 20,6	4.332	% 15,0	11.747	% 18,1

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Ikus daitekeenez, baliabide ekonomikoak dituztenek etxebizitza jabetza-erregimenean eskuratzeko aukera lehenesten dute. Emantzipazioari aurre egiteko diru-sarrera nahikoak dituztela adierazi duten pertsonen % 52,5ek jabetza-erregimena nahiago du, eta % 37,8k, berriz, alokairu-erregimena.

Diru-sarrera urriak dituzten pertsonen kolektiboaren barruan, etxebizitza erosi nahi dutenak % 34,4 dira, eta alokatu nahi dutenak, berriz, portzentajezko 10 puntu gehiago (% 44,2).

28. taula: Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen eskatutako etxebizitzaren ukaite-erregimena. EAE. 2021

(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekak)


	Diru-sarrera nahikoak dituztenak		Diru-sarrera gutxiegia / ezegonkorak dituztenak		Diru-sarrerak dituztenak, guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	18.249	100%	46.609	100%	64.858	100%
Jabetza	9.587	% 52,5	16.037	% 34,4	25.624	% 39,5
Alokairua	6.905	% 37,8	20.584	% 44,2	27.489	% 42,4
- Erostea aukerarik gabe	4.005	% 21,9	12.772	% 27,4	16.777	% 25,9
- Erostea aukerarekin	2.900	% 15,9	7.812	% 16,8	10.712	% 16,5
Bata zein bestea	1.757	% 9,6	9.988	% 21,4	11.745	% 18,1

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Oro har, alokairuaren aukerak (lehen aukera gisa zein erosketarekin batera) izan duen bilakaera epe luzera aztertuta ikusten dugunez, eskariaren joera-aldaketa bat gertatu zen joan den hamarkadaren erdialdean. Izan ere, 2004. urtera arte, alokairuko etxebizitza eskatzen zutenen ehunekoa txikia zen, % 20 ingurukoa. Urte horretatik aurrera, berriz, jarrera-aldaketa handia gertatu zen, eta alokairuaren eskaria goranzko joera nabarmena agertzen hasi zen.

21. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen etorkizuneko etxebizitza alokairuan (lehen aukera gisa edo erosketarekin batera) eskuratzeko aukeraren bilakaera. 1997-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekak)



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Alokairura bideratutako eskariaren proportzioa % 17,7tik % 73,4ra igo zen 2004tik 2015era bitartean; hain zuzen, azken urte horretan izan zuen ehunekorik handiena. Handik aurrera, % 60 inguruko balioetan egonkortu dela dirudi.

2021. urtean, 18-44 urteko pertsonen behar duten etxebizitzaren tamaina 68,1 m² izan da batez beste. Etxebizitza bakarrik eskuratu nahi duten pertsonen eskatutako batez besteko azalera txikiagoa da bikotekidearekin eskuratu nahi duten pertsonen eskatutakoa baino (65,5 m² eta 71,2 m², hurrenez hurren).

29. taula: Diru-sarrerara edo errenta propio nahikoak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzaren azalera, eskuratzeko moduaren arabera. **2021** (Beharra duten eta diru-sarrerara edo errenta propio nahikoak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	GUZTIRA	ESKURATZEKO MODUA	
		Bakarrik	Bikotekidearekin
Guztira	% 100	% 100	% 100
Azalera			
40 m ² -ra bitarte	% 1,1	% 1,6	% 0,5
41-60 m ²	% 41,8	% 46,9	% 35,5
61-75 m ²	% 29,2	% 29,7	% 28,6
76-90 m ²	% 21,6	% 16,0	% 28,5
90 m ² baino gehiago	% 4,3	% 2,4	% 6,6
ED/EE	% 2,0	% 3,3	% 0,4
Batez besteko azalera (m ²)	68,1	65,5	71,2


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza bakarrik eskuratu nahi dutenen kasuan, gehien eskatutako kategoria 41 eta 61 m² bitarteko etxebizitzena da (kasuen % 46,9tan). Etxebizitza bakarrik eskuratu nahi duten pertsonen % 45,7k, berriz, 61 eta 90 m² bitarteko etxebizitza eskatu du.

Bikotekidearekin emantzipatu nahi duten pertsonen kasuan ere, gehien eskatutako etxebizitzak 41 eta 60 m² bitartekoak izan dira (kasuen % 35,5etan). Bestalde, pertsona horien % 57,1ek 61 eta 90 m² bitarteko etxebizitzak eskatu ditu. Haien artean, 61 eta 75 m² bitarteko etxebizitzak nahi dituztenek eta 76 eta 90 m² bitartekoak nahi dituztenek antzeko ehunekoa izan dute (% 28,6 eta % 28,5, hurrenez hurren).

Bilakaerari dagokionez, behar diren etxebizitzaren tamaina azken bi urteetan 5 m² handitu dela ikus daiteke (68,1 m² 2021ean eta 62,9 m² 2019an).

22. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzaren batez besteko azalaren bilakaera. **1997-2021**



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Horrela, beraz, badirudi eten egin dela 2015. urteaz geroztik eskatutako etxebizitzaren tamainan ikusitako beheranzko joera (2015ean eskatu zen tamainarik handiena: 75,8 m²).

Etxebizitza-eskaria lurraldearen arabera aztertuta egiaztatzen denez, nagusi dira, nabarmen, etxebizitza bizi diren udalerri berean eskatzen dutenak (% 63,8). Haien artean, % 10,0k jatorrizko auzoan bilatzen du etxebizitza, eta % 53,8k, berriz, udalerri berean, besterik gabe.

Gainera, lehen etxebizitza bakarrik eskuratu nahi duten pertsonen artean auzo edo udalerri berean geratu nahi dutenen pisu erlatiboa handiagoa da bikotekidearekin eskuratu nahi dutenen artean hori nahi dutenena baino (% 66,4 eta % 60,5, hurrenez hurren).

30. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzaren kokapena. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	GUZTIRA	ESKURATZEKO MODUA	
		Bakarrik	Bikotekidearekin
Guztira	% 100	% 100	% 100
Etxebizitzaren lekua			
Auzo berean	% 10,0	% 9,6	% 10,4
Udalerri berean	% 53,8	% 56,8	% 50,1
Eskualde berean	% 26,0	% 23,4	% 29,2
Beste eskualde batean	% 6,0	% 7,9	% 3,7
ED/EE	% 4,2	% 2,3	% 6,6
Udalerria aldatzeko prestasuna (**)	% 100	% 100	% 100
Bai	% 61,1	% 55,2	% 68,7
Ez	% 28,1	% 32,7	% 22,1
ED/EE	% 10,8	% 12,1	% 9,2

(*): % bertikala (eskuratzeko beharra duten guztiekiko).

(**): % bertikala (etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta hasieran udalerri berean bizi nahi duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago hasiera batean udalerri berean bizitzeko asmoa duten pertsonen % 61,1 prest dagoela udalerria aldatzeko, beren beharretara eta aukeretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratzeko aldera. Etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi duten pertsonen kasuan, ehunekoak % 68,7ra iritsi da.

Oro har, datuek erakusten dute pertsonen euren jatorrizko lurralde-ingurunean (udalerri berean edo eskualde berean) bizitzeko jarraitu nahi dutela eta, beraz, etxebizitzaren eskaria horretara bideratuta dagoela. Beharra duten pertsonen % 6,0k baino ez du adierazi beste eskualde batzuetan kokatutako etxebizitza aukeratzeko lukeela.

Lehen etxebizitza eskatzen duten 44 urtetik gorako pertsonen erdiek baino gehiagok (% 57,5ek) etxebizitza udalerri berean eskuratzea aurreikusi dute. Aukera hori nahiago dute, halaber, etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi dutenen % 64,1ek eta bakarrik eskuratu nahi dutenen % 54,4k.

31. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen behar dituzten etxebizitzaren kokapena. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak			Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak			Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		
	GUZTIRA	Bakarrik	Bikotekidearekin	GUZTIRA	Bakarrik	Bikotekidearekin	GUZTIRA	Bakarrik	Bikotekidearekin
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
Etxebizitzaren lekua									
Auzo berean	% 10,0	% 9,6	% 10,4	% 15,2	% 9,3	% 28,2	% 11,9	% 11,4	% 12,1
Udalerri berean	% 53,8	% 56,8	% 50,1	% 42,3	% 45,1	% 35,9	% 51,2	% 53,4	% 50,2
Eskualde berean	% 26,0	% 23,4	% 29,2	% 29,6	% 26,8	% 35,8	% 30,5	% 30,6	% 30,5
EAEko beste eskualde batean	% 6,0	% 7,9	% 3,7	% 10,6	% 15,3	% 0,0	% 1,7	% 2,5	% 1,3
Ez daki / Ez du erantzun	% 4,2	% 2,3	% 6,6	% 2,3	% 3,4	% 0,0	% 4,7	% 2,0	% 5,8
Udalerria aldatzeko prestasuna (**)	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
Baietz uste dut	% 61,1	% 55,2	% 68,7	% 53,9	% 56,2	% 49,1	% 51,7	% 53,4	% 51,0
Ezetz uste dut	% 28,1	% 32,7	% 22,1	% 38,4	% 32,2	% 50,9	% 45,0	% 41,8	% 46,4
Ez daki / Ez du erantzun	% 10,8	% 12,1	% 9,2	% 7,7	% 11,6	% 0,0	% 3,3	% 4,8	% 2,6

(*): % bertikala (eskuratzeko beharra duten guztiekiko).

(**): % bertikala (etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta hasieran udalerri berean bizi nahi duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Beste egoera-mota batengatik etxebizitza modu independentean eskuratu behar duten pertsonen kasuan, zifrak 18-44 urtekoek eman dituztenen antzekoak dira, eta 44 urtetik gorakoek eman dituztenak baino handiagoak. Izan ere, % 63,1ek ez du udalerria aldatu nahi, eta ehunekoa are handiagoa da etxebizitza bakarrik eskuratu nahi dutenen kasuan (% 64,8). Etxebizitza bikotekidearekin eskuratu nahi duten pertsonen artean, % 62,3k nahiago du bizi diren udalerrian eskuratu.

Beren beharretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza lortze aldera udalerria aldatzeko prestasunari dagokionez, 44 urtetik gorako pertsonen % 53,9 prest egongo litzateke. Etxebizitza bakarrik eskuratu nahi dutenen kasuan, % 56,2 egongo litzateke prest.

Hirugarren kolektiboko pertsonen kasuan, berriz, datua txikiagoa da: % 51,7 prest egongo litzateke udalerria aldatzeko. Etxebizitza bakarrik eskuratu nahi dutenen kasuan, % 53,4 egongo litzateke prest.

2.3. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen finantza-ahalmena


2.3.1. Diru-sarreraren maila

2021. urtean, etorkizuneko etxebizitzaren finantzaketan parte hartuko luketen pertsonen hileko diru-sarrera garbien batezbestekoa⁴ 1.260,00 euro izan da. Beraz, duela bi urte baino zortzi euro txikiagoa.

2011. urtean 1.554,00 euroko diru-sarrerak aitortu ondoren, azken edizioetan batez besteko errenta egonkortu egin dela dirudi.

23. grafikoa: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen diru-sarreraren bilakaera, 1997-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak)



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Kontuan hartutako diru-sarrera garbien tarte guztietan, pertsona-kopuruaren ehunekoak gora egin duela ikus daiteke. Salbuespen gisa, zenbatekorik handienaren tarteetan (2.160 euro baino gehiago) ia portzentajezko 2 puntuko beherakada gertatu da 2019tik 2021era bitartean (% 5,1 eta % 3,4, hurrenez hurren).

Igoerarik handiena izan duen tarte (aurreko datua ia bikoiztu egin duena) 1.651 eta 2.160 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenena izan da: % 8,7 2019an eta % 16,8 2021ean. 1.411 eta 1.650 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenen taldeak ere igoera handia izan du (portzentajezko 5 puntutik gorakoa).

Zenbatekorik handieneko gainerako tarteek portzentajezko 2 puntu inguruko igoera izan dute, eta zenbatekorik txikieneko tarteak (840 eurora bitarte), berriz, antzeko balioak izan ditu azken bi urteetan.

⁴ Diru-sarrerak etorkizuneko etxebizitza ordaintzen lagunduko duten pertsona guztienak dira. Adierazi beharra dago diru-sarrerak izatea etxebizitza bat eskuratzeko benetako eskaria dagoela finkatzeko betekizunetako bat dela.

32. taula: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen diru-sarreraren maila (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak). 2009-2021

Hileko diru-sarrera garbiak	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021		
								Gutxira	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak
840 eurora bitarte	% 14,1	% 21,5	% 9,9	% 18,1	% 23,2	% 22,1	% 14,7	% 14,6	% 0,4	% 20,2
841-1.140 euro	% 16,6	% 21,1	% 12,8	% 18,1	% 11,4	% 20,1	% 22,4	% 24,2	% 19,9	% 25,9
1.141-1.410 euro	% 16,2	% 15,8	% 21,6	% 19,2	% 15,6	% 18,7	% 22,1	% 23,8	% 21,8	% 24,5
1.411-1.650 euro	% 11,3	% 10,0	% 9,6	% 7,5	% 5,5	% 10,7	% 8,5	% 13,7	% 18,4	% 11,8
1.651-2.160 euro	% 12,9	% 11,6	% 13,5	% 9,6	% 5,7	% 10,6	% 8,7	% 16,8	% 24,4	% 13,8
2.160 euro baino gehiago	% 11,4	% 6,1	% 11,1	% 10,7	% 7,0	% 4,1	% 5,1	% 3,4	% 9,3	% 1,1
ED/EE	% 17,5	% 13,9	% 21,5	% 16,8	% 31,5	% 13,7	% 18,4	% 3,5	% 5,8	% 2,6
Batezbestekoa (euroak)	1.427,2	1.251,2	1.564,4	1.365,9	1.297,8	1.197,9	1.268,1	1.260,0	1.477,6	1.182,9

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Diru-sarrera nahikoak dituztela adierazi duten pertsonen proportzioak handiena biltzen duen diru-sarreraren tartea 1.651 eta 2.160 euro bitartekoa da. Zehazki, jasotako erantzunen ia laurdena bildu du (% 24,4). **Diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak** dituztela adierazi dutenen kolektiboan, berriz, pisu erlatiborik handieneko tartea 841 eta 1.140 euro bitartekoa izan da (% 25,9).

Edizio honetan ere, etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat duten pertsonen batez besteko hileko diru-sarrera garbiak handiagoak dira 18-44 urteko pertsonen taldean 44 urtetik gorako taldean baino (1.260,00 euro eta 1.163,00 euro, hurrenez hurren); ia 100 euro handiagoak.

33. taula: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen diru-sarreraren maila (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak). 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Hileko diru-sarrera garbiak	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
840 eurora bitarte	% 14,6	% 19,1	% 21,1
841-1.140 euro	% 24,2	% 30,3	% 17,6
1.141-1.410 euro	% 23,8	% 19,6	% 25,0
1.411-1.650 euro	% 13,7	% 20,2	% 11,9
1.651-2.160 euro	% 16,8	% 3,9	% 11,5
2.160 euro baino gehiago	% 3,4	% 2,4	% 8,5
Ez daki / Ez du erantzun	% 3,5	% 4,4	% 4,4
Batezbestekoa (euroak)	1.260,0	1.163,0	1.319,1

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Edonola ere, diru-sarrerarik handienak beste egoera-mota bati lotutako beharra duten pertsonen taldean agertu dira (1.319,10 euro batez beste; hots, 18-44 urteko pertsonen taldean baino % 4,7 gehiago).

Talde horietan gehien nabarmentzen diren diru-sarrera garbien tarteak 1.411 eurotik beherakoak dira.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen % 30,3k hileko 841 eta 1.140 euro bitarteko diru-sarrerak ditu. Ia erdiek (% 49,4k) hileko 1.141 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte.

Antzeko ehunekoa dute (% 48,0) hileko 841 eta 1.140 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten 18-44 urtekoen taldeak (% 24,2) eta hileko 1.141 eta 1.410 euro bitartekoak dituztenen taldeak (% 23,8), biak batuta.

Hirugarren kolektiboan, pertsonen laurdenak (% 25ek) 1.141 eta 1.410 euro bitarteko diru-sarrerak ditu hilean.

Etorkizuneko etxebizitzaren erosketa finantzatzeko beharrezkoak diren hileko diru-sarrerak biltzen lagunduko duten 18-44 urteko pertsonen kopuruari dagokionez, 2021. urtean pertsona horien % 57,0k adierazi du pertsona bakar batek egingo duela ekarpena; hau da, 2019an baino portzentajezko 12 puntu gehiagok (% 45,0k). Talde horren laurdenak (% 25,0k), berriz, ekarpena bikotea osatzen duten bi pertsonak egingo dutela adierazi du.

34. taula: Etorkizuneko etxebizitzaren (erosita zein alokatuta) finantzaketan parte hartuko duten pertsonen kopurua (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonak). 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Etorkizuneko etxebizitza finantzatzeko duten pertsonak	2009	2010	2011	2013	2015*	2017	2019	2021		
								Guztira	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak
Etxebizitza eskuratzeko beharra duen pertsona	% 54,1	% 62,8	% 57,1	% 56,9	% 55,9	% 56,7	% 45,0	% 57,0	% 56,3	% 57,3
Bikoteko pertsona bat	% 6,0	% 5,1	% 4,3	% 6,2	% 7,4	% 11,1	% 6,7	% 15,0	% 16,5	% 14,4
Bikoteko bi pertsonak	% 38,0	% 31,0	% 36,2	% 33,6	% 35,2	% 32,0	% 46,8	% 25,0	% 25,7	% 24,7
Beste egoera bat	% 2,0	% 1,1	% 2,4	% 3,3	% 1,5	% 0,2	% 1,5	% 2,9	% 1,5	% 3,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100


* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2019ko edizioarekin alderatuta, nabarmen egin du behera etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta erosketa beren eta bikotekidearen diru-sarrerarekin finantzatzeko litzatekeela adierazi duten 18-44 urteko pertsonen proportzioak. Izan ere, % 46,8 ziren 2019an, eta % 25,0 izan dira 2021ean.

24. grafikoa: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen finantzaketa partekatua bilakaera (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak). 1997-2021
(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

* 2009. urtetik aurrera, aldagaitasun metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Adierazi beharra dago etxebizitza bikotekidearekin finantzatzeko asmoa duten pertsonen ehunekoak beharrezko joera izan duela historikoki. Ildo horretan, ehunekorik handiena 1998koa izan zen (% 48,0), eta txikiena, berriz, 2008an (% 23,6). Ondoren, 2009. urtean berriz ere gora egin zuen, eta % 38,0a iritsi zen (1998ko gehienekoa baino portzentajezko 10 puntu txikiagoa). 2009. urtetik aurrera, gorabeherekin bada ere, % 31tik % 36rako tartean iraun zuen. 2019an, berriz, gora egin zuen (%46,8), eta 2021ean behera (% 25,0). Azken ehuneko hori serieko bigarren baliorik txikiena izan da.

Etxebizitzaren finantzaketan parte hartuko duten pertsonen kopuruari dagokionez kolektiboetan dauden egoera desberdinak aztertzean, kolektibo horiek oso portaera desberdina dutela egiaztatzen daiteke.

44 urtetik gorako kolektiboan, etxebizitza eskuratzeko beharra duen pertsonak finantzatzeko du etxebizitza kasuen % 74,0tan, eta bikotekidearekin, kasuen % 15,7tan.

35. taula: Etorkizuneko etxebizitzaren (erosita zein alokatuta) finantzaketan parte hartuko duten pertsonen kopurua (diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonak). 2021
(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Etorkizuneko etxebizitza finantzatzeko duten pertsonak (*)	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
Etxebizitza eskuratzeko beharra duen pertsona	% 57,0	% 74,0	% 31,4
Bikoteko pertsona bat	% 15,0	% 2,3	% 4,9
Bikoteko bi pertsonak	% 25,0	% 15,7	% 61,8
Beste egoera bat	% 2,9	% 8,0	% 1,9
Guztira	% 100	% 100	% 100

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Inguruabar horiek berak nabarmentzen dira, halaber, beharra duten 18-44 urtekoen taldean: kasuen % 57,0tan, beharra adierazi duen pertsonak finantzatzeko luke etxebizitza, eta kasuen % 25,0tan, berriz, bikoteko bi pertsonak.

Beste egoera-motaren baten ondorioz independizatu nahi duten pertsonen taldean, bikoteko bi pertsonen % 61,8k finantzatzeko du etxebizitza. Kasuen % 31,4tan, berriz, beharra duen pertsonak finantzatzeko du.

2.3.2. Hilean ordaintzeko ahalmena

18-44 urteko pertsonak behar duten etxebizitza eskuratzeko **hilean ordaintzeko duten ahalmena** hileko 448,0 euro da. Balio hori txiki samarra da 2019koarekin alderatuta (506,6 euro urte horretan), eta, nolanahi ere, serieko hirugarren daturik txikiena da.

36. taula: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonak hilean ordaintzeko duten ahalmena. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Hilean ordaintzeko ahalmena	2009	2010	2011	2013	2015*	2017	2019	2021		
								Guztira	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak
240 eurora bitarte	% 11,1	% 14,8	% 4,8	% 12,7	% 8,3	% 6,7	% 1,6	% 9,2	% 4,6	% 11,0
241-300 euro	% 16,8	% 16,1	% 24,0	% 27,7	% 15,8	% 13,9	% 11,5	% 18,5	% 5,5	% 23,6
301-450 euro	% 21,0	% 20,8	% 31,5	% 29,2	% 17,7	% 29,8	% 25,7	% 20,6	% 18,2	% 21,5
451-600 euro	% 24,7	% 24,4	% 18,8	% 18,9	% 35,7	% 31,2	% 28,4	% 29,5	% 41,8	% 24,7
601-750 euro	% 9,9	% 9,0	% 10,8	% 4,2	% 2,9	% 7,6	% 9,1	% 6,0	% 6,6	% 5,7
750 euro baino gehiago	% 11,5	% 7,4	% 4,8	% 2,8	% 4,9	% 4,0	% 10,4	% 5,2	% 8,7	% 3,8
ED/EE	% 5,0	% 7,5	% 5,3	% 4,6	% 14,7	% 6,8	% 13,2	% 11,1	% 14,6	% 9,7
Batezbestekoa (euroak hilean)	470,3	435,4	434,6	385,2	484,0	457,0	506,6	448,0	526,7	418,8

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

(*) % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021. urtean, ordaintzeko ahalmen hori 108 euro handiagoa izan da diru-sarrera nahikoak dituztela adierazi dutenen kasuan diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituztela adierazi dutenen kasuan baino (526,7 euro eta 418,8 euro, hurrenez hurren).

2021. urtean, talde horretako pertsonen erdiak honela banatu dira: 451-600 euro ordaintzeko ahalmena dutela adierazi dutenak (% 29,5) eta 301-450 euro ordaintzeko ahalmena dutela adierazi dutenak (% 20,6).

18-44 urteko pertsonak hilean ordaintzeko duten batez besteko ahalmena (448,0 €) 44 urtetik gorako pertsonena baino bost euro handiagoa da (443,0 €), eta beste egoera-mota baten ondorioz etxebizitza eskuratu behar duten pertsonena baino ia 100 euro txikiagoa (538,9 €).

Hiru taldeetan, hilean 451-600 euro ordaintzeko ahalmena dutenen tartea da pertsona gehien biltzen dituen (% 29,5 18-44 urtekoen taldean, % 34,6 44 urtetik gorako taldean eta % 26,8 beste egoera batean dauden taldean). Arestian adierazi dugunez, talde horietako lehenengoan, hilean 301-450 euro ordaintzeko ahalmena dutenen tartea sailkatu da bigarren (% 20,6). Bestalde, 44 urtetik gorako taldean, ehuneko handi samarra izan du hilean 241-300 euro ordaintzeko ahalmena dutenen tartea (% 16,9); eta, beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza behar dutenen taldean, berriz, hilean 601-750 euro ordaintzeko ahalmena dutenen taldea nabarmendu da (% 16,8).

37. taula: Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen hilean ordaintzeko duten ahalmena. 2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)


Hilean ordaintzeko ahalmena	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
240 eurora bitarte	% 9,2	% 8,3	% 9,4
241-300 euro	% 18,5	% 16,9	% 15,1
301-450 euro	% 20,6	% 13,8	% 10,8
451-600 euro	% 29,5	% 34,6	% 26,8
601-750 euro	% 6,0	% 2,4	% 16,8
750 euro baino gehiago	% 5,2	% 2,9	% 11,7
Ez daki / Ez du erantzun	% 11,1	% 21,1	% 9,4
Batezbestekoa (euroak hilean)	448,0	443,0	538,9

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Finantza-ahalegina hilean ordaintzeko batez besteko ahalmenaren eta hileko batez besteko diru-sarrera garbien arteko ratiotzat hartuta, 2021. urtean adierazle hori % 35,6ra iritsi da 18-44 urteko pertsonen taldean. Hortaz, baliorik txikiena izan da 2013ko edizioaz geroztik (% 28,2 urte horretan), eta portzentajeazko 4 puntutik gorako beherakada izan du aurreko edizioarekin alderatuta (% 39,6 2019an).

25. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen finantza-ahaleginaren bilakaera. 1997-2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2.3.3. Ordaindu daitekeen gehieneko prezioa

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta jabetza-erregimenean eskuratzeko aukera proposatzen duten 18-44 urteko pertsonen kasuan, ordaindu dezaketen batez besteko gehieneko prezioa⁵ 151.912 eurora iritsi da 2021ean. 2019an lortutako azken hamarkadako zifrarik handiena (166.895 €) baino ia 15.000 euro gutxiago dira.

38. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen ordaindu dezaketen gehieneko prezioa. 2009-2021

Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea

Ordain daitekeen gehieneko prezioa (*)	2009	2010	2011	2013	2015*	2017	2019	2021		
								Gutxira	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak
96.000 euro baino gutxiago	% 14,5	% 17,4	% 11,7	% 15,2	% 25,9	% 7,1	% 9,7	% 19,3	% 9,5	% 23,4
96.001-120.000 euro	% 9,4	% 9,4	% 14,9	% 17,6	% 13,9	% 10,0	% 14,3	% 15,6	% 8,8	% 18,4
120.001-150.000 euro	% 16,3	% 15,1	% 17,3	% 26,1	% 11,6	% 19,7	% 12,9	% 15,9	% 21,3	% 13,7
150.001-180.000 euro	% 16,7	% 17,0	% 18,7	% 9,8	% 13,6	% 9,3	% 11,5	% 11,2	% 14,8	% 9,6
180.001-240.000 euro	% 13,1	% 12,3	% 11,1	% 8,1	% 6,5	% 9,6	% 14,6	% 10,1	% 10,2	% 10,0
240.001-300.000 euro	% 3,8	% 6,6	% 2,8	% 2,3	% 3,0	% 4,0	% 8,2	% 9,3	% 15,2	% 6,8
300.000 euro baino gehiago	% 3,2	% 4,3	% 0,5	% 0,8	% 3,2	% 1,7	% 3,0	% 2,6	% 3,2	% 2,4
ED/EE	% 23,0	% 18,0	% 23,0	% 20,1	% 22,2	% 38,5	% 25,8	% 16,1	% 16,9	% 15,7
Batezbestekoa (euroak)	152.886	154.420	145.833	135.060	135.593	156.997	166.895	151.912	176.784	141.593

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

** % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Beharra duten pertsonen % 62,0k adierazi du 180.000 euroko prezioa ordaindu dezaketela gehienez. 2019an, berriz, erdiak baino gutxiago ziren (% 48,4). 2021ean, aztertutako kolektiboko pertsonen % 19,3k adierazi du 96.000 euro ordaindu ditzakeela gehienez behar duten etxebizitza erosteko.

44 urtetik gorako pertsonen adierazi dute 147.373 euro ordaindu ditzaketela gehienez; hau da, 18-44 urteko pertsonen ordaindu dezaketen prezioa baino ia % 3 gutxiago (4.539 euro gutxiago).

⁵ 2009. urtetik aurrera, etxebizitza jabetza-erregimenean eskuratzeko aukera planteatzen duten pertsonen adierazitako prezioa baino ez da kontuan hartu. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea.**

39. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ordaindu dezaketen gehieneko prezioa. 2021

Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea

Ordaindu daitekeen gehieneko prezioa (*)	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
96.000 euro baino gutxiago	% 19,3	% 28,0	% 14,7
96.001-120.000 euro	% 15,6	% 13,4	% 12,7
120.001-150.000 euro	% 15,9	% 1,7	% 19,1
150.001-180.000 euro	% 11,2	% 8,4	% 10,4
180.001-240.000 euro	% 10,1	% 3,3	% 9,5
240.001-300.000 euro	% 9,3	% 11,7	% 8,3
300.000 euro baino gehiago	% 2,6	% 3,4	% 20,2
Ez daki / Ez du erantzun	% 16,1	% 30,1	% 5,2
Batezbestekoa (euroak)	151.912	147.373	199.399

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Hala ere, etxebizitza beste egoera baten ondorioz eskuratzeko beharra duten pertsonen taldean, batez besteko prezioa 200.000 euro inguru izan da; alegia, 18-44 urteko pertsonen taldean baino % 31 handiagoa (151.912 euro talde horretan), 300.000 eurotik gorako gehieneko prezioa ordaindu dezaketela adierazi duten pertsonen ehuneko handiaren ondorioz (% 20,2).

2.3.4. Finantzaketa-formulak

2021ean, etxebizitza nagusiaren erosketa (edo alokairua, erosteko aukerarekin) finantzatzeko formulen artean, kreditua izan da orokorrena, berriz ere (% 74,7). Bigarren tokian, norberaren aurrezkien erabilera kokatu da (% 62,6). Hirugarren tokian, datu txikiagoarekin, familiaren laguntza kokatu da (% 34,1).

Etxebizitza eskuratzeko prest dauden 18-44 urteko pertsonen erdiek estaldura handiko kreditua eskatzea aurreikusi dute (etxebizitzaren prezioaren % 75etik gorakoa). Beste % 15,5ek etxebizitzaren prezioaren % 50-74ra iritsiko den kreditu bat eskatuko du. Etxebizitza ordaintzeko krediturik eskatuko ez duten pertsonak % 10 baino ez dira.

40. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen aurreikusitako finantzaketa-formulak. 2009-2021

	2009	2010	2011	2013	2015*	2017	2019	2021
Finantzaketa-iturriak (**)								
Kredituak	% 97,9	% 90,8	% 93,0	% 80,4	% 82,4	% 71,4	% 80,2	% 74,7
Norberaren aurrezkiak	% 77,9	% 45,1	% 58,4	% 42,7	% 57,6	% 61,2	% 65,9	% 62,6
Familiaren laguntza	% 56,8	% 46,6	% 59,8	% 28,5	% 11,8	% 25,8	% 47,4	% 34,1
Beste ondare baten salmenta	% 5,3	% 1,8	% 2,0	% 1,2	% 2,0	% 0,2	% 1,7	% 0,0
Laguntza publikoak	% 52,5	% 29,0	% 20,0	% 19,1	% 1,4	% 1,3	% 13,5	% 14,7
Beste baliabide batzuk	% 31,2	% 1,7	% 4,6	% 1,0	% 8,1	% 0,6	% 0,0	% 1,8
Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetza, alokairua erosteko aukerarekin, edo bata zein bestea								
% (kreditua / prezioa)								
% 0 (ez du krediturik eskatuko)	% 0,7	% 7,9	% 3,8	% 16,7	% 13,0	% 11,3	% 11,1	% 9,5
% 1-% 25	% 0,7	% 1,6	% 0,2	% 1,5	% 8,9	% 0,4	% 1,2	% 2,7
% 25-% 49	% 5,3	% 10,1	% 2,9	% 5,2	% 11,8	% 2,0	% 7,5	% 4,3
% 50-% 74	% 26,1	% 21,8	% 25,8	% 25,1	% 15,2	% 13,5	% 26,9	% 15,5
% 75-% 100	% 55,3	% 45,4	% 62,4	% 31,7	% 9,8	% 34,1	% 29,6	% 50,2
ED/EE	% 12,0	% 13,2	% 4,9	% 19,8	% 41,2	% 38,7	% 23,6	% 17,9

(**): Askotariko erantzunen %-a (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

41. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen aurreikusitako finantzaketa-formulak. 2021

Finantzaketa-iturriak (*)	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
Kredituak	% 74,7	% 66,5	% 59,7
Norberaren aurrezkiak	% 62,6	% 62,3	% 53,1
Familiaren laguntza	% 34,1	% 13,3	% 10,2
Beste ondare baten salmenta	% 0,0	% 1,8	% 9,5
Laguntza publikoak	% 14,7	% 19,7	% 16,8
Beste baliabide batzuk	% 1,8	% 4,5	% 6,2
Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetza, alokairua erosteko aukerarekin, edo bata zein bestea			
% (kreditua / prezioa)			
% 0 (ez du krediturik eskatuko)	% 9,5	% 16,1	% 22,6
% 1-% 25	% 2,7	% 0,0	% 3,1
% 25-% 49	% 4,3	% 6,8	% 13,4
% 50-% 74	% 15,5	% 16,8	% 14,0
% 75-% 100	% 50,2	% 48,7	% 37,3
ED/EE	% 17,9	% 11,6	% 9,7

(*): Askotariko erantzunen %-a (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

44 urtetik gorako pertsonen eta beste egoera baten ondorioz etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen kasuan ere, kredituak eskatzea da gehienek aukeratu duten formula etxebizitzaren erosketa finantzatzeko: % 66,5ek eta % 59,7k, hurrenez hurren. Zifra horiek urrun daude 18-44 urteko pertsonen zifratik (lautik ia hiruk aukeratu dute formula hori).

Norberaren aurrezkiak ere garrantzitsuak dira, bai 44 urtetik gorako pertsonen taldean (%62,3), bai beste egoera batzuetan dauden pertsonen taldean (% 53,1).

Familiaren laguntza garrantzitsua da etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonentzat (% 34,1); ez, ordea, gainerako bi taldeetako pertsonentzat (% 13,3 eta % 10,2, hurrenez hurren). Talde horietan, garrantzitsuagoa da laguntza publikoen formula: % 19,7 44 urtetik gorako taldean eta % 16,8 gainerako taldean.

44 urtetik gorako pertsonen % 65,5ek etxebizitzaren prezioaren % 50etik gorako kreditua eskatuko luke (eta % 48,7k prezioaren % 75etik gorakoak). Beste egoera batzuetan dauden pertsonen taldean, berriz, % 51,3k eskatuko luke kreditua. Talde horretan, krediturik eskatuko ez luketen pertsonen ehunekoa nabarmendu da (% 22,6). Krediturik eskatuko ez luketen pertsonen ehunekoa handia da, halaber, 44 urtetik gorako pertsonen kasuan (% 16,1).


2.4. Etxebizitza eskuratzeko beharra duen kolektiboaren ezaugarriak, genero-ikuspegitik

Atal honetan, genero-ikuspegi bat eskaini nahi da 2021ean diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eta EAEn lehen etxebizitza eskuratu nahi duten 18-44 urteko pertsonen ezaugarriak zehaztean.

Azpimarratu beharreko lehen adierazlea kolektibo horrek adierazitako beharrean sexu bakoitzak duen pisu orokorra da. Izan ere, 2021ean etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrera propioak dituzten pertsona guztien % 52,9 gizonak dira, eta % 47,1, berriz, emakumeak.

26. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonak, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Emakumeen ehunekoak gora egin du, eta 2017ko mailetara hurbildu da (% 47,5 urte horretan). Gainera, 2011ko eta 2013ko gehienekoetatik portzentajezko 2 puntu baino gutxiagora geratu da (% 48,1 eta % 48,6 urte horietan).

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gizonen eta emakumeen batez besteko adina antzekoa da (29,1 urte eta 28,9 urte, hurrenez hurren). Seriea kontuan hartuta, Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren azken 4 edizioetako baliorik txikiak dira.

Emakumeak nagusi dira bitarteko adin-tartean; hau da, 25-34 urtekoen tartean (% 58,1). Gizonak, berriz, gehiago dira muturreko tartetan, eta lau puntutan gainditzen dute, bi kasuetan, emakumeen ehunekoak.

Era berean, etxebizitza eskuratzeko beharra duten lau emakumetik batek 18-24 urte ditu (% 24,7k; daturik handiena da 2009. urteaz geroztik). Pertsonarik helduenen (35-44 urtekoen) ehunekoak txikiagoa da, bai emakumeen kasuan, bai (eta batez ere) gizonen kasuan (2019an baino ia 9 puntu gutxiago). Horrela, beraz, eten egin da azken urteotako goranzko joera.

42. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Ezaugarriak	2009		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Beharra duen pertsonaren adina														
18-24 urte	% 23,8	% 20,1	% 17,4	% 12,2	% 13,7	% 12,1	% 13,2	% 11,0	% 17,6	% 13,7	% 17,7	% 15,1	% 24,7	% 28,7
25-34 urte	% 71,8	% 71,1	% 70,2	% 73,4	% 70,6	% 75,7	% 71,6	% 65,7	% 62,9	% 62,5	% 62,8	% 54,5	% 58,1	% 49,4
35-44 urte	% 4,4	% 8,8	% 12,4	% 14,4	% 15,7	% 12,1	% 15,2	% 23,3	% 19,4	% 23,8	% 19,5	% 30,4	% 17,3	% 21,9
Batez besteko adina (urteak)	27,4	28,1	28,5	29,1	28,9	28,8	29,5	30,9	29,3	30,5	29,9	31,1	28,9	29,1
Ikasketa-maila														
Ikasketarik gabe/lehen mailakoak	% 12,1	% 20,3	% 15,0	% 20,7	% 7,9	% 14,7	% 4,1	% 16,8	% 3,8	% 17,9	% 4,5	% 18,2	% 10,9	% 13,2
Lanbide-ikasketak	% 27,6	% 34,3	% 21,6	% 30,1	% 24,8	% 39,8	% 25,3	% 42,5	% 27,7	% 41,3	% 25,0	% 33,8	% 27,5	% 47,1
Bigarren mailako ikasketak	% 10,5	% 12,1	% 7,7	% 13,0	% 9,0	% 12,1	% 8,1	% 8,8	% 13,3	% 10,5	% 13,2	% 15,6	% 7,9	% 9,4
Unibertsitate-ikasketak	% 49,9	% 33,3	% 55,6	% 36,2	% 58,2	% 33,4	% 62,5	% 31,9	% 55,3	% 30,2	% 57,3	% 32,4	% 53,7	% 30,3
Jarduerarekiko lotura														
Bere kontura lanean	% 7,4	% 15,9	% 6,5	% 9,3	% 6,0	% 15,7	% 8,5	% 16,9	% 6,3	% 12,2	% 8,2	% 13,0	% 5,6	% 6,8
Kontratu finkoarekin lanean	% 44,5	% 49,8	% 70,2	% 68,0	% 42,7	% 45,4	% 37,9	% 37,6	% 40,4	% 37,7	% 42,2	% 47,0	% 34,0	% 39,2
Aldi baterako kontratuarekin lanean	% 35,9	% 22,6	% 15,9	% 13,3	% 42,3	% 31,7	% 49,7	% 41,0	% 49,1	% 43,0	% 46,7	% 33,3	% 53,0	% 49,5
Langabeak	% 4,3	% 8,1	% 3,9	% 7,5	% 5,1	% 5,9	% 2,2	% 3,5	% 2,5	% 4,0	% 2,4	% 3,4	% 6,0	% 4,6
Beste bat (ikasleak...)	% 6,8	% 3,5	% 3,5	% 1,9	% 3,9	% 1,4	% 1,7	% 1,0	% 1,6	% 3,0	% 0,5	% 3,4	% 1,4	% 0,0

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko, mota bakoitzean).

Iturria: Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen prestakuntza-maila sexuaren arabera aztertuta ikus daitekeenez, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa nabarmen handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (% 53,7 eta % 30,3, hurrenez hurren).

Gizonen kasuan, lanbide-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa nabarmentzen da (gizonak % 47,1 dira, eta emakumeak % 27,5).


Unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak ia portzentajezko 4 puntuko beherakada izan du 2019tik 2021era (% 57,3 eta % 53,7, hurrenez hurren). Lanbide-ikasketak dituzten gizonak, berriz, % 33,8 ziren 2019an, eta % 47,1, 2021ean.

Sexuaren araberako alderik txikienak jarduerarekiko loturan agertzen dira. Emakume landunen pisu erlatiboa gizonena baino txikixeagoa da (% 92,5 eta % 95,4, hurrenez hurren). Emakume langabeen ehunekoa, berriz, gizonena baino handiagoa da (% 6,0 eta % 4,6, hurrenez hurren).

Lana duten pertsonen artean, aldi baterako kontratua dutenena da talderik handiena, emakumeen zein gizonen kasuan; nolahi ere, emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (% 53,0 eta % 49,5, hurrenez hurren). Kontratu finkoa dutenen artean, gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 39,2 eta % 34,0, hurrenez hurren). Eta gauza bera gertatzen da norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan: emakumeak % 5,6 dira, eta gizonak, berriz, % 6,8.

27. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsona landunak, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Norberaren kontura lan egiten duten emakumeen ehunekoa serieko mailarik txikienera iritsi da 2021ean (% 5,6). Izan ere, ia 3 puntuko beherakada izan du 2019ko datuarekin alderatuta (% 8,2 urte horretan). Era berean, 8 puntu inguruko beherakada izan du kontratu finkoa duten emakume landunen ehunekoak (% 42,2 2019an eta % 34,0 2021ean). Azkenik, 6 puntuko igoera izan du aldi baterako kontratua duten emakume landunen ehunekoak (% 46,7 2019an eta % 53,0 2021ean), eta serieko baliorik handienera iritsi da.

2021. urtean, norberaren kontura lan egiten duten gizonen ehunekoa serieko txikiena izan da (% 6,8), eta 6,2 puntuko beherakada izan du 2019. urtekoarekin alderatuta. Kontratu finkoa duten gizonen ehunekoa serieko bigarren baliorik txikiena izan da (%39,2), eta 7,8 puntuko beherakada izan du 2019. urtekoarekin alderatuta (% 47,0 urte horretan). Aitzitik, aldi baterako kontratua duten gizonen ehunekoa % 49,5era igo da, eta serieko baliorik handiena izan da (2019koa baino 16 puntu handiagoa).

Aldi baterako kontratua duten pertsonen ehunekoaren gorakada eta kontratu finkoa duten eta norberaren kontura diharduten pertsonen ehunekoaren beherakada gizonen taldean zein emakumeen taldean gertatu dira. Hala ere, aldi baterako kontratua duten emakumeak gizonak baino gehiago dira (% 53,3 eta % 49,5, hurrenez hurren). Lan finkoa duten emakumeak, berriz, gizonak baino gutxiago dira (%34,0 eta % 39,2, hurrenez hurren), eta gauza bera gertatzen da norberaren kontura lan egiten duten emakumeekin (% 5,6 eta % 6,8, hurrenez hurren).

Etxebizitza bat eskuratzearen ondoriozko finantza-betebeharrei aurre egiteko baldintzak eta inguruabarrak kontuan hartuta, aldeak ikusten dira emakumeen eta gizonen artean. Batez besteko diru-sarreraren mailari dagokionez, emakumeen diru-sarrerak gizonen diru-sarreraren azpitik jarraitu dute (1.204,7 € eta 1.310,9 €, hurrenez hurren) 2021eko edizioan.

43. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen finantza-ahalmena, sexuaren arabera. 2009-2021

Oinarria: Etxebizitza jabetzan edo erregimen batean zein bestean eskuratzea aurreikusitako dutela adierazi duten pertsonak

	2009		2011		2013		2015*		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batez besteko diru-sarrerak	1.468,4	1.395,6	1.512,7	1.612,9	1.291,9	1.426,2	1.395,6	1.272,1	1.164,7	1.229,4	1.232,0	1.213,8	1.204,7	1.310,9
Hilean ordaintzeko batez besteko ahalmena	442,7	491,7	401,4	465,4	368,0	400,9	436,7	510,5	450,6	462,7	510,8	503,3	436,5	458,5
Aurreikusitako finantza-ahalegina (diru-sarreraren %-a)	% 30,1	% 35,2	% 26,5	% 28,9	% 28,5	% 28,1	% 31,3	% 40,1	% 38,7	% 37,6	% 41,5	% 41,5	% 36,2	% 35,0
Ordain daitekeen batez besteko prezioa	145.939	158.436	144.714	146.754	129.235	139.851	119.968	143.116	152.922	161.964	165.657	167.904	139.894	163.102

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso. 2015etik aurrerako oinarria: aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetza, alokairua erosteko aukerarekin, edo bata zein bestea

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eskatzaile guztiak kontuan hartuta, jarraitu egin du batez besteko diru-sarrerak 2011. urteaz geroztik duten beheranzko joerak (1.512,7 € urte horretan). Hamar urte geroago, batez besteko diru-sarrerak 2019an baino 28 euro txikiagoak izan dira (1.232,0 €). 2019ko edizioan, nolanahi ere, igoera txiki bat izan zuten.

Gizonen taldean ere, batez besteko diru-sarrerak behera egin zuten 2011tik 2019ra. 2021ean, berriz, 2019an baino ia 100 euro handiagoak izan dira.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino txikiagoak dira, eta, horren ondorioz, emakumeen **ordaintzeko ahalmena** ere gizonena baino txikiagoa da (436,5 € eta 458,5 €, hurrenez hurren). Bi kasuetan, baliorik txikiak izan dira 2015eko edizioaz geroztik.

Era berean, emakumeen **finantza-ahalegina** gizonena baino handiagoa da (% 36,2 eta % 35,0, hurrenez hurren). Edonola ere, azken lau urteetako ehunekorik txikiak izan dira.

2021ean, lehen etxebizitza erosteko **ordaindu daitekeen prezioari** dagokionez, gizonen kasuan 163.102 eurokoa izan da; hau da, emakumeek adierazi dutena (139.894 euro) baino % 16,6 handiagoa (23.208 euro gehiago).

2021ean emakumeek ordaindu dezaketen gehieneko batez besteko prezio hori (139.894 euro) 2017an baino 13.000 euro inguru txikiagoa izan da (–% 8,5), eta 2019an (165.657 euro) baino 25.700 euro txikiagoa (–% 15,6).

Gizonen zein emakumeen kasuan, familiatik independizatzeko eta bere kontura bizitzeko asmoa da lehen etxebizitza eskuratzeko arrazoirik ohikoena. Horixe adierazi dute emakumeen % 78,5ek (serie osoko erregistrorik handiena) eta gizonen % 77,7k (bigarren ehunekorik handiena, 2009ko % 78,9aren atzetik).

44. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko duten behararen arrazoiak, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Arrazoiak (*)	2009		2011		2013		2015*		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ezkontzea, bikotekidearekin bizitzea	% 32,7	% 19,3	% 32,3	% 34,2	% 19,0	% 25,3	% 25,7	% 22,8	% 27,8	% 29,4	% 24,3	% 22,8	% 16,0	% 18,7
Familiatik independizatzeko eta bere kontura bizitzea	% 62,9	% 78,9	% 65,7	% 64,3	% 77,3	% 72,3	% 73,1	% 74,3	% 70,1	% 70,2	% 73,2	% 76,0	% 78,5	% 77,7
Beste arrazoi bat	% 4,5	% 1,8	% 1,9	% 1,5	% 3,8	% 2,4	% 1,2	% 2,9	% 2,1	% 0,4	% 2,5	% 1,2	% 5,6	% 3,6
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).


Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bikotekidearekin bizitzeko edo ezkontzeko nahiari dagokionez, 2021. urtean serieko pisu erlatiborik txikiak erregistratu dira, gizonen taldean zein emakumeen taldean (% 18,7 eta % 16,0, hurrenez hurren).

Bestalde, etxebizitza eskuratzeko beharra kalifikatzeko garaian, 2021eko emaitzek erakusten dute emakumeen behar-maila subjektiboa⁶ gizonena baino 10 puntu handiagoa izan dela (67,1 puntu eta 57,1 puntu, hurrenez hurren).

2019. urtearekin alderatuta, hautemandako behar-maila horiek ia 11 puntuko igoera izan dute emakumeen kasuan, eta puntu batekoa, gizonen kasuan.

28. grafikoa: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren maila subjektiboa, sexuaren arabera. 2009-2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Lehen etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran daramaten denbora kontuan hartuta, sexuaren arabera alde esanguratsuak daudela ikus daiteke. Behar-egoeran daramaten batez besteko urte-kopurua antzekoa bada ere (2,4 urte emakumeek eta 2,3 urte gizonak), emakumeek behar-egoeran daramaten denbora (% 54,5ek bi urte baino gutxiago) gizonak daramatena (%59,8k bi urte baino gutxiago) baino handiagoa dela nabarmentzen da.

45. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko behar-egoeran daramaten denbora, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Behar-egoeran daramaten denbora	2009		2010		2011		2013		2015*		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Urte 1 baino gutxiago	% 15,2	% 12,6	% 22,2	% 18,1	% 22,8	% 24,1	% 15,6	% 17,6	% 26,1	% 24,2	% 21,0	% 23,7	% 26,2	% 20,9	% 27,2	% 27,6
1-2 urte	% 26,8	% 25,5	% 33,8	% 35,0	% 34,8	% 23,4	% 39,0	% 29,6	% 39,5	% 34,5	% 37,6	% 36,2	% 41,9	% 45,2	% 27,3	% 32,2
2-4 urte	% 30,7	% 27,7	% 18,3	% 18,8	% 9,4	% 13,2	% 22,2	% 29,7	% 16,4	% 16,5	% 19,6	% 20,2	% 20,7	% 18,2	% 23,6	% 19,6
4 urte baino gehiago	% 27,3	% 34,2	% 25,7	% 28,1	% 33,0	% 39,3	% 23,3	% 23,1	% 18,0	% 24,7	% 21,8	% 19,9	% 11,2	% 15,6	% 21,9	% 20,6
Batez besteko urte kopurua	2,6	2,7	2,3	2,4	2,4	2,6	2,3	2,4	2,3	2,4	2,2	2,2	2,0	2,1	2,4	2,3

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Urte bat edo biko itxaronaldiaren kasuan, gizonak emakumeak baino gehiago dira (% 32,2 eta % 27,3, hurrenez hurren). 2-4 urteko itxaronaldiaren kasuan, berriz, emakumeen ehunekoak gizonena baino portzentajezko 4 puntu handiagoa da (% 23,6 eta % 19,6, hurrenez hurren).

⁶ Batez besteko behar-maila subjektiboa 0tik 100erako eskala batean zehazten da. Elkarriketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuei dagozkien erantzunen batezbestekoa islatzen du, honako eskala honi jarraikiz: handia: 100; handi samarra: 66; txiki samarra: 33; eta txikia: 0.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari erantzuteko aurreikusitako denbora luzeagoa da emakumeen kasuan. Izan ere, emakumeen % 40,8k eta gizonen % 39,6k uste dute lehen etxebizitza 2 urteko epean eskuratzeko aukera oso handia edo handi samarra dutela.

Aurreikuspena 4 urtera eginez gero, emakumeen ehunekoa % 46,1 da, eta gizonena, berriz, % 39,1. Bereziki deigarria da lehen etxebizitza hurrengo 4 urteetan eskuratzeko aukera oso handia dutela dioten ehuneko txikia (ia nulua).

Bi urteko epean, 2021ean etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen erdiek baino gehiagok uste dute aukera txiki samarra dutela edo aukerarik ez dutela lehen etxebizitza eskuratzeko: emakumeen % 59,2k eta gizonen % 60,4k.

Ehuneko horiek kontuan hartuta, 2019. urtearekin alderatuta portzentajezko 2 puntu inguruko igoera izan da emakumeen kasuan, eta 2 puntutik gorako beherakada, gizonen kasuan (% 57,6 eta % 62,9, hurrenez hurren).

46. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten beharrari 2-4 urtean erantzuteko aukera, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

	2009		2010		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2 urteko epean eskuratzeko aukera																
Oso handia	% 13,4	% 11,2	% 14,3	% 14,5	% 10,1	% 11,6	% 13,5	% 15,8	% 7,2	% 16,3	% 10,8	% 14,7	% 6,7	% 8,5	% 13,0	% 7,5
Handi samarra	% 28,7	% 23,8	% 25,0	% 20,0	% 23,9	% 21,4	% 21,6	% 20,2	% 38,2	% 29,5	% 37,8	% 35,3	% 35,7	% 28,5	% 27,8	% 32,1
Txiki samarra	% 50,9	% 57,5	% 42,2	% 50,5	% 58,7	% 54,0	% 43,8	% 46,0	% 36,7	% 43,4	% 41,2	% 44,2	% 46,0	% 55,1	% 49,5	% 50,0
Aukerarik ez	% 6,9	% 7,4	% 18,5	% 15,0	% 7,3	% 13,0	% 21,1	% 18,0	% 17,9	% 10,8	% 10,2	% 5,8	% 11,6	% 7,8	% 9,7	% 10,4
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
4 urteko epean eskuratzeko aukera																
Oso handia	% 13,9	% 11,8	% 14,3	% 16,0	% 34,5	% 33,8	% 37,9	% 36,9	% 46,0	% 46,4	% 51,0	% 51,6	% 45,0	% 38,5	% 0,0	% 1,1
Handi samarra	% 42,0	% 36,4	% 55,1	% 44,9	% 26,5	% 24,0	% 21,4	% 18,4	% 19,7	% 19,3	% 23,8	% 25,9	% 18,5	% 20,0	% 46,1	% 38,0
Txiki samarra	% 38,9	% 45,3	% 23,4	% 33,0	% 36,2	% 32,9	% 30,4	% 32,2	% 26,5	% 27,2	% 18,4	% 19,4	% 30,7	% 37,4	% 51,8	% 52,5
Aukerarik ez	% 5,1	% 6,6	% 7,2	% 6,1	% 2,8	% 9,2	% 10,2	% 12,5	% 7,8	% 7,1	% 6,8	% 3,0	% 5,8	% 4,0	% 2,1	% 8,4
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskuari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

4 urteko epeari dagokionez, 2021eko edizioan etxebizitzaren beharra duten emakumeen % 53,9k eta gizonen % 60,9k uste dute aukera txiki samarra dutela edo aukerarik ez dutela lehen etxebizitza epe horretan eskuratzeko. Dirudienek, ezkortasun handia dago epe luzera begira. Izan ere, ehuneko horiek igoera handiak izan dituzte 2019. urtearekin alderatuta (emakumeen % 36,5 eta gizonen % 41,4) eta 2017. urtearekin alderatuta (emakumeen % 25,2 eta gizonen % 22,4).

Etxebizitzaren izaerari dagokionez, oro har ikusi dugunez, eskatzaile gehienek ez dituzte etxebizitza berriak edo erabiliak berariaz eskatzen.

47. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzaren izaera, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Etxebizitzaren izaera	2009		2010		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Berria	% 16,1	% 21,4	% 26,7	% 17,3	% 25,5	% 23,3	% 17,1	% 19,9	% 8,1	% 22,6	% 9,7	% 11,8	% 12,3	% 12,2	% 14,8	% 9,4
Erabilia	% 7,9	% 4,7	% 6,7	% 10,2	% 1,8	% 2,7	% 9,9	% 9,2	% 6,5	% 11,4	% 10,7	% 11,0	% 11,9	% 11,6	% 7,9	% 7,6
Bata zein bestea	% 73,2	% 71,4	% 66,6	% 69,8	% 72,0	% 72,9	% 71,5	% 67,5	% 70,7	% 54,9	% 79,6	% 77,2	% 75,1	% 73,4	% 71,9	% 79,2
ED/EE	% 2,7	% 2,4	% 0,0	% 2,7	% 0,7	% 1,2	% 1,5	% 3,3	% 14,6	% 11,0	% 0,0	% 0,0	% 0,7	% 2,9	% 5,4	% 3,8
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Emakumek baino gizon gehiagok pentsatzen dute horrela (% 79,2k eta 71,9k, hurrenez hurren). Emakumeen % 14,8k eta gizonen % 9,4k etxebizitza berria eskatu dute. Erabilitako etxebizitza, berriz, emakumeen % 7,9k eta gizonen % 7,6k eskatu dute.

Behar den etxebizitzaren batez besteko tamaina antzekoa da emakumeen taldean eta gizonen taldean (67,3 m² eta 68,8 m², hurrenez hurren). Alderik handiena (6,3 puntukoa) 60 m²-ra bitarteko etxebizitza eskatu dutenen taldean agertu da: emakumeen % 46,3k eta gizonen % 40,0k eskatu dute. Gainerako taldeetan, gizonen ehunekoak emakumeenak baino handiagoak dira. Alderik handiena 76 eta 90 m² bitarteko etxebizitza eskatu dutenen taldean dago, eta portzentajezko 4 puntura iritsi da (gizonen % 23,5ek eta emakumeen % 19,4k eskatu dute).

48. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitzaren azalera erabilgarria, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Azalera erabilgarria	2009		2010		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
60 m ² -ra bitarte	% 15,7	% 9,5	% 9,5	% 28,2	% 19,5	% 20,5	% 30,8	% 26,1	% 5,9	% 27,9	% 37,8	% 37,0	% 47,4	% 48,0	% 46,3	% 40,0
61-75 m ²	% 43,9	% 42,9	% 42,9	% 34,1	% 37,1	% 34,2	% 31,3	% 29,0	% 37,5	% 21,6	% 26,4	% 26,4	% 18,5	% 21,8	% 29,1	% 29,3
76-90 m ²	% 28,4	% 30,9	% 30,9	% 25,4	% 36,2	% 43,1	% 26,8	% 26,0	% 36,2	% 28,0	% 26,0	% 25,7	% 22,5	% 20,1	% 19,4	% 23,5
90 m ² baino gehiago	% 7,1	% 7,9	% 7,9	% 1,9	% 4,0	% 0,8	% 3,9	% 11,1	% 1,9	% 10,4	% 1,4	% 5,8	% 5,8	% 2,8	% 3,9	% 4,6
ED/EE	% 4,9	% 8,8	% 8,8	% 10,5	% 3,3	% 1,4	% 7,2	% 7,8	% 18,5	% 12,2	% 8,3	% 5,1	% 5,8	% 7,2	% 1,3	% 2,6
Batez besteko azalera (m²)	72,4	74,6	74,6	67,0	71,4	71,0	67,6	71,5	76,0	75,6	69,3	71,3	63,9	62,1	67,3	68,8

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021eko edizioan, alokairua izan da aukera nagusia emakumeen artean (% 45,3). Jabetza-erregimena ia neurri berean eskatu dute bi sexuek (emakumeen % 39,4k eta gizonen % 39,6k).

Alokairua nahiago dutela adierazi dutenen artean, erosteko aukerarik gabeko alternatibaren aldeko gizonak emakumeak baino gehiago izan dira (% 26,7 eta % 24,9, hurrenez hurren). Bestalde, erosketa zein alokairua eskatu dutenen artean, gizonak emakumeak baino gehiago izan dira (% 20,6 eta % 15,3, hurrenez hurren).

49. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonek behar dituzten etxebizitzaren ukaite-erregimena, sexuaren arabera. 2009-2021

(Beharra duten eta diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoak)

Ukaite-erregimena	2009		2010		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Jabetza	% 57,5	% 61,1	% 56,8	% 47,5	% 50,3	% 53,5	% 28,4	% 44,7	% 24,9	% 27,9	% 38,9	% 33,8	% 43,8	% 37,9	% 39,4	% 39,6
Alokairua	% 17,8	% 15,3	% 19,7	% 26,0	% 18,8	% 16,8	% 39,9	% 37,5	% 55,9	% 49,4	% 43,2	% 54,1	% 42,2	% 48,1	% 45,3	% 39,8
. Erosteke aukerarik gabe	-	-	-	-	-	-	-	-	% 29,2	% 28,5	% 19,2	% 29,1	% 29,2	% 32,8	% 24,9	% 26,7
. Erosteke aukerarekin	-	-	-	-	-	-	-	-	% 26,7	% 20,9	% 24,0	% 25,0	% 13,0	% 15,3	% 20,4	% 13,1
Bata zein bestea	% 24,7	% 23,6	% 23,5	% 26,5	% 30,9	% 29,6	% 31,7	% 17,9	% 19,2	% 22,7	% 17,9	% 12,2	% 14,0	% 14,0	% 15,3	% 20,6
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(**): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Jabetzaren aukerara modu zabalagoan hurbilduta, eta lehentasunezko aukera edo bata zein besteara (alokairua zein jabetza) ez ezik erosteko aukera ematen duen alokairua ere kontuan hartuta, emakumeen ehunekoa handiagoa da. Izan ere, emakumeen % 75,1ek eta gizonen % 73,3k pentsatu dute aukera horietakoren batean.

2.5. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten kolektiboen ezaugarriak, diru-sarrerak dituzten ala ez kontuan hartuta

2021. urtean, emantzipatu gabeko 18-44 urteko 99.115 pertsonak dute lehen etxebizitza eskuratzeko beharra. Haietatik, % 65,4k (64.859 pertsonak) diru-sarrera edo errenta propioak ditu. Hala ere, 18.249 pertsonak (kolektibo osoaren % 18,4k) soilik uste dute emantzipatzeko behar horri aurre egiteko diru-sarrera nahikoak dituztela; % 47,0k (46.610 pertsonak), berriz, behar horri behar bezala aurre egiteko dituzten diru-sarrerak ezegonkorrak eta/edo gutxiegi direla uste dute. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen kolektibo horren barruan, 34.256 pertsonak (kolektibo horretako pertsonen % 34,6k) adierazi dute ez dutela errenta edo diru-sarrera propiorik.

2015eko edizioaz geroztik, elkarriketaren unean diru-sarrerarik ez duten pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko informazioa sartzen da, pertsona horiek etorkizunean diru-sarrerak izanez gero egongo litzatekeen eskari hipotetikoa ezagutzeko.

Arestian adierazi dugunez, kolektibo horrez gain, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten beste bi daude: 44 urtetik gorako pertsonak eta beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratu nahi duten pertsonak.

Emantzipatu gabe dauden eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorakoen taldean, 10.765 pertsona daude. Haietatik, % 85,8k (9.208 pertsonak) diru-sarrera edo errenta propioak ditu, eta % 14,4k (1.557 pertsonak), berriz, ez du diru-sarrerarik edo errentarik.

Diru-sarrerak dituzten pertsonen artean, 2.632k (kolektiboko pertsona guztien % 24,4k) uste dute diru-sarrera horiek nahikoak direla, eta 6.576 pertsonak (% 61,1ek), berriz, gutxiegi eta/edo ezegonkorrak direla.

Aztertutako hirugarren kolektiboari dagokionez, 20.205 pertsonak adierazi dute beste arrazoi baten ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutela. Haien artean, 4.503 pertsonak (% 22,3k) diru-sarrera nahikoak dituzte, 8.107 pertsonak (% 40,1ek) diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzte, eta 7.595ek (% 37,6k), berriz, ez dute diru-sarrerarik.

50. taula: Pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren kuantifikazioa, dituzten diru-sarrera edo errenta propioak kontuan hartuta, lurralde historikoaren eta eskuratzeko moduaren arabera. EAE. 2021

(Beharra duten pertsonen balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)

	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak		Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak		Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak	
	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a	Kop.	E %-a
Guztira	130.085	% 100	99.115	% 100	10.765	% 100	20.205	% 100
Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 66,6	64.859	% 65,4	9.208	% 85,5	12.610	% 62,4
. Nahikoak	25.384	% 19,5	18.249	% 18,4	2.632	% 24,4	4.503	% 22,3
. Gutxiegi/ezegonkorak	61.293	% 47,1	46.610	% 47,0	6.576	% 61,1	8.107	% 40,1
Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 33,4	34.256	% 34,6	1.557	% 14,5	7.595	% 37,6

		Lurralde historikoa			Eskuratzeko modua		EAE
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bakarrik	Bikotekidearekin	
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	18.594	44.580	66.910	72.974	57.111	130.084
	Diru-sarrerak dituztenak	13.245	29.400	44.030	46.101	40.575	86.675
	. Nahikoak	3.327	7.496	14.560	12.226	13.158	25.383
	. Gutxiegi/ezegonkorak	9.918	21.904	29.470	33.875	27.417	61.292
	Diru-sarrerarik ez dutenak	5.349	15.180	22.880	26.873	16.536	43.409
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	14.280	34.167	50.668	57.806	41.309	99.115
	Diru-sarrerak dituztenak	9.836	22.771	32.252	35.941	28.918	64.859
	. Nahikoak	2.349	5.772	10.128	9.957	8.292	18.249
	. Gutxiegi/ezegonkorak	7.487	16.999	22.124	25.984	20.626	46.610
	Diru-sarrerarik ez dutenak	4.444	11.396	18.416	21.865	12.391	34.256
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		987	3.672	6.106	7.516	3.249	10.765
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		3.327	6.741	10.137	7.652	12.553	20.205
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak (% bertikalak)	Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
	Diru-sarrerak dituztenak	% 71,2	% 65,9	% 65,8	% 63,2	% 71,0	% 66,6
	. Nahikoak	% 17,9	% 16,8	% 21,8	% 16,8	% 23,0	% 19,5
	. Gutxiegi/ezegonkorak	% 53,3	% 49,1	% 44,0	% 46,4	% 48,0	% 47,1
	Diru-sarrerarik ez dutenak	% 28,8	% 34,1	% 34,2	% 36,8	% 29,0	% 33,4
Etxebizitza eskuratzeko beharra (% bertikalak). 18-44 urteko pertsonak	Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
	Diru-sarrerak dituztenak	% 68,9	% 66,6	% 63,7	% 62,2	% 70,0	% 65,4
	. Nahikoak	% 16,4	% 16,9	% 20,0	% 17,2	% 20,1	% 18,4
	. Gutxiegi/ezegonkorak	% 52,4	% 49,8	% 43,7	% 45,0	% 49,9	% 47,0
	Diru-sarrerarik ez dutenak	% 31,1	% 33,4	% 36,3	% 37,8	% 30,0	% 34,6

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Lurralde-ikuspegitik, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektibo orokorrari dagokionez, Araba da diru-sarrerak dituzten pertsonen proportziorik handiena duen lurraldea (% 71,2), eta portzentajezko 5 puntutik gorako aldea dago Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin (% 65,9 eta % 65,8, hurrenez hurren). Bizkaian, diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen ehunekoa beste bi lurraldeetan baino handiagoa da: % 21,8 Bizkaian, % 17,9 Araban eta % 16,8 Gipuzkoan.

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektibo espezifikoaren barruan, Bizkaiak du diru-sarrerarik ez duten pertsonen proportziorik handiena (% 36,3). Proportzio hori Gipuzkoakoa baino portzentajezko 3 puntu inguru handiagoa da, eta Arabakoa baino portzentajezko 5 puntu inguru handiagoa (% 33,4 eta % 31,1, hurrenez hurren). Beharra duten pertsonen kolektibo horretan, halaber, Bizkaia da diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen ehunezko handiena duen lurraldea (% 20,0). Bestalde, Arabak du etxebizitzaren beharra duten eta diru-sarrerak dituzten pertsonen proportziorik handiena (% 68,9). Nolanahi ere, adierazi beharra dago, Araban, kolektibo horretako pertsonen erdiek baino gehiagok (% 52,4k) diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorrak dituztela adierazi dutela.

Eskuratzeko moduari dagokionez, zenbait alde ikus daitezke aztertutako kolektiboen artean. EAEn beharra duten pertsonen kolektibo orokorra kontuan hartuta, bikotekidearekin emantzipatuko lirakekeen pertsonen % 71,0k ditu diru-sarrerak. Bakarrik emantzipatuko lirakekeen pertsonen kasuan, ehuneko hori ia 8 puntu txikiagoa da (% 62,2). Diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen ehunekoa ere handiagoa da bikotekidearekin eskuratu nahi duten pertsonen kasuan bakarrik eskuratu nahi dutenen kasuan baino (% 23,0 eta % 16,8, hurrenez hurren).

Emantzipatu gabe dauden, diru-sarrera nahikoak dituzten eta etxebizitza bakarrik eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonak % 17,2 dira, eta etxebizitza bikotekidearekin eskuratzeko beharra dutenak, berriz, % 20,1.

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen artean (10.765 pertsona), % 69,8k (7.516 pertsonak) bakarrik emantzipatu nahiago du, eta beste egoera batzuen ondorioz independizatzeko beharra duten pertsonen artean (20.205 pertsona), berriz, % 62,1ek (12.553 pertsonak) bikotekidearekin emantzipatu nahiago du.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen **batez besteko adinari** dagokionez, diru-sarrerarik ez duten pertsonak gazteagoak direla ikus daiteke (28,7 urte). Diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorrak dituzten pertsonen batez besteko adina 33,5 urte da, eta diru-sarrera nahikoak dituztela uste dutenena, berriz, handixeagoa da (33,9 urte).

51. taula: Pertsonen batez besteko adina, haien diru-sarrera edo errenta propioak kontuan hartuta, lurralde historikoaren eta eskuratzeko moduaren arabera. EAE. 2021
(Beharra duten pertsonen batez besteko adina)

	Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak	Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak
Guztira	32,0	27,6	52,3	42,6
Diru-sarrerak dituztenak	33,6	29,0	52,0	43,8
Diru-sarrera nahikoak dituztenak	33,9	29,9	50,0	40,5
Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	33,5	28,7	52,8	45,6
Diru-sarrerarik ez dutenak	28,7	25,0	54,1	40,5

		EAE	Lurralde historikoa			Eskuratzeko modua	
			Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bakarrik	Bikotekidearekin
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	32,0	30,3	31,9	32,5	31,7	32,3
	Diru-sarrerak dituztenak	33,6	31,6	32,7	34,8	33,9	33,2
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	33,9	32,1	34,0	34,2	33,4	34,3
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	33,5	31,5	32,3	35,0	34,1	32,7
	Diru-sarrerarik ez dutenak	28,7	26,9	30,3	28,1	27,9	30,0
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	27,6	26,9	27,0	28,3	27,6	27,6
	Diru-sarrerak dituztenak	29,0	27,5	28,1	30,1	29,4	28,6
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	29,9	26,4	29,3	31,1	30,6	29,0
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	28,7	27,8	27,8	29,6	28,9	28,4
	Diru-sarrerarik ez dutenak	25,0	25,5	24,6	25,1	24,7	25,4
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		52,3	57,7	52,7	51,2	51,0	55,5
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		42,6	36,8	45,6	42,4	43,8	41,8

(*) Laginaren tamaina txikia, lagin-errore onargarria duten zenbatespenak eskaintzeko.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Orobat, batez besteko adina txikiagoa da emantzipatu gabe dauden eta diru-sarrerarik ez duten 18-44 urteko pertsonen kasuan (25,0 urte). Gainerako bi kolektiboetan, batez besteko adinik txikiena diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonena da: 50,0 urte 44 urtetik gorako kasuan, eta 40,5 urte (diru-sarrerarik ez duten pertsonak bezala) beste egoera batzuk dituztenen kolektiboaren kasuan.

Eskuratzeko moduari dagokionez, eskatzaile guztiak kontuan hartuta, batez besteko adinik handiena diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten eta etxebizitza bakarrik eskuratu nahi duten pertsonena da (34,1 urte). Gazteenak diru-sarrerarik ez duten eta bakarrik emantzipatu nahi duten pertsonak dira (27,9 urte).

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, zaharrenak dira diru-sarrera nahikoak dituztenak (30,6 urte), eta gazteenak, berriz, diru-sarrerarik ez dutenak (24,7 urte).

Lurralde historiko guztietan, beharra duten eta diru-sarrerarik ez duten pertsonen batez besteko adina txikiagoa da beharra duten pertsona guztien batez besteko adina baino. Batez besteko adinik handiena Gipuzkoakoa da (30,3 urte), eta, haren atzetik, Bizkaikoa (28,1 urte) eta Arabakoa (26,9 urte).

18-44 urteko pertsonen kolektiboan ere, beharra duten eta diru-sarrerarik ez duten pertsonak dira gazteenak, baina, kasu horretan, adinik handiena Arabakoa da (25,5 urte), eta, haren atzetik, Bizkaikoa (25,1 urte) eta Gipuzkoakoa (24,6 urte).

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen kolektiboa Bizkaian da nabarmena bereziki, lurralde horretakoa baita etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adinik txikiena (51,2 urte). Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adinik txikiena Arabakoa da (36,8 urte). Gainerako bi lurraldeetan, berriz, batez besteko adina 40 urtetik gorakoa da.

Etxebizitza bat eskuratzeko beharra duten pertsona guztien profila aztertuta, **adinaren arabera** **banaketan** alde batzuk daudela ikus daiteke.

Alde batetik, 35 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioa handiagoa da diru-sarreraren inguruko egoera hobe den heinean: beharra duten eta diru-sarrerarik ez duten pertsonen % 18,3, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen % 34,2, eta diru-sarrera nahikoak dituztenen % 38,3.

Bestetik, 25 urtetik beherako pertsonen ehunekoa nabarmen handiagoa da ahalmen ekonomikoa txikiagoa den heinean: diru-sarrerarik ez duten eta emantzipatzeko beharra duten pertsonen % 47,3, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen % 21,3, eta diru-sarrera nahikoak dituztenen % 19,4.

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, erlazio bera ikus daiteke adinaren arabera beharraren eta eskatzaileen egoera ekonomikoaren artean: 35-44 urteko pertsonen proportzioa handiagoa da diru-sarreraren inguruko egoera hobe den heinean, eta 25 urtetik beherako pertsonen ehunekoa, berriz, handiagoa da zailtasun ekonomikorik handieneko taldeetan. Beharra duten 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen eta diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen proportziorik handienak 25-34 urteko adin-taldeko pertsonenak dira: % 47,9 eta % 55,7, hurrenez hurren.

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako lau pertsonatik hiruk (% 76,1ek) 45-54 urte dituzte.

Beste egoera batzuen ondorioz emantzipatu nahi duten pertsonen kolektiboan, pertsonen proportziorik handiena 44 urtetik gorakoa da (% 40,5). Bestalde, 35 urtetik beherako pertsonak % 35,8 dira, eta 35-44 urteko pertsonak, berriz, % 23,7.

52. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen adinaren arabera banaketa, dituzten diru-sarrera edo errenta propioak kontuan hartuta, EAE. 2021

(Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak)		GUZTIRA		18-24 urte		25-34 urte		35-44 urte		45-54 urte		54 urte baino gehiago		Batez besteko adina (urteak)
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	38.506	% 29,6	52.978	% 40,7	19.651	% 15,1	11.448	% 8,8	7.502	% 5,8	32,0
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	17.970	% 20,7	38.035	% 43,9	15.583	% 18,0	9.996	% 11,5	5.090	% 5,9	33,6
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	25.384	% 100	4.916	% 19,4	10.750	% 42,3	5.864	% 23,1	2.763	% 10,9	1.090	% 4,3	33,9
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	61.293	% 100	13.054	% 21,3	27.285	% 44,5	9.719	% 15,9	7.233	% 11,8	4.000	% 6,5	33,5
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	20.535	% 47,3	14.943	% 34,4	4.067	% 9,4	1.451	% 3,3	2.412	% 5,6	28,7
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.113	% 100	37.134	% 37,5	47.114	% 47,5	14.867	% 15,0	-		-		27,6
	Diru-sarrerak dituztenak	64.857	% 100	17.377	% 26,8	34.685	% 53,5	12.797	% 19,7	-		-		29,0
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	18.249	% 100	4.916	% 26,9	8.738	% 47,9	4.595	% 25,2	-		-		29,9
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	46.608	% 100	12.461	% 26,7	25.947	% 55,7	8.202	% 17,6	-		-		28,7
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	19.757	% 57,7	12.429	% 36,3	2.070	% 6,0	-		-		25,0
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	-		-		-		8.193	% 76,1	2.572	% 23,9	52,3
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	1.372	% 6,8	5.864	% 29,0	4.785	% 23,7	3.255	% 16,1	4.930	% 24,4	42,6

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskuari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza eskuratzeko beharrari bi urtetik laura bitarteko epean **erantzuteko aukera** oso lotuta dago beharra duten pertsonen diru-sarreraren inguruan duten egoerarekin.

Behar horri hurrengo bi urteetan erantzuteko aukera oso handia edo handi samarra dutela uste duten pertsonen taldean, % 49,3k adierazi du diru-sarrera nahikoak dituztela, % 37,3k diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituela, eta % 29,3k diru-sarrera edo errenta propioarik ez duela.

Epea lau urtera luzatzen bada, aurreikuspenak askoz hobeak dira, baina diru-sarrera propioekiko erlazioa agerikoa da berriz ere. Diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 69,7ren ustez, aukera oso handia edo handi samarra dute lau urteko epe horretan emantzipatzeko (% 49,3ren ustez, oso aukera handia dute). Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen artean, ehuneko hori % 61,3 da (% 37,7ren ustez, oso aukera handia dute), eta diru-sarrerarik ez duten pertsonen artean, berriz, erdira jaitsi da (% 29,5en ustez, oso aukera handia dute).

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten beharrari dagokionez, diru-sarrerak dituzten eta bi urteko epean eskuratzeko aukera oso handia edo handi samarra dutela uste duten pertsonak % 47,2 dira. Lau urteko epean, berriz, etxebizitza eskuratzeko oso aukera handia dutela uste dutenek antzeko ehuneko bat dute (% 47,3), eta aukera handi samarra dutela uste dutenak ere kontuan hartuta, proportzioa % 70,0ra iristen da.

53. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari 2-4 urteko epean erantzuteko aukera, dituzten diru-sarrera edo errenta propioen arabera. 2021

(Beharra duten pertsona guztiekiko ehuneko horizontalak, mota bakoitzean)

		2 URTEKO EPEAN ESKURATZEKO AUKERA					4 URTEKO EPEAN ESKURATZEKO AUKERA				
		GUZTIRA	Oso handia	Handi samarra	Txiki samarra	Aukerarik ez	GUZTIRA	Oso handia	Handi samarra	Txiki samarra	Aukerarik ez
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	% 100	% 10,2	% 26,8	% 45,3	% 17,7	% 100	% 37,2	% 21,9	% 34,5	% 6,3
	Diru-sarrerak dituztenak	% 100	% 10,9	% 29,9	% 47,2	% 12,0	% 100	% 41,1	% 22,6	% 31,3	% 5,0
	. Nahikoak	% 100	% 14,9	% 34,4	% 40,4	% 10,3	% 100	% 49,3	% 20,4	% 26,7	% 3,6
	. Gutxiegi/ezegonkorak	% 100	% 9,3	% 28,1	% 50,0	% 12,7	% 100	% 37,7	% 23,5	% 33,2	% 5,6
	Diru-sarrerarik ez dutenak	% 100	% 8,7	% 20,6	% 41,5	% 29,2	% 100	% 29,5	% 20,5	% 41,0	% 9,0
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	% 100	% 9,3	% 27,5	% 47,4	% 15,9	% 100	% 37,1	% 23,8	% 34,8	% 4,4
	Diru-sarrerak dituztenak	% 100	% 10,1	% 30,1	% 49,7	% 10,0	% 100	% 40,6	% 25,0	% 31,2	% 3,3
	. Nahikoak	% 100	% 12,2	% 35,0	% 44,4	% 8,3	% 100	% 47,3	% 22,7	% 28,3	% 1,7
	. Gutxiegi/ezegonkorak	% 100	% 9,3	% 28,2	% 51,8	% 10,7	% 100	% 37,9	% 25,8	% 32,3	% 3,9
	Diru-sarrerarik ez dutenak	% 100	% 7,8	% 22,5	% 42,9	% 26,9	% 100	% 30,5	% 21,5	% 41,5	% 6,5
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		% 100	% 3,3	% 26,3	% 42,3	% 28,1	% 100	% 29,6	% 13,8	% 37,6	% 19,0
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		% 100	% 18,2	% 24,0	% 36,7	% 21,1	% 100	% 42,2	% 17,2	% 31,5	% 9,1

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen artean, % 29,6k uste du aukera oso handia edo handi samarra duela lehen etxebizitza bi urteko epean eskuratzeko (% 3,3k eta % 26,3k, hurrenez hurren). Lau urteko epean, ehuneko hori % 43,4 da.

Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen % 42,2k uste du bi urteko epean emantzipatzeko aukera oso handia edo handi samarra duela, eta % 59,4k, berriz, lau urteko epean.

Emantzipatzeko beharra duten pertsona guztiak kontuan hartuta, ez da **sexuaren** arabera alde handirik ikusten diru-sarreraren arabera, eta eskatzaile guztien banaketa-egitura bera dute aztertutako diru-sarreraren inguruko egoera guztietan.

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, azpimarra daiteke batezbestekoa baino ehuneko handiagoa dutela diru-sarrera nahikoak dituzten gizonen (% 56,3; hau da, kolektibo horretako gizonen ehuneko baino 2,3 puntu handiagoa) eta diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituzten emakumeek (% 48,4; hots, kolektibo horretako emakumeen ehuneko baino 2,4 portzentaje-puntu handiagoa).

Nolanahi ere, azpimarragarriena da emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen kolektiboko gizonen ehuneko handia (% 62,3).

54. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak (sexua), diru-sarrera edo errenta propioen arabera, EAE. 2021

(Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoa)

		GUZTIRA		Emakumeak		Gizonak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	58.932	% 45,3	71.151	% 54,7
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	39.696	% 45,8	46.979	% 54,2
	. Nahikoak	25.384	% 100	11.485	% 45,2	13.898	% 54,8
	. Gutxiegi/ezegonkorak	61.293	% 100	28.211	% 46,0	33.081	% 54,0
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	19.236	% 44,3	24.172	% 55,7
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.114	% 100	45.545	% 46,0	53.569	% 54,0
	Diru-sarrerak dituztenak	64.858	% 100	30.556	% 47,1	34.302	% 52,9
	. Nahikoak	18.248	% 100	7.983	% 43,7	10.265	% 56,3
	. Gutxiegi/ezegonkorak	46.610	% 100	22.573	% 48,4	24.037	% 51,6
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	14.989	% 43,8	19.267	% 56,2
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	4.055	% 37,7	6.710	% 62,3
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	9.333	% 46,2	10.872	% 53,8

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ikasketa-mailari dagokionez, beharra duten pertsona guztiak kontuan hartuta, unibertsitate-ikasketak eta lanbide-ikasketak dituzten pertsonak nabarmentzen dira (% 35,1 eta % 32,9, hurrenez hurren). Gainerako herenaren barruan, bigarren mailako ikasketak dituztenak % 13,6 dira, eta ikasketarik ez dutenak edo oinarrikoak dituztenak, berriz, % 18,4.

Diru-sarrerak eta haien kalitatea kontuan hartuta, diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen artean unibertsitate-ikasketak edo lanbide-ikasketak dituztenak nabarmentzen dira berriz ere (% 37,6 eta % 36,2, hurrenez hurren). Kalitate txarragoko diru-sarrerak dituzten pertsonen ehunekoa ere antzekoa izan dira (% 37,3 eta % 36,0, hurrenez hurren). Diru-sarrerarik ez duten eta emantzipatzeko beharra duten pertsonen taldean, batezbestekoaren gainetik daude bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak (% 23,1; alegia, batezbestekoa baino ia 10 puntu gehiago) eta ikasketa-mailarik txikieneko pertsonak (% 19,6; hau da, batezbestekoa baino puntu bat gehiago).

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa kolektibo osoaren batez besteko ehunekoa baino handixeagoa da (% 40,0 eta % 35,1, hurrenez hurren); gauza bera gertatzen da lanbide-ikasketak dituzten pertsonekin (% 34,2 eta % 32,9, hurrenez hurren). Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa beharra duten pertsona guztien ehunekoaren antzekoa da (% 13,7 eta % 13,6, hurrenez hurren). Azkenik, ikasketarik ez duten edo lehen mailakoak dituzten pertsonen pisu erlatiboa batezbestekoa baino txikiagoa da (%12,0 eta % 18,4, hurrenez hurren).

Kolektibo horretan, honako hauek batez besteko balioak gainditzen dituzte: unibertsitate-ikasketak dituzten eta diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonak (% 44,1 eta % 37,3, hurrenez hurren); lanbide-ikasketak dituzten eta diru-sarrera nahikoak dituztela adierazi duten pertsonak (% 40,0 eta % 36,2, hurrenez hurren); bigarren mailako ikasketak dituzten eta diru-sarrerarik ez duten pertsonak (% 23,3 eta % 23,1, hurrenez hurren), eta ikasketarik ez duten edo lehen mailakoak dituzten eta diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonak (% 18,1 eta % 17,6, hurrenez hurren).

55. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak (ikasketa-maila), diru-sarrera edo errenta propioen arabera, EAE. 2021

Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak		GUZTIRA		Ikasketarik gabel/lehen mailakoak		Lanbide-ikasketak		Bigarren mailako ikasketak		Unibertsitate-ikasketak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	23.876	% 18,4	42.830	% 32,9	17.707	% 13,6	45.672	% 35,1
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	15.351	% 17,7	31.257	% 36,1	7.662	% 8,8	32.407	% 37,4
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	25.384	% 100	4.460	% 17,6	9.177	% 36,2	2.204	% 8,7	9.543	% 37,6
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	61.293	% 100	10.891	% 17,8	22.080	% 36,0	5.458	% 8,9	22.864	% 37,3
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	8.525	% 19,6	11.573	% 26,7	10.045	% 23,1	13.265	% 30,6
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.114	% 100	11.910	% 12,0	33.921	% 34,2	13.619	% 13,7	39.664	% 40,0
	Diru-sarrerak dituztenak	64.858	% 100	7.872	% 12,1	24.557	% 37,9	5.627	% 8,7	26.802	% 41,3
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	18.248	% 100	3.303	% 18,1	7.303	% 40,0	1.384	% 7,6	6.258	% 34,3
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	46.610	% 100	4.569	% 9,8	17.254	% 37,0	4.243	% 9,1	20.544	% 44,1
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	4.038	% 11,8	9.364	% 27,3	7.992	% 23,3	12.862	% 37,5
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	4.938	% 45,9	3.190	% 29,6	798	% 7,4	1.839	% 17,1
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	7.028	% 34,8	5.719	% 28,3	3.288	% 16,3	4.170	% 20,6

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskuari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen ikasketa-maila aztertzean ikusten denez, alde esanguratsuak daude eskatzaileen guztizkoaren banaketekin alderatuta: pertsona horien ia erdiek (% 45,9ek) ez dute ikasketarik edo oinarrikoak dituzte, % 29,6k bigarren mailako ikasketak ditu, % 17,1ek unibertsitate-ikasketak eta % 7,4k bigarren mailako ikasketak.

Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektiboan ikasketa-mailari dagokionez ikusitako portaerak ere banaketa desberdina islatu du. Ehunekorik handiena ikasketa-mailarik txikiena duten pertsonena da (% 34,8). Haien atzetik, lanbide-ikasketak dituzten pertsonak (% 28,3) eta unibertsitate-ikasketak dituztenak (% 20,6) daude. Laugarrenak bigarren mailako ikasketak dituztenak izan dira (% 16,3).

Egoera profesionalari dagokionez, lehen etxebizitza eskatzen duten eta beharrari erantzuteko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen % 71,6k kontratu finkoa du edota ez-soldatiko gisa egiten du lan (% 62,9k eta % 8,7k, hurrenez hurren). Aldi baterako kontratua duten pertsonak ere kontuan hartzen badira (% 24,6), guztizko ehunekoa % 96,2 da.

Diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituzten pertsonen taldean, aldi baterako kontratua dutenak nabarmentzen dira (% 52,4), eta kontratu finkoa duten pertsonak eta ez-soldatikoak batuta, % 34,9 dira.

Diru-sarrerarik ez duten pertsonen artean, langabeak % 47,5 dira, eta beste egoera batean daudenak, berriz, % 52,5).



56. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak (lana), diru-sarrera edo errenta propioen arabera, EAE. 2021

Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak		GUZTIRA		Ez-soldatakoak		Kontratu finkoarekin lanean		Aldi baterako kontratuarekin lanean		Langabeak		Beste egoera bat	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	6.457	% 5,0	33.108	% 25,5	38.347	% 29,5	25.821	% 19,8	26.352	% 20,3
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	6.457	% 7,4	33.108	% 38,2	38.347	% 44,2	5.212	% 6,0	3.553	% 4,1
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	25.384	% 100	2.205	8,7%	15.976	% 62,9	6.251	% 24,6	589	% 2,3	363	% 1,4
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	61.293	% 100	4.252	% 6,9	17.132	% 28,0	32.096	% 52,4	4.623	% 7,5	3.190	% 5,2
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	-		-		-		20.609	% 47,5	22.799	% 52,5
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.114	% 100	4.019	% 4,1	23.819	% 24,0	33.159	% 33,5	17.920	% 18,1	20.197	% 20,4
	Diru-sarrerak dituztenak	64.858	% 100	4.019	% 6,2	23.819	% 36,7	33.159	% 51,1	3.424	% 5,3	437	% 0,7
	Diru-sarrera nahikoak dituztenak	18.248	% 100	1.315	% 7,2	11.082	% 60,7	5.262	% 28,8	589	% 3,2	-	
	Diru-sarrera gutxiegi / ezegonkorak dituztenak	46.610	% 100	2.704	% 5,8	12.737	% 27,3	27.897	% 59,9	2.835	% 6,1	437	% 0,9
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	-		-		-		14.496	% 42,3	19.760	% 57,7
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	770	% 7,2	3.712	% 34,5	2.507	% 23,3	1.821	% 16,9	1.954	% 18,2
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	1.667	% 8,3	5.577	% 27,6	2.681	% 13,3	6.081	% 30,1	4.200	% 20,8

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboan, datu horiek antzekoak dira: diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 67,9 landun finkoa edota ez-soldatakoa da (% 60,7 eta % 7,2, hurrenez hurren), eta diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen ia % 60k aldi baterako kontratuarekin egiten du lan (% 59,9k).

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen kolektiboan, kontratu finkoa dutenak (% 34,5) eta ez-soldatakoak (% 7,2) % 41,7 dira guztira, eta aldi baterako kontratua dutenak, berriz, % 23,3. Langabeak % 16,9 dira.

Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektiboan, kontratu finkoa duten pertsonak (%27,6) eta ez-soldatakoak (% 8,3) % 35,9 dira guztira. Ehuneko hori gainerako bi kolektiboetakoak baino txikiagoa da. Era berean, aldi baterako kontratua duten pertsonak % 30,1 dira, eta langabeak, berriz, % 13,3.

Emantzipatzeko **arrazoi nagusia** ez da asko aldatzen diru-sarreraren mailaren arabera. Izan ere, antzeko portaera ikus daiteke diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen (% 69,0k independizatu nahi du, eta % 16,7k, berriz, bikotekidearekin bizi edo ezkondu), diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituztenen (% 74,8 eta % 16,4, hurrenez hurren) eta diru-sarrerarik ez dutenen (% 76,2 eta % 17,6, hurrenez hurren) artean.

57. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusia, diru-sarrera edo errenta propioen arabera, EAE. 2021

Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoa		GUZTIRA		Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea		Independizatzea		Beste arrazoi bat	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	21.918	% 16,8	96.465	% 74,2	11.699	% 9,0
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	14.296	% 16,5	63.375	% 73,1	9.004	% 10,4
	. Nahikoak	25.384	% 100	4.233	% 16,7	17.503	% 69,0	3.648	% 14,4
	.Gutxiegi/ezegonkorak	61.293	% 100	10.063	% 16,4	45.872	% 74,8	5.356	% 8,7
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	7.622	% 17,6	33.090	% 76,2	2.695	% 6,2
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.114	% 100	17.313	% 17,5	77.404	% 78,1	4.397	% 4,4
	Diru-sarrerak dituztenak	64.858	% 100	11.305	% 17,4	50.622	% 78,1	2.931	% 4,5
	. Nahikoak	18.249	% 100	3.451	% 18,9	14.158	% 77,6	640	% 3,5
	.Gutxiegi/ezegonkorak	46.609	% 100	7.854	% 16,9	36.464	% 78,2	2.291	% 4,9
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	6.008	% 17,5	26.782	% 78,2	1.466	% 4,3
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	197	% 1,8	8.837	% 82,1	1.731	% 16,1
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	4.408	% 21,8	10.224	% 50,6	5.572	% 27,6

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Emantzipatu nahi duten 18-44 urteko pertsonen kasuan ere, gehienek independizatu nahi dute (diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 77,6k eta diru-sarrera gutxiegi/ezegonkorak dituzten pertsonen eta diru-sarrerarik ez dutenen % 78,2k). Bikotekidearekin bizi edo ezkondu nahi dutenak, berriz, % 18,9, % 16,9 eta % 17,5 dira, hurrenez hurren.

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako pertsonen % 82,1ek adierazi du independizatzeko nahia dela etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusia. Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen taldean, ezkondu edo bikotekidearekin bizi nahi duten pertsonen ehuneko handia nabarmentzen da (% 21,8), bakarrik independizatzeko nahia nagusi bada ere (% 50,6).

Ukaite-erregimenaren ikuspegitik ikus daitekeenez, baliabide ekonomikoak dituztenek neurri handiagoan nahiago dute jabetza-erregimena. Izan ere, emantzipatzeko baliabide nahikoak dituztela adierazi duten pertsonen % 55,7k jabetza-erregimena nahiago du (beharra duten pertsona guztiak kontuan hartuta, hiru pertsonatik batek nahiago du ukaite-mota hori). Baliabide ekonomiko gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen artean, jabetza-erregimena nahiago dutenak % 34,6 dira. Diru-sarrerarik ez duten pertsonen artean, berriz, jabetza-erregimena nahiago dutenen ehunekoa (% 19,9) batez besteko ehunekoa baino portzentajezko 14 puntu txikiagoa da.

Oro har, diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 80,4k etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukera hartzen du kontuan nolabait ere (jabetzaren zein alokairuaren aukera eta alokairuari lotutako erosteko aukera barne hartuta). Halaber, aukera hori nagusi da diru-sarrera gutxiegi/ezegonkorak dituzten pertsonen eta, neurri txikiagoan, diru-sarrerarik ez duten pertsonen kasuan (% 70,9 eta % 54,6, hurrenez hurren).



58. taula: Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen eskatutako etxebizitzaren ukaite-erregimena, diru-sarrera edo errenta propioen arabera, EAE. 2021

Beharra duten pertsona guztiekiko ehunekoak		GUZTIRA		Jabetza		Alokairua		Alokairua, erosteko aukerarik gabe		Alokairua, erosteko aukerarekin		Bata zein bestea	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak	Guztira	130.085	% 100	44.022	% 33,8	64.475	% 49,6	42.494	% 32,7	21.981	% 16,9	21.584	% 16,6
	Diru-sarrerak dituztenak	86.677	% 100	35.367	% 40,8	37.185	% 42,9	22.787	% 26,3	14.398	% 16,6	14.121	% 16,3
	. Nahikoak	25.384	% 100	14.143	% 55,7	9.041	% 35,6	4.964	% 19,6	4.077	% 16,1	2.198	% 8,7
	.Gutxiegi/ezegonkorak	61.293	% 100	21.224	% 34,6	28.144	% 45,9	17.823	% 29,1	10.321	% 16,8	11.923	% 19,5
	Diru-sarrerarik ez dutenak	43.408	% 100	8.655	% 19,9	27.290	% 62,9	19.707	% 45,4	7.583	% 17,5	7.463	% 17,2
Eskuratzeko beharra. 18-44 urteko pertsonak	Guztira	99.114	% 100	32.880	% 33,2	48.191	% 48,6	31.027	% 31,3	17.164	% 17,3	18.043	% 18,2
	Diru-sarrerak dituztenak	64.858	% 100	25.624	% 39,5	27.488	% 42,4	16.777	% 25,9	10.711	% 16,5	11.746	% 18,1
	. Nahikoak	18.249	% 100	9.587	% 52,5	6.905	% 37,8	4.005	% 21,9	2.900	% 15,9	1.757	% 9,6
	.Gutxiegi/ezegonkorak	46.609	% 100	16.037	% 34,4	20.583	% 44,2	12.772	% 27,4	7.811	% 16,8	9.989	% 21,4
	Diru-sarrerarik ez dutenak	34.256	% 100	7.256	% 21,2	20.703	% 60,4	14.250	% 41,6	6.453	% 18,8	6.297	% 18,4
Eskuratzeko beharra. 44 urtetik gorako pertsonak		10.765	% 100	4.068	% 37,8	5.198	% 48,3	3.823	% 35,5	1.375	% 12,8	1.499	% 13,9
Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra dutenak. Beste egoera-mota batean daudenak		20.205	% 100	7.074	% 35,0	11.087	% 54,9	7.644	% 37,8	3.443	% 17,0	2.043	% 10,1

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Alokairuaren aukera (erosteko aukera kontuan hartu gabe) oso lotuta dago diru-sarreraren arloan egoerarik txarrean dauden taldeekin. Izan ere, diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 19,6k, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen % 29,1ek eta diru-sarrerarik ez duten pertsonen % 45,4k aukeratu dute alokairua.

Emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kolektiboaren ikuspegitik, datuak antzekoak dira. Diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 52,5ek jabetza nahiago du ukaite-erregimen gisa. Ehuneko hori % 34,4ra iritsi da diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorak dituzten pertsonen kasuan, eta % 21,2ra, diru-sarrerarik ez dutenen kasuan.

Diru-sarrera nahikoak dituzten pertsonen % 21,9k, diru-sarrera gutxiegi eta/edo ezegonkorak dituzten pertsonen % 27,4k eta diru-sarrerarik ez dutenen % 41,6k alokairua aukeratu dute (erosteko aukerarik gabe).

Emantzipatu gabe dauden 44 urtetik gorako kolektiboan, pertsonen % 37,8k jabetza aukeratu du. Ehuneko hori % 64,5era iritsi da erosteko aukera duen alokairua aukeratu dutenak eta alokairua zein erosketara aukeratu dutenak ere kontuan hartuta.

Beste egoera baten ondorioz independizatu nahi duten pertsonen % 35,0k jabetza-erregimena aukeratu du. Jabetza, erosteko aukera duen alokairua eta erosketara zein alokairua aukeratu dituztenak kontuan hartuta, % 62,2 dira guztira. Kolektibo horren barruan, % 37,8k erosteko aukerarik gabeko alokairua nahiago du.

2.6. Etxebizitza eskuratzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak

Lehen etxebizitzaren eskari orokorrari dagokionez, honako ondorio hauek azpimarra daitezke diru-sarrerak edo errentak dituzten 18-44 urteko pertsonen kasuan:

- 2021eko EBEIri esker, EAEn familia-etxebizitzaren kopurua % 6,5 handituko dela aurreikus daiteke, diru-sarrera propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonak oinarri hartuta. Behar horri erantzuteko, 58.137 etxebizitza beharko lirateke. Beharra duten baina diru-sarrerarik ez duten pertsonak ere kontuan hartuta, 89.163 etxebizitza beharko lirateke.
- 2019. urtearekin alderatuta, igoera txiki bat izan du etxebizitza eskuratzeko beharrak⁷ (% 6,0tik % 6,5era), baita behar diren etxebizitzaren guztizko kopuruak ere (53.447tik 58.137ra). Azken biurtekoan gertatutako igoera horri esker, 2017ko mailak berreskuratu dira.
- Epe ertain eta luzeko ikuspegiarekin, etxebizitzaren eskariak igoera txiki bat izan duela ikus daiteke: bi urterako eskariaren kasuan, 20.930 etxebizitza ziren 2019an, eta 23.321 dira 2021ean, eta lau urterako eskariaren kasuan, berriz, 32.312 etxebizitza ziren 2019an, eta 38.021 dira 2021ean. Halaber, neurri txikiagoan bada ere, gora egin du urtebeterako eskariak: 3.437 etxebizitza ziren 2019an, eta 3.718 etxebizitza 2021ean.
- Etxebizitza eskuratzeko beharra lurralde historikoen arabera aztertuz gero, Gipuzkoako indizeak igoera txiki bat izan du 2019koarekin alderatuta (% 6,9 eta % 6,6, hurrenez hurren). Araban, indizea txikixeagoa da (% 6,7), baina igo egin da 2019koarekin alderatuta (% 4,6). Bizkaian, indizea % 6,1era iritsi da; beraz, aurreko edizioakoaren oso antzekoa izan da (% 6,0).

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarriak ezagutzen laguntzen duten alderdiei dagokienez, ondorio hauek atera daitezke diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen kolektiboaren inguruan:

- Azken bi urteetan, zertxobait behera egin du emantzipatu gabe dauden 18-44 urteko pertsonen kopuruak: 266.720 pertsona ziren 2019an (18-44 urteko pertsonen % 39,1), eta 266.075 dira 2021ean (% 40,5).
- Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen profilari dagokionez, batez besteko adina 29,0 urte da, eta gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 52,9 eta % 47,1, hurrenez hurren). Pertsona horien erdiek baino gutxiagok dituzte unibertsitate-ikasketak (% 41,3k). Lanbide-ikasketak dituztenak % 37,9 dira, bigarren mailakoak dituztenak % 8,7, eta lehen mailakoak dituztenak edo ikasketarik ez dutenak, berriz, % 12,1.

⁷ Eskuratzeko beharraren indizea lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrera edo errenta propioen bat duten 18-44 urteko pertsonen behar dituzten etxebizitza guztien eta EAEko etxebizitza guztien arteko erlazioa da.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen batez besteko adina 52,3 urte da, eta gizonen ehunekoa emakumeena baino nabarmen handiagoa da (% 62,3 eta % 37,7, hurrenez hurren). Pertsona horien % 29,6k lanbide-ikasketak ditu, % 17,1ek unibertsitate-ikasketak, % 45,9k lehen mailako ikasketak edo ez dute ikasketarik, eta % 7,9k bigarren mailakoak.

Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektiboan, batez besteko adina 42,6 urte da. Gizonak % 53,8 dira, eta emakumeak, berriz, % 46,2. Ikasketa-mailari dagokionez, % 28,3k lanbide-ikasketak ditu, % 20,6k unibertsitate-ikasketak, % 16,3k bigarren mailako ikasketak, eta % 34,8k lehen mailako ikasketak edo ez du ikasketarik.

- 2021ean, berriz ere, 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren arrazoi nagusia etxetik independizatzeko asmoa da (kasuen % 78,1etan). Bikotekidearekin bizi edo ezkondu nahi dutenen ehunekoa, berriz, portzentajezko 6 puntu jaitsi da: % 17,4 2021ean eta % 23,5 2019an.
- Beharra duten 18-44 urteko pertsona gehienek (% 65,5ek) adierazi dute oso handia edo handi samarra dela behar hori. 2007ko % 87,8az geroztik adierazle horrek behera egin badu ere, 2021eko datua igo egin da, eta 2015eko edizioiko datura hurbildu da (% 64,3 2015ean).

44 urtetik gorakoen kolektiboan, beharra duten pertsonen % 62,1ek adierazi du oso handia edo handi dela behar hori. Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 81,4ra iritsi da.

- Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko hamar pertsonatik ia seik bi urte daramatzate behar-egoeran (% 57,2k). 2019ko datuarekin alderatuta (% 67,0), ehunekoak ia portzentajezko 10 puntuko beherakada izan du. Aitzitik, gora egin dute behar-egoeran 2-4 urte daramatzaten pertsonen ehunekoak (% 19,3 2019an eta % 21,5 2021ean) eta egoera horretan lau urte baino gehiago daramatzaten pertsonenak (% 13,6 2019an eta % 21,2 2021ean).

Emantzipatu gabe dauden eta horren beharra dutela adierazi duten 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko duten beharraren batez besteko maila 76,4 puntura iritsi da behar-egoeran lau urte baino gehiago daramatzaten pertsonen kasuan. Behar-egoeran urtebete baino gutxiago daramaten pertsonen kasuan, berriz, 34 puntu txikiagoa da (42,4 puntu).

Bestalde, 44 urtetik gorako pertsonen kolektiboan, batez besteko maila 60,5 puntukoa da behar-egoeran lau urte baino gehiago daramatzaten pertsonen kasuan, eta 45,1 puntukoa egoera horretan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonen kasuan.

Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten kolektiboan, berriz, maila hori 72,5 puntukoa da lehen kasuan, eta 66,3 puntukoa, bigarreanean.

Behar diren etxebizitzaren ezaugarri nagusiei dagokienez, emaitza hauek azpimarra daitezke:

- 2021ean beharra duten 18-44 urteko pertsonen gehien eskatu duten aukera alokairu-erregimena izan da (kasuen % 42,4tan). Jabetza-erregimena eskatu dutenen ehunekoa, berriz, hiru puntu txikiagoa izan da (% 39,5).

Epe luzeko ikuspegitik, eten egin da azken edizioetan lehen etxebizitza alokairu-erregimenean (alokairuan zein jabetzan eskuratuko luketenak ere barne hartuta) eskuratuko luketen pertsonen proportzioan izan den beherakada. Izan ere, ehunekorik txikiena 2019koa izan zen (% 59,5), eta 2021ean, berriz, puntu bat handiagoa izan da (% 60,5).

- Lehen etxebizitza behar duten 18-44 urteko pertsona gehienek (% 63,8k) egungo udalerrian eskuratu nahi dute etxebizitza. Hala ere, kolektibo horretako pertsonen % 61,1 prest dago udalerria aldatzeko, bere beharretara eta aukeretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratze aldera.

Bestalde, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta etxebizitza beren udalerrian bertan eskuratu nahi duten 44 urtetik gorako pertsonak % 57,5 dira. Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 63,1 da. Bi kolektibo horietan, hurrenez hurren % 53,9 eta % 51,7 daude prest udalerria aldatzeko, nahi duten eta ordaindu dezaketen etxebizitza eskuratze aldera.

Pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko duten ahalmen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, emaitza hauek azpimarra daitezke:

- Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen batez besteko diru-sarreraren mailak 8 euroko beherakada izan du azken bi urteetan. 2021. urtean, hileko 1.260,0 eurokoak izan dira batez besteko diru-sarrerak (hileko 1.268,1 eurokoak izan ziren 2019an).

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen kolektiboan, hileko 1.163,0 eurokoa da batez besteko maila. Etxebizitza beste egoera batzuen ondorioz eskuratzeko beharra duten pertsonen hileko batez besteko diru-sarrerak 1.319,1 eurokoak dira.

- Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen % 25,0k adierazi du bi bikotekideek hartuko dutela parte etorkizuneko etxebizitzaren finantzaketan. Beraz, 20 puntutik gorako beherakada izan da 2019ko ehunekoarekin alderatuta (% 46,8 urte horretan).

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta etxebizitza bikotearen diru-sarrerekin finantzatzeko litzatekeela adierazi duten 44 urtetik gorako pertsonen proportzioa % 15,7 da. Etxebizitza beste egoera batzuen ondorioz eskuratzeko beharra duten pertsonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 61,8ra iritsi da.

Bestalde, 44 urtetik gorakoen artean, etorkizuneko etxebizitza-beharra duen pertsonak bakarrik finantzatzeko lukeela adierazi dutenen ehuneko handia nabarmentzen da (% 74,0). Beste egoera bati lotutako pertsonen kolektiboan, berriz, ehuneko hori % 31,4 da.

- 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko hilean ordaindu dezaketen zenbatekoa 448,0 euro da; hau da, 2019an baino 58,6 euro gutxiago hilean (506,6 euro urte horretan).

Testuinguru horretan, 2021ean behera egin du finantza-ahaleginak. Izan ere, % 35,6koa izan da; alegia, 2019an baino lau puntu txikiagoa (% 39,9 urte horretan).

2021ean, 44 urtetik gorako pertsonen etxebizitza eskuratzeko hilean ordain dezaketen zenbatekoa 443,0 euro da hilean. Beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen, berriz, 538,9 euro ordaindu ditzakete hilean.

- 2021ean, etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen % 11,2k baino ez du uste hilean 600 eurotik gorako zenbatekoa ordaindu ahal izango duenik. Datu hori 2019koaren azpitik dago (% 19,6 urte horretan; hots, serieko handienetako bat), eta 2017koaren antzekoa da (% 11,6 urte horretan).

Era berean, 2021ean, etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen % 5,3k soilik uste du hilean 600 eurotik gorako zenbatekoa ordaindu ahal izango duela. Beste egoera batzuei lotutako beharra duten pertsonen kasuan, berriz, % 28,5ek uste du ordaindu ahal izango duela.

- 2021. urtean, 18-44 urteko pertsonen etxebizitza eskuratzeko ordaindu dezaketen gehieneko prezioa 151.912 euro da; hau da, 2019an baino 15.000 euro gutxiago (166.895 euro urte horretan).

2021ean, 44 urtetik gorako pertsonen etxebizitza eskuratzeko ordaindu dezaketen gehieneko prezioa 147.373 euro da, eta beste egoera batzuen ondorioz etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonen ordaindu dezaketena, berriz, 199.399 euro (hiru kolektiboetako preziorik handiena).

- Etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukerari dagokionez, etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsona gehienek (% 74,7k) kreditu bat eskatu beharko lukete. Proportzio hori 2019koa baino 5,5 puntu txikiagoa da (% 80,2 urte horretan).

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako pertsonen kasuan, % 66,5ek adierazi du kreditu bat eskatu beharko luketela. Beste egoera bati lotutako pertsonen kolektiboan, berriz, ehuneko hori % 59,7 da.

Azkenik, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen kolektiboa genero-ikuspegitik aztertuz gero, gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da (% 52,9 eta % 47,1, hurrenez hurren). Horrez gain, zenbait alde ikus daitezke profiletan:

- 18-24 urteko gizonen proportzioak igoera handia izan du 2019koarekin alderatuta (% 15,1 2019an eta % 28,7 2021ean). Emakumeen artean ere, adin-tarte horren ehunekoak gora egin du azken biurtekoan (% 17,7 2019an eta % 24,7 2021ean). Gizonen eta emakumeen proportzioak behera egin du gainerako bi adin-tarteetan (25-34 urtekoen eta 35-44 urtekoen adin-tarteetan). Beherakadarik handiena (ia portzentajezko 9 puntukoa) 35-44 urteko gizonen taldean gertatu da (% 30,4tik % 21,9ra jaitsi da).

- Beharra duten emakumeen ikasketa-maila gizonena baino handiagoa da. Izan ere, emakumeen % 53,7k eta gizonen % 30,3k egin dituzte unibertsitate-ikasketak.
- Aldi baterako kontratuen ehunekoak gora egin du bi sexuetan 2019ko datuekin alderatuta. Nolanahi ere, handiagoa izan da emakumeen kasuan (% 53,0; hots, balio historikorik handiena) gizonen kasuan baino (% 49,5).
- Emakumeen beharraren maila subjektiboa gizonen beharrarena baino 10 puntu handiagoa da (67,1 puntu eta 57,1 puntu, hurrenez hurren). 2019. urtearekin alderatuta, adierazle horrek gora egin du bi kolektiboetan (56,6 puntu eta 56,1 puntu urte horretan, hurrenez hurren).
- Behar-egoeran 1-2 urte daramatzaten gizonen ehunekoa emakumeena baino portzentajezko 5 puntu handiagoa da (%32,2 eta % 27,3, hurrenez hurren). 2-4 urteko itxaronaldiaren kasuan, berriz, emakumeen ehunekoa gizonena baino portzentajezko 4 puntu handiagoa da (% 23,6 eta % 19,6, hurrenez hurren). Kontuan hartutako gainerako bi kategorietan (urte bat baino gutxiago edo 4 urte baino gehiago), ehunekoa oso antzekoa da bi sexuetan.
- Alokairu-erregimena nahiago duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (% 45,3 eta % 39,8, hurrenez hurren). Nolanahi ere, aukera hori da gehien eskatutakoa bi sexuetan. Hala ere, gizonen kasuan, jabetza nahiago dutenen ehunekoa ia berdina da (% 39,6).

Ondorengo laburpen-taulan, EAEko 18-44 urteko pertsonen eskuratzeko beharraren adierazle kuantitatibo eta deskribatzaile nagusiek 2005-2019 aldian izan duten bilakaera agertzen da.

59. taula: Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen ezaugarri nagusien bilakaera. 2005-2021

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Kuantifikazioa												
Behar-indizea (familien %)	% 12,2	% 11,2	% 10,1	% 8,6	% 13,2	% 11,7	% 9,0	% 6,8	% 7,4	% 6,3	% 6,0	% 6,5
Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kopurua)	90.815	92.788	82.891	74.461	110.677	97.800	76.360	59.318	64.290	55.531	53.447	58.137
Ezaugarri sozialen bilakaera												
Batez besteko adina (urteak)	27,5	28,1	29,1	28,7	27,8	28,5	28,8	28,8	30,3	30,0	30,6	29,0
Eskuratzeko erantzunaren eta beharraren bilakaera												
Arrazoa: ezkontzea – bikotekidearekin bizitzea (%)	% 28,6	% 21,3	% 22,9	% 27,4	% 25,2	% 23,4	% 33,3	% 22,2	% 24,0	% 28,6	% 23,5	% 17,4
Arrazoa: independentzia (%)	% 69,7	% 76,8	% 76,1	% 69,2	% 71,8	% 73,5	% 65,0	% 74,7	% 73,8	% 70,2	% 74,8	% 78,1
Beharra: handia eta handi samarra (%)	% 85,0	% 85,5	% 87,8	% 79,5	% 78,0	% 74,5	% 74,0	% 67,9	% 64,3	% 69,0	% 59,7	% 65,5
Behar den denbora: < 2 urte (%)	% 48,6	% 52,1	% 47,3	% 43,9	% 39,9	% 54,4	% 52,4	% 50,8	% 61,7	% 59,3	% 67,0	% 57,2
Behar den denbora: > 4 urte (%)	% 20,7	% 26,1	% 26,1	% 31,8	% 31,2	% 27,0	% 36,3	% 23,2%	% 21,9	% 20,8	% 13,6	% 21,2
4 urteko epean eskuratzeko aukera oso handia/handi samarra	% 67,4	% 61,6	% 54,9	% 68,2	% 51,6	% 64,6	% 59,3	% 57,2	% 65,7	% 76,2	% 60,8	% 42,3
Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak												
Behar den batez besteko azalera (m ²)	64,1	64,3	67,8	64,1	73,6	67,3	71,2	69,8	75,8*	70,4	62,9	68,1
Ukaite-erregimena (alokairua + bata zein bestea)	% 24,1	% 33,8	% 32,2	% 39,6	% 40,5	% 48,4	% 48,1	% 63,3	% 73,4	% 63,8	% 59,5	% 60,5
Egoera ekonomikoa eta finantzarioa												
Hileko batez besteko diru-sarrera garbiak (€)	1.345	1.469	1.389	1.603	1.427	1.251	1.564	1.366	1.298	1.198	1.268	1.260
Diru-sarrera bat baino gehiago dutenen %	% 36,9	% 34,4	% 31,1	% 23,6	% 38,0	% 31,0	% 36,2	% 33,6	% 35,2	% 32,0	% 46,8	% 25,0
Hilean ordaintzeko ahalmena	445,0	495,0	457,0	580,0	470,0	435,0	434,0	385,2	484,0*	457,0	506,6	448,0
Ordain daitekeen gehieneko prezioa (*)	143.215	164.455	157.920	168.072	152.902	154.401	145.833	135.060	135.593*	156.997	166.895	151.912

* 2015. urtean, emantzipatu ahal izateko diru-sarrera nahikoak dituztela uste duten pertsonen informazioa baino ez da jaso.

** 2009. urtetik aurrera, ukaite-erregimen gisa jabetza edo bata zein bestea aukeratu duten pertsonen kasuan baino ez da kalkulatu.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

3. ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRA DUTEN FAMILIEN EZAUGARRIAK

3.1. Etxebizitza aldatzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa

2021. urtean, EAEko 82.326 familiak adierazi dute etxebizitza **aldatzeko beharra** dutela; hau da, EAEko familia guztien % 9,1ek. Nolanahi ere, duela bi urte baino 1.084 familia gutxiago dira (83.410 familia 2019an); alegia, 2019an baino portzentajezko puntu bat inguru gutxiago (–% 1,3).

60. taula: Etxebizitza aldatzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2005-2021


(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a
2005	49.559	% 6,4	6.061	% 5,5	26.260	% 6,3	17.173	% 6,9
2006	47.851	% 6,1	6.304	% 5,7	26.169	% 6,2	15.382	% 6,1
2007	64.393	% 8,1	7.559	% 6,6	34.255	% 8,0	22.584	% 8,8
2008	40.894	% 4,9	6.813	% 5,7	21.714	% 4,9	12.367	% 4,7
2009	56.652	% 6,7	7.676	% 6,2	37.936	% 8,5	11.040	% 4,1
2010	56.397	% 6,7	8.512	% 6,9	27.294	% 6,1	20.591	% 7,7
2011	38.048	% 4,5	6.601	% 5,2	22.230	% 4,9	9.218	% 3,4
2013	61.621	% 7,1	8.818	% 6,6	41.283	% 9,0	11.521	% 4,1
2015	53.132	% 6,2	9.307	% 7,1	26.042	% 5,8	17.784	% 6,3
2017	75.970	% 8,6	12.140	% 9,0	40.987	% 8,9	22.843	% 7,9
2019	83.410	% 9,3	10.493	% 7,7	48.672	% 10,4	24.245	% 8,4
2021	82.326	% 9,1	10.488	% 7,6	45.226	% 9,6	26.612	% 9,1

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


EAEan gertatu den beherakada hori Bizkaiko lurraldean erregistratutako beherakadaren ondorio izan da (–% 7,1: ia 3.500 familia gutxiago azken bi urte hauetan). Izan ere, Gipuzkoan ia 2.400 familiak (% 9,8k) dute aldatzeko beharra. Araban, berriz, antzeko erregistroak jaso dira bi urteetan: 2019an baino 5 familia gutxiago 2021ean.

Familia horiek lurralde bakoitzean duten bolumenari dagokionez, Gipuzkoan aldatzeko beharra duten familien ehunekoak (% 9,1) gora egin du 2015az geroztik. Bizkaian, ehunekorik handiena aurreko edizioan lortu zen (% 10,4 2019an). Dena dela, 2021eko datua (% 9,6) serieko bigarren proportziorik handiena da. Arabaren kasuan, beharraren ehunekorik handiena 2017koa izan zen (% 9,0), eta egonkortu egin da 2019an (% 7,7) eta 2021ean (% 7,6).

29. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2021

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Azken hiru edizioetan, etxebizitza aldatzeko beharrak balio erlatiborik handienak izan ditu hiru lurralde historikoetan. Horren ondorioz, EAE osoa kontuan hartuta, adierazleak (aldatzeko beharra duten familien pisu erlatiboa familia guztiekiko) goranzko joera izan du 2015. urteaz geroztik, eta baliorik handienak 2017an eta 2019an izan ditu (% 8,6 eta % 9,3, hurrenez hurren). 2021ean, berriz, egonkortu egin da (% 9,1).

30. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharraren indizearen bilakaera EAEn. 1996-2021

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Behar hori nabarmenagoa da udalerriek zenbat eta biztanle-kopuru handiagoa izan. Euskal Autonomia Erkidego osoan, behar horren indizea % 9,1ekoa izan da 2021ean, eta hiru lurraldeetako hiriburu administratiboek ia % 10eko indizea izan dute. 20.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan ere gairitu da batezbestekoa (% 9,6). Udalerri txikiak, bestalde, ez dira % 8ra iritsi (% 7,9).

Lurralde historiko guztietan gertatu da hori. Izan ere, hiru hiriburuek gairitu dute beren lurraldeko batezbestekoa. Nolanahi ere, Bilbo (% 11,0ko behar-indizea) eta Donostia (% 10,8ko behar-indizea) nabarmendu dira: Bizkaiko batezbestekoa (% 9,6) eta Gipuzkoakoa (% 9,1) baino portzentajezko 1,4 eta 1,7 puntu gehiago, hurrenez hurren.

Gasteizen (% 7,7), adierazle hori hamarren bat handiagoa izan da Arabako batezbestekoa (% 7,6) baino, eta hiru hamarren handiagoa, lurraldeko gainerako udalerrien indizea (% 7,4) baino.

61. taula: Etxebizitza aldatzeko beharraren kuantifikazioa, udalerrien tamainaren arabera. EAE. 2015-2021

(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoak)

		2015		2017		2019		2021	
		Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a
EAE	Guztira	53.132	% 6,2	75.970	% 8,6	83.410	% 9,3	82.326	% 9,1
	Hiriburuak	21.238	% 7,0	28.749	% 9,2	27.848	% 8,5	32.476	% 9,9
	20.000-100.000 biztanle	15.345	% 6,4	23.923	% 9,3	26.815	% 10,5	25.484	% 9,6
	<20.000 biztanle	16.549	% 5,2	23.298	% 7,4	28.747	% 9,2	24.366	% 7,9
Lurralde historikoa									
Araba	Guztira	9.306	% 7,1	12.140	% 9,0	10.493	% 7,7	10.488	% 7,6
	Gasteiz	7.510	% 7,6	9.841	% 9,7	7.777	% 7,5	8.096	% 7,7
	<20.000 biztanle	1.796	% 5,4	2.299	% 6,7	2.716	% 8,4	2.392	% 7,4
Gipuzkoa	Guztira	17.784	% 6,3	22.843	% 7,9	24.245	% 8,4	26.612	% 9,1
	Donostia	5.240	% 7,3	5.579	% 7,6	7.284	% 9,5	8.343	% 10,8
	20.000-100.000 biztanle	4.960	% 7,1	8.084	% 10,7	6.208	% 8,2	7.808	% 9,9
	<20.000 biztanle	7.584	% 5,4	9.180	% 6,6	10.753	% 7,8	10.461	% 7,7
Bizkaia	Guztira	26.042	% 5,8	40.987	% 8,9	48.672	% 10,4	45.226	% 9,6
	Bilbo	8.488	% 6,3	13.329	% 9,6	12.787	% 8,8	16.037	% 11,0
	20.000-100.000 biztanle	10.385	% 6,1	15.839	% 8,7	20.607	% 11,5	17.676	% 9,6
	<20.000 biztanle	7.169	% 5,0	11.819	% 8,3	15.278	% 10,8	11.513	% 8,2


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Balio absolutuetan, aldatzeko beharra duten etxebizitzaren bolumenak gora egin du 2011. urteaz geroztik (38.048 etxebizitza urte horretan: familia guztien % 4,5), eta 2019an lortu zen daturik handiena (83.410 etxebizitza: guztien % 9,3). 2021ean, beharra duten etxebizitzak 82.326 izan dira (guztien % 9,1), eta serieko bigarren daturik handiena izan da, 2019koaren atzetik.

Beharraren premiaren ikuspegitik ere, aldatzeko beharrak behera egin du aztertutako hiru mailetan (4 urteko epean, 2 urteko epean eta urte bateko epean), bai balio absolutuetan, bai aldatzeko beharra duten etxebizitza guztiekiko ehunekoan.

Eskaririk **premiatzkoena** 2017koa izan zen. Izan ere, aldatzeko beharra zuten familien % 35,7k adierazi zuen aldaketa hori **urtebeteko** epean egin beharko litzatekeela. 2021. urtean, pisu erlatibo hori % 24,3ra iritsi da (20.045 etxebizitza). **Bi urterako** eskariaren kasuan, ehunekorik handiena 2015ekoa izan zen (% 48,0). 2021. urtean, bi urteko epean aldatzeko beharra duten etxebizitzak 32.233 dira; hau da, aldatzeko beharra duten etxebizitza guztien % 39,2. 2015ean, halaber, **epe luzeagoan** aldatzeko beharra duten etxebizitzaren ehunekorik handiena lortu zen (% 70,5). 2021. urtean, etxebizitza **lau urteko** epean aldatzeko beharra duten familiak (46.530 etxebizitza) aldatzeko beharra duten familia guztien erdiak baino gehiago dira (% 56,5), baina azken lau edizioetako daturik txikiena izan da.

31. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharraren bilakaera EAEn, aldaketa egiteko aurreikusitako epearen arabera. 2005-2021



** 2005etik 2007ra bitarteko balioak berriz zenbatetsi dira, familiei buruz eskuragarri dauden datu berrien arabera.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

62. taula: Etxebizitza aldatzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa, EAE. 2007-2021

(Familia guztiekiko eta beharra duten familiekiko ehunekioak)

	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Beharra (*)	% 8,1	% 4,9	% 6,7	% 6,7	% 4,5	% 7,1	% 6,2	% 8,6	% 9,3	% 9,1
4 urterako eskaria (**)	% 47,2	% 48,1	% 57,3	% 45,8	% 50,5	% 49,5	% 70,5	% 63,6	% 62,9	% 56,5
2 urterako eskaria (**)	% 28,7	% 28,8	% 46,4	% 31,3	% 38,6	% 33,7	% 48,0	% 45,4	% 47,5	% 39,2
Urte 1erako eskaria (**)	% 21,4	% 20,1	% 26,0	% 14,7	% 24,9	% 20,5	% 31,1	% 35,7	% 28,0	% 24,3

(*) Familia guztiekiko %-a. (**) Beharra duten familien %-a.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

63. taula: Etxebizitza aldatzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioaren aldakuntza, EAE. 2007-2021 eta 2017-2021

	2007		2019		2021		2007-2021 aldiko aldakuntza				2019-2021 aldiko aldakuntza			
							Absolutuak		Tasa (%)		Absolutuak		Tasa (%)	
	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.
Beharra	% 8,1	64.393	% 9,3	83.410	% 9,1	82.326	% 1,0	17.933	% 12,8	% 27,8	-% 0,2	-1.084	-1,8%	-1,3%
4 urterako eskaria	% 47,2	30.406	% 62,9	52.467	% 56,5	46.530	% 9,3	16.124	% 19,7	% 53,0	-% 6,4	-5.937	-10,1%	-11,3%
2 urterako eskaria	% 28,7	18.470	% 47,5	39.655	% 39,2	32.233	% 10,5	13.763	% 36,4	% 74,5	-% 8,3	-7.422	-17,6%	-18,7%
Urte 1erako eskaria	% 21,4	13.778	% 28,0	23.376	% 24,3	20.045	% 2,9	6.267	% 13,8	45,5%	-% 3,7	-3.331	-13,0%	-14,2%

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

3.2. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarriak

3.2.1. Gizarte- eta bizitegi-ezaugarriak

Atal honetan, aldatzeko beharrari lotuta dauden familia-nukleoaren eta ohiko etxebizitzaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira.

Aldatzeko beharra duten etxebizitzaren titularren **batez besteko adina** 47,9 urte da 2021ean. Serieko bigarren batezbestekorik handiena izan da, 2019koaren atzetik (48,1 urte batez beste urte horretan).

Etxebizitza horien titularren erdiek baino gehiagok 35-54 urte izan ohi dituzte. 2021ean, adin-tarte horretako pertsonak % 55,9 izan dira. Ehuneko hori txikiena izan da 2011z geroztik (% 53,4 urte horretan), eta 2017an lortutako ehunekorik handiena (% 68,1) baino portzentajezko 12 puntu inguru txikiagoa.

Era berean, kolektibo horren barruan 35-44 urteko titularrena da talderik ugariena. 2021. urtean, berriz, 45-54 urtekoak izan dira nagusi (% 28,6). Haien ehunekoa 35-44 urtekoen taldearena baino portzentajezko 1,3 puntu handiagoa izan da (% 27,3 talde horretan).

Aurreko edizioekin alderatuta, 2021ean garrantzi handi samarra hartu dute 25-34 urteko titularrek (% 15,6) eta 55-64 urtekoek (% 17,0).

Aldatzeko beharra duten etxebizitzaren titularren jatorriari dagokionez, gora egin du atzerriko nazionalitatea duten pertsonen proportzioak. Azken edizio honetako ehunekoa (% 15,6) serieko bigarren baliorik handiena izan da, 2013koaren atzetik (% 16,5 urte horretan).

Familiaren batez besteko tamaina 2,8 pertsonakoa izan da. Datu horrek egonkor jarraitu du 2008. urteaz geroztik (2,8tik 3ra bitarte).

Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien tamainaren bilakaeran, zenbait alde daude.

Hiru pertsonako edo gehiagoko familien proportzioak beheranzko joera izan du azken urteotan: 3 pertsonako familiek portzentajezko 1,3 puntuko beherakada izan dute 2019tik 2021era (% 21,1 eta % 19,8, hurrenez hurren). 4 pertsonako familiek, berriz, 1,1 puntuko beherakada izan dute (% 21,2 eta % 20,1, hurrenez hurren). Azkenik, 5 pertsonako edo gehiagoko familiek ia puntu-erdiko beherakada izan dute (% 12,0 2019an eta % 11,6 2021ean).

Bestalde, 2 pertsonak osatutako familien ehunekoak ia portzentajezko 3 puntuko igoera izan du 2019tik 2021era bitartean (% 23,7 eta % 26,4, hurrenez hurren). Pertsona bakarreko familiek, berriz, nolabaiteko egonkortasuna erakutsi dute: % 22,0 2019an eta % 22,1 2021ean.

Nagusi diren familiak 2-4 pertsonakoak dira. 2021ean, etxebizitza aldatzeko beharra duten familia guttien % 66,3 izan dira; hau da, 2019an baino hiru hamarren gehiago (% 66,0 urte horretan) eta 2017an baino sei hamarren gutxiago (% 66,9 urte horretan).

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien tipologiari dagokionez, seme-alabak dituzten bikoteek osatutako familiek dute ehunekorik handiena. 2017tik 2019ra bitartean behera egin zuen ehuneko horrek (% 50,6 eta % 42,1, hurrenez hurren), baina 2021ean badirudi egonkortu egin dela (% 42,8).

64. taula: EAEn etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoak. 2009-2021

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Pertsona nagusiaren adina								
24 urtera bitarte	% 1,3	% 3,5	% 3,2	% 0,4	% 1,9	% 1,0	% 0,9	% 0,8
25-34 urte	% 26,2	% 18,0	% 22,0	% 15,8	% 11,7	% 11,1	% 14,2	% 15,6
35-44 urte	% 32,5	% 33,6	% 29,5	% 35,3	% 37,2	% 43,6	% 31,1	% 27,3
45-54 urte	% 20,8	% 22,4	% 23,9	% 22,0	% 25,5	% 24,5	% 27,1	% 28,6
55-64 urte	% 9,4	% 10,0	% 12,1	% 14,5	% 12,2	% 10,2	% 12,4	% 17,0
65 urte eta gehiago	% 9,7	% 12,5	% 9,3	% 12,1	% 11,5	% 9,6	% 14,4	% 10,8
Batez besteko adina (urteak)	43,7	45,8	44,4	47,3	47,3	46,2	48,1	47,9
Nazionalitatea								
Espainiakoa	% 84,8	% 84,8	% 89,8	% 83,5	% 90,4	% 88,3	% 85,5	% 84,4
Atzerrikoa	% 15,2	% 15,1	% 10,2	% 16,5	% 9,6	% 11,7	% 14,5	% 15,6
Familiako pertsonen kopurua								
Pertsona 1	% 20,4	% 18,1	% 24,6	% 13,6	% 17,9	% 18,7	% 22,0	% 22,1
2 pertsona	% 21,2	% 19,6	% 13,7	% 24,6	% 17,3	% 21,7	% 23,7	% 26,4
3 pertsona	% 20,9	% 24,2	% 28,2	% 27,8	% 31,6	% 22,9	% 21,1	% 19,8
4 pertsona	% 24,3	% 23,8	% 20,8	% 20,0	% 20,2	% 22,3	% 21,2	% 20,1
5 pertsona edo gehiago	% 13,2	% 14,3	% 12,8	% 14,0	% 13,0	% 14,4	% 12,0	% 11,6
Batez besteko kopurua (pertsonak)	3,0	3,0	2,8	3,0	3,0	3,0	2,8	2,8
Familien tipologia								
Bakarrik	% 19,7	% 18,1	% 24,6	% 13,6	% 17,9	% 18,7	% 22,0	% 22,1
Ezkontidearekin/bikotekidearekin	% 14,5	% 13,0	% 7,9	% 15,1	% 11,9	% 11,8	% 13,5	% 16,0
Ezkontidearekin/bikotekidearekin eta seme-alabekin (beste senide batzuekin edo gabe)	% 48,7	% 53,7	% 54,5	% 45,6	% 53,2	% 50,6	% 42,1	% 42,8
Aita/ama seme-alabekin	% 8,7	% 8,5	% 10,5	% 13,9	% 12,9	% 12,3	% 12,2	% 12,3
Beste egoera bat	% 8,5	% 6,8	% 2,6	% 11,9	% 4,1	% 6,7	% 10,2	% 6,8
Lan-egoera								
Landunak	% 57,3	% 55,9	% 57,9	% 51,7	% 62,0	% 65,7	% 69,2	% 65,6
Langabeak	% 15,2	% 16,1	% 16,5	% 22,9	% 14,4	% 13,0	% 9,9	% 17,2
Etxeke lanak egiten dituztenak	% 7,9	% 9,9	% 10,3	% 7,3	% 7,8	% 5,4	% 3,2	% 4,0
Erretirodunak / Pentsiodunak	% 11,4	% 15,5	% 10,3	% 16,2	% 14,6	% 13,1	% 15,1	% 12,1
Beste batzuk	% 8,1	% 2,6	% 5,0	% 1,9	% 1,1	% 2,7	% 1,1	% 1,1

*: Nazionalitate bikoitza Espainiako nazionalitatearen kategorian sartu da.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Aitak edo amak eta seme-alabek osatutako familien ehunekoa egonkortu egin da azken hiru edizioetan, eta % 12 baino handiagoa izan da. Bestalde, bikotekidearekin bizi diren pertsonen ehunekoak goranzko joerarekin jarraitu du, eta 2,5 puntu igo da 2019tik 2021era (% 13,5 eta % 16,0, hurrenez hurren).

Azkenik, etxebizitza aldatzeko beharra duten familietako pertsona nagusien lan-egoerari dagokionez, adierazi beharra dago pertsona horien % 65,6 landuna dela 2021. urtean. Ehuneko hori 2019koa baino 3,6 puntu txikiagoa bada ere (% 69,2 urte horretan), 2017ko edizioko balioetara itzuli da (% 65,7 urte horretan), eta horiek izan dira serieko hiru baliorik handienak.

Orobat, gora egin du langabeen ehunekoak: % 9,9 ziren 2019an, eta % 17,2 dira 2021ean. Erretirodunak edo pentsiodunak hirugarren tokian geratu dira (% 12,1 2021ean), azken bi urteetan 3 puntuko beherakada izan badute ere.

Ondorengo grafikoetan, etxebizitza aldatzeko beharra duten familietako pertsona nagusien batez besteko adinaren bilakaera eta familien batez besteko tamainarena (pertsona-kopuruari dagokionez) ageri dira. Datu horiek arestian aipatu ditugu.


32. grafikoa: EAEn etxebizitza aldatzeko beharra duten familietako pertsona nagusiaren batez besteko adina. 1997-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

33. grafikoa: EAEn etxebizitza aldatzeko beharra duten familien batez besteko tamaina. 1997-2021




(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Azpimarratu beharra dago 2021ean etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi duten familien herenak (% 35,6k) adierazi duela behar hori ez dela aldatzeko behar objektiboa eta zuzena, epe labur/ertainean etxea aldatzeko aukeraren balorazio bat baizik.

Joera hori lurralde historiko guztietan ikus daiteke. Bereziki handia izan da Araban (% 38,9) eta Bizkaian (% 37,5), eta handi samarra Gipuzkoan (% 31,0).


34. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ehunekoa, behar-egoeraren arabera. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2021ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek okupatutako etxebizitzaren ezaugarriak aztertuta egiaztatzen denez, etxebizitza horien batez besteko tamaina egonkortu egin da 2019tik 2021era (75,8 m² eta 75,2 m², hurrenez hurren). Nolanahi ere, 2017koak baino handiagoak dira (73,9 m² urte horretan), eta serieko baliorik handienak izan dira.

35. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitzek azaleraren arabera duten banaketak erakusten duenez, etxebizitza gehienek (% 59,0k) 76 m²-tik beherako azalera dute. Ehuneko hori 2019koa baino portzentajezko puntu bat txikiagoa da (% 60,0 urte horretan). 2019koa, nolanahi ere, 2017koa baino 5,4 puntu txikiagoa izan zen (% 65,4 urte horretan).

65. taula: EAEn etxebizitza aldatzeko beharra duten familien bizitegi-ezaugarriak. 2009-2021


	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Etxebizitzaren azalera erabilgarria								
60 m ² baino gutxiago	% 31,1	% 33,6	% 29,7	% 23,8	% 29,1	% 28,3	% 28,0	% 29,8
61-75 m ²	% 25,6	% 32,7	% 29,5	% 38,2	% 31,5	% 37,1	% 31,9	% 29,2
76-90 m ²	% 23,0	% 18,8	% 24,2	% 20,7	% 23,4	% 24,7	% 26,0	% 25,4
90 m ² baino gehiago	% 13,6	% 9,0	% 15,6	% 13,5	% 14,3	% 9,9	% 14,1	% 15,6
ED/EE	% 6,6	% 5,9	% 1,0	% 3,9	% 1,7	-	-	-
Batez besteko azalera (m²)	71,4	68,1	72,9	72,4	74,4	73,9	75,8	75,2
Etxebizitzaren antzinatasuna								
60 urte baino gehiago	% 14,8	% 15,1	% 16,2	% 23,1	% 14,5	% 19,4	% 20,6	% 27,2
41-60 urte	% 26,0	% 29,6	% 30,9	% 33,1	% 36,3	% 47,5	% 46,7	% 39,2
26-40 urte	% 26,1	% 28,3	% 33,7	% 11,9	% 13,6	% 8,8	% 12,0	% 9,3
16-25 urte	% 3,6	% 4,0	% 3,2	% 7,3	% 10,9	% 8,9	% 9,3	% 11,4
15 urte eta gutxiago	% 13,5	% 10,1	% 10,4	% 12,1	% 17,9	% 15,4	% 11,3	% 12,5
ED/EE	% 16,0	% 12,9	% 5,6	% 12,5	% 6,7	-	-	-
Batez besteko antzinatasuna (urte kopurua)	39,0	40,6	40,4	42,7	39,2	44,9	48,9	49,1
Urte kopurua etxebizitzan								
2 urte eta gutxiago	% 11,2	% 15,7	% 10,2	% 19,7	% 10,4	% 14,3	% 14,8	% 14,0
3-4 urte	% 20,9	% 11,4	% 15,4	% 6,5	% 11,4	% 14,2	% 14,4	% 16,6
5-9 urte	% 24,0	% 21,3	% 17,6	% 22,0	% 23,3	% 23,3	% 21,2	% 23,4
10 urte eta gehiago	% 44,0	% 51,5	% 56,8	% 51,8	% 54,9	% 48,2	% 49,7	% 46,0
Lehen etxebizitza								
Bai	% 57,1	% 58,7	% 50,7	% 45,4	% 54,0	% 44,4	% 57,0	% 47,9
Ez	% 42,6	% 41,3	% 49,3	% 54,6	% 46,0	% 55,6	% 43,0	% 50,9
ED/EE	-	-	-	-	-	-	-	% 1,2
Etxebizitzaren izaera								
Berria	% 16,1	% 20,3	% 21,6	% 20,7	% 26,6	% 18,6	% 22,3	% 16,4
Erabilia	% 83,9	% 79,7	% 78,4	% 79,3	% 73,4	% 81,4	% 77,7	% 83,6
Etxebizitza babestua								
Bai	% 10,6	% 13,5	% 11,1	% 10,0	% 16,2	% 11,9	% 13,4	% 14,5
Ez	% 89,4	% 86,5	% 88,9	% 90,0	% 83,8	% 88,2	% 86,6	% 85,5
Etxebizitza-mota								
Eraikin kolektiboa	% 96,8	% 98,7	% 98,8	% 95,9	% 95,8	% 96,4	% 96,8	% 98,0
Familia bakarreko eraikina	% 3,2	% 1,3	% 1,2	% 4,1	% 4,2	% 3,6	% 3,2	% 2,0
Ukaite-erregimena								
Jabetzan, erabat ordaindua	% 29,7	% 32,9	% 35,9	% 28,1	% 29,9	% 19,8	% 22,9	% 24,4
Jabetzan, ordainketa batzuk egiteko	% 26,2	% 27,4	% 26,0	% 29,1	% 33,0	% 32,6	% 31,2	% 23,8
Alokatua	% 38,7	% 33,4	% 32,8	% 35,1	% 34,2	% 41,2	% 39,3	% 48,7
Beste egoera bat (lagatakoa eta abar)	% 5,5	% 6,4	% 5,2	% 7,6	% 3,0	% 6,3	% 6,6	% 3,1

*: Nazionalitate bikoitza Espainiako nazionalitatearen kategorian sartu da.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Antzinasuna kontuan hartuta, aldatzeko beharra duten familiek okupatutako etxebizitzak duela 49,1 urte eraiki dira, batez beste. Batezbesteko hori 2019koa (48,9 urte) baino handixeagoa da, eta 2017koa (44,9 urte) baino lau urte handiagoa. 2021eko 49,1 urteko batezbestekoa zifrarik handiena da 1997. urteaz geroztik.

36. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko antzinasunaren bilakaera. 1997-2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021. urtean, 41-60 urte dituzten etxebizitzaren ehunekoa nabarmendu da (% 39,2), 2019koaren aldean 7,5 puntu murriztu bada ere (% 46,7 urte horretan). Etxebizitzarik zaharrenak (60 urtetik gorakoak) bigarren tokian geratu dira berriz ere (% 27,2 2021ean), eta goranzko joerarekin jarraitu dute (serieko pisu erlatiborik handiena izan da). Hortaz, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 66,4k 40 urtetik gorako etxebizitza du.

Talde nagusia etxebizitzan 10 urte eta gehiago daramatzaten biztanleena da (% 46,0), baina 3,7 puntu galdu ditu 2019. urtearekin alderatuta (% 49,7 urte horretan). Era berean, 8 hamarrenetan murriztu dira etxebizitza aldatzeko eskariak etxebizitzan 2 urte edo gutxiago daramatzatenean artean (% 14,8 2019an eta % 14,0 2021ean).


Bitarteko taldeek, berriz, portzentajezko 2,2 puntuko igoera izan dute bi kasuetan: 5-9 urte daramatzaten pertsonak % 21,2 ziren 2019an, eta % 23,4 dira 2021ean; 3-4 urte daramatzatenak, berriz, % 14,4 ziren 2019an, eta % 16,6 dira 2021ean.

Azkenik, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean, bereziki esanguratsua da etxebizitza jabetzan duten eta ordainketa batzuk egiteko dituzten familien ehunekoak azken urteotan izan duen beheranzko joera. Familia horien pisu erlatiborik handiena 2015ekoa da (% 33,0). Harrezkero, behera egin du, eta serieko baliorik txikiena izan du 2021ean (% 23,8).

Nolanahi ere, aldatzeko beharra duten familien artean, etxebizitza alokairu-erregimenean dutenak dute ehunekorik handiena. 2021ean, ehuneko hori % 48,7ra iritsi da, eta etxebizitza jabetzan duten familien ehunekoa baino handiagoa izan da (% 48,2), etxebizitza guztiz ordainduta dutenak (% 24,4) zein ordainketak egiteko dituztenak (% 23,8) kontuan hartuta.

Etxebizitza alokairu-erregimenean duten familien ehunekoak portzentajezko 9 puntutik gorako igoera izan du 2021ean (9,4 puntukoa), 2019koarekin alderatuta (% 39,3 urte horretan), eta baliorik handiena lortu du 1997az geroztik, etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi duten familien artean.

37. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten eta alokairu-erregimenean duten familien bilakaera, 1997-2021




(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

3.2.2. Aldatzeko beharraren arrazoiak

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean, hirutik batek (% 33,3k) adierazi du beharraren arrazoi nagusia etxebizitzaren tamaina desegokia dela. Etxebizitzaren egoera txarra eta irisgarritasuna hobetzeko asmoa aipatu dutenak ere kontuan hartuta (% 12,7 bi kasuetan), etxebizitza aldatzeko beharra duten familien erdiak baino gehiago dira (% 58,7). Beste arrazoi nagusi azpimarragarri batzuk alokairu merkeagoa lortzeko beharra (% 11,5) eta etxebizitza bat jabetza-erregimenean nahi izatea (% 11,1) dira.

38. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak, arrazoi nagusiaren arabera. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

2021. urtean arrazoi nagusi gisa etxebizitzaren tamaina desegokia aipatu dutenen ehunekoak joera egonkor samarra agertu du azken urteotan, eta arrazoi hori lehen aldaketa-faktorea izan da 2007. urteaz geroztik.

**66. taula: Etxebizitza aldatzeko beharren arrazoia, EAE. 2007-2021**

(Etxebizitzen kopurua eta beharra duten familia guztiekiko ehunekoak)

	2007		2009		2011		2013		2015		2017		2019		2021	
	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%
Guztira	113.396	% 100	56.652	% 100	38.048	% 100	61.621	% 100	53.132	100%	75.970	100%	83.410	100%	82.327	100%
Tamaina desegokia	33.633	% 29,7	14.184	% 25,0	10.281	% 27,0	20.390	% 33,1	17.215	% 32,4	28.595	% 37,6	26.318	% 31,6	27.412	% 33,3
Egoera txarra	8.278	% 7,3	4.474	% 7,9	3.471	% 9,1	5.102	% 8,3	6.252	% 11,8	7.018	% 9,2	9.481	% 11,4	10.454	% 12,7
Irisgarritasuna hobetzea	23.428	% 20,7	7.958	% 14,0	5.974	% 15,7	6.847	% 11,1	9.062	% 17,1	10.944	% 14,4	11.990	% 14,4	10.473	% 12,7
Kokapen txarra	9.525	% 8,4	3.028	% 5,3	2.657	% 7,0	4.069	% 6,6	4.029	% 7,6	6.943	% 9,1	7.461	% 8,9	5.626	% 6,8
Jabetzan nahi izatea	9.525	% 8,4	5.905	% 10,4	2.232	% 5,9	2.446	% 4,0	1.980	% 3,7	3.528	% 4,6	8.946	% 10,7	9.106	% 11,1
Dibortzioa, banantzea	680	% 0,6	1.264	% 2,2	1.227	% 3,2	1.105	% 1,8	416	% 0,8	696	% 0,9	1.829	% 2,2	1.924	% 2,3
Lanlekuarekiko hurbiltasuna	567	% 0,5	470	% 0,8	238	% 0,6	2.033	% 3,3	3.211	% 6,0	1.892	% 2,5	1.390	% 1,7	1.691	% 2,1
Alokairu merkeagoa nahi izatea	11.782	% 10,4	6.628	% 11,7	5.897	% 15,5	10.576	% 17,2	5.205	% 9,8	9.781	% 12,9	8.687	% 10,4	9.443	% 11,5
Beste arrazoi bat	15.977	% 14,1	12.742	% 22,5	6.071	% 16,0	9.054	% 14,7	5.763	% 10,8	6.574	% 8,7	7.308	% 8,8	6.198	% 7,5

Iturria: *Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Irisgarritasun hobearen duen etxebizitza bilatzea bigarren tokian geratu da berriz, baina etxebizitzaren egoera txarrarekin berdinduta, arrazoi horrek azken bi edizioetan behera egin duelako (–% 12,7ko aldakuntza-tasa) eta egoera txarraren faktorearen ehunekoak gora egin duelako (% 10,3ko aldakuntza-tasa). Aurreko edizioarekin alderatuta aldakuntzarik handiena izan duen arrazoia kokapen txarra izan da. Izan ere, ehunekoaren laurdena galdu du azken bi urteotan (–% 24,6).

67. taula: Etxebizitza aldatzeko beharren arrazoiaren aldakuntza, EAE. 2007-2021 eta 2017-2021

(Etxebizitzen kopurua eta beharra duten familia guztiekiko ehunekoak)

	2007-2021 aldiko aldakuntza				2019-2021 aldiko aldakuntza			
	Absolutuak		Tasa (%)		Absolutuak		Tasa (%)	
	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.
Guztira		-31.069		-% 27,4		-1.083	% 0,0	
Tamaina desegokia	% 3,6	-6.221	% 12,3	-% 18,5	% 1,7	1.094	% 5,5	% 4,2
Egoera txarra	% 5,4	2.176	% 73,9	% 26,3	% 1,3	973	% 11,7	% 10,3
Irisgarritasuna hobetzea	-% 7,9	-12.955	-% 38,4	-% 55,3	-% 1,7	-1.517	-% 11,5	-% 12,7
Kokapen txarra	-% 1,6	-3.899	-% 18,6	-% 40,9	-% 2,1	-1.835	-% 23,6	-% 24,6
Jabetzan nahi izatea	% 2,7	-419	% 31,7	-% 4,4	% 0,3	160	% 3,1	% 1,8
Dibortzioa, banantzea	% 1,7	1.244	% 289,7	% 182,9	% 0,1	95	% 6,6	% 5,2
Lanlekuarekiko hurbiltasuna	% 1,6	1.124	% 310,8	% 198,2	% 0,4	301	% 23,3	% 21,7
Alokairu merkeagoa nahi izatea	% 1,1	-2.339	% 10,4	-% 19,9	% 1,1	756	% 10,1	% 8,7
Beste arrazoi bat	-% 6,6	-9.779	-% 46,6	-% 61,2	-% 1,2	-1.110	-% 14,1	-% 15,2

Iturria: *Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

39. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoi nagusien bilakaera, 2008-2021

(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, lagingaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

3.2.3. Ingurunearekiko/auzoarekiko gogobetetze-maila

Ingurunearekiko edo auzoarekiko gogobetetzerik eza ez da nabarmendu EAEko familien aldaketa-beharraren faktore esanguratsu gisa. Ildo horretan ikusten denez, aldatzeko beharra duten familien % 71,9k bere auzoari buruzko iritzi positiboa du. Familia horien artean, % 38,9k adierazi du gogobetetze-maila handia duela, eta % 33,0k, berriz, gogobetetze-maila handi samarra duela.

68. taula: Ingurunearekiko/auzoarekiko gogobetetze-maila. 2009-2021

Gogobetetze-maila	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 44,2	% 47,6	% 35,3	% 44,7	% 46,3	% 48,6	% 42,8	% 38,9
Handi samarra	% 32,2	% 33,9	% 47,0	% 33,8	% 31,2	% 32,2	% 32,8	% 33,0
Txiki samarra	% 15,0	% 10,4	% 9,2	% 11,3	% 17,0	% 12,7	% 14,8	% 18,0
Txikia	% 8,6	% 8,0	% 8,5	% 10,2	% 5,6	% 6,5	% 9,5	% 10,1

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Edonola ere, iritzi positibo orokorrak (gogobetetze-maila handiak eta handi samarrak) behera egin du azken edizioetan: % 80,8 zen 2017an, % 75,6 2019an, eta % 71,9 2021ean.

Oro har, ingurunean edo auzoan dauden problematikak neurtzen dituzten adierazle guztiek 2019an baino balorazio hobeak jaso dituzte, kanpoko zaraten adierazleak izan ezik. Zarata horiek aipatu ditu, 2021ean, aldatzeko beharra duten familien % 35,0k; ehuneko hori 2019koa baino portzentajezko 2 puntu handiagoa izan da (% 32,9 urte horretan).

69. taula: EAEn etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ingurunean/auzoan detektatutako arazoen balorazioa. 2009-2021

Ingurune / auzoko arazoak**	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Kanpoko zaratak	% 30,9	% 36,9	% 31,9	% 33,3	% 28,1	% 24,0	% 32,9	% 35,0
Kutsadurari/usain txarrei lotutako arazoak	% 17,8	% 24,4	% 15,2	% 21,8	% 15,4	% 11,4	% 22,8	% 19,7
Mantentze-lanik eza	% 20,7	% 21,1	% 16,1	% 22,2	% 13,0	% 12,4	% 22,0	% 14,0
Garbiketa/zabor-bilketa urria	% 12,3	% 12,5	% 14,4	% 16,5	% 11,3	% 11,8	% 15,9	% 14,5
Komunikazio/garraibide txarrak	% 21,8	% 14,5	% 18,6	% 18,8	% 8,9	% 13,1	% 16,1	% 15,9
Berdegune gutxi	% 31,6	% 25,1	% 21,1	% 27,5	% 11,8	% 13,0	% 17,8	% 11,6
Aparkatzeko arazoak	% 70,7	% 68,6	% 67,0	% 59,5	% 41,1	% 48,6	% 63,5	% 51,5
Zerbitzu gutxi	% 24,5	% 22,5	% 20,6	% 27,0	% 16,6	% 14,1	% 25,8	% 24,7
Irisgarritasunik eza	% 46,3	% 43,1	% 27,1	% 37,2	% 16,1	% 17,2	% 27,5	% 21,9
Delinkuentziari/segurtasunik ezari lotutako arazoak	% 28,2	% 30,2	% 23,9	% 28,1	% 14,7	% 16,8	% 27,3	% 24,6

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

(**): Erantzun bat baino gehiago eman daiteke.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021eko balorazioan, aparkalekurik eza izan da, berriz ere, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ingurunean edo auzoko arazorik handiena pertsona gehienentzat (% 51,5entzat).

40. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ingurunean/auzoan detektatutako arazoaren balorazioa, 2021.



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Sailkapen horretan, adierazitako kanpoko zaratak geratu dira bigarren tokian (% 35,0), eta serieko bigarren baliorik handiena izan dute, 2010ekoaren atzetik (urte horretan, aldatzeko beharra zuten familien % 36,9k aipatu zituen).

Bestalde, arazo hauek ere azpimarra daitezke: zerbitzu gutxi (% 24,7), delinkuentziari edo segurtasunik ezari lotutako arazoak (% 24,6) eta irisgarritasunik eza (% 21,9).

3.2.4. Beharraren maila subjektiboa eta eskari-epeak

Atal honetan, etxebizitza aldatzeko beharraren ezaugarriak jorratzen dira, zenbait aldagai aztertuta, hala nola aldatzeko beharra duten familiek hautemandako behar-maila subjektiboa, behar-egoeran daramaten denbora eta etxebizitza aldatzeko aurreikusitako epeak.

Aldatzeko beharraren mailari dagokionez, familien % 65,1ek adierazi du behar handia edo handi samarra duela (% 32,8k eta % 32,3k, hurrenez hurren). Familien % 28,1ek adierazi du aldatzeko behar txiki samarra duela, eta % 7k, berriz, behar txikia duela.

70. taula: Etxebizitza aldatzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2021


Behar-maila*	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 39,3	% 34,8	% 32,5	% 33,7	% 30,4	% 48,4	% 31,3	% 32,8
Handi samarra	% 36,2	% 38,4	% 37,4	% 40,5	% 34,5	% 28,1	% 31,4	% 32,3
Txiki samarra	% 21,3	% 20,5	% 25,0	% 21,9	% 25,9	% 16,3	% 24,6	% 28,1
Txikia	% 3,2	% 6,2	% 5,1	% 3,8	% 9,2	% 7,3	% 12,7	% 6,8
Batez besteko maila⁸ (0-100)	70,2	67,0	65,4	67,7	61,7	72,3	60,1	63,4

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Behar handiari edo handi samarrari lotutako ehuneko hori (% 65,1) igo egin da, 2019an 2017ko ehunekoarekin alderatuta izan zen beherakada handiaren ondoren (% 62,7 eta % 76,4, hurrenez hurren).

41. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharraren mailaren bilakaera (behar handia edo handi samarra), 1997-2021



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

⁸ Batez besteko behar-maila 0tik 100erako eskala batean zehazten da. Elkarrizketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuak dagozkien erantzunen batezbestekoa islatzen du, honako eskala honi jarraikiz: handia (100), handi samarra (66), txiki samarra (33) eta txikia (0).

Beharraren denborari edo antzinatasunari dagokionez, familien % 31,4k lau urte baino gehiago daramatzate behar-egoera horretan. Egoera horretan gutxienez bi urte daramatzaten familiak % 50,7 dira, 2-4 urte daramatzaten familien ehunekoa (% 19,3) kontuan hartuta.

71. taula: Etxebizitza aldatzeko beharrean emandako denbora. 2009-2021


Behar-egoeran daramaten denbora	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Urte 1 baino gutxiago	% 23,4	% 18,4	% 14,9	% 18,9	% 23,4	% 27,7	% 25,0	% 24,3
1-2 urte	% 27,2	% 26,4	% 23,8	% 23,0	% 29,6	% 30,9	% 32,5	% 25,0
2-4 urte	% 17,5	% 19,5	% 24,3	% 25,5	% 20,5	% 21,8	% 16,0	% 19,3
4 urte baino gehiago	% 31,9	% 35,7	% 37,0	% 32,6	% 26,5	% 19,5	% 26,5	% 31,4
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza aldatzeko behar-egoeran gutxienez bi urte daramatzaten familien ehunekoa behera egin zuen 2017an (% 41,3), igoera txiki bat izan zuen 2019an (% 42,5), eta 8 puntuko igoera izan du 2021ean (% 50,7), egoera horretan lau urte baino gehiago daramatzaten familien ehunekoa izan duen gorakadaren ondorioz. Izan ere, % 31,4ra iritsi da, eta 2013ko ehunekora hurbildu da (% 32,6 urte horretan), 2015eko, 2017ko eta 2019ko gutxienekoak gainditu ondoren (% 26,5, % 19,5 eta % 26,5, hurrenez hurren).

42. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharrean emandako denbora (> 4 urte). EAE. 1997-2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza aldatzeko aurreikusitako epea aztertuta ikus daitekeenez, aldatzeko beharra duten familien % 39,2k uste du aukera oso handia edo handi samarra duela hurrengo bi urteetan aldatzeko (% 13,8k oso handia eta % 25,3k handi samarra).

Proportzio hori % 56,5era iristen da epea lau urtera luzatzen bada: % 39,4k uste du oso aukera handia duela, eta % 17,1ek, berriz, handi samarra.

72. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak: etxebizitza bi eta lau urteko epeetan aldatzeko aukera. 2021


Aldatzeko aukera	2 urteko epean aldatzeko aukera	4 urteko epean aldatzeko aukera
Oso handia	% 13,8	% 39,4
Handi samarra	% 25,3	% 17,1
Txiki samarra	% 43,4	% 32,7
Aukerarik ez	% 17,5	% 10,8
GUZTIRA	% 100	% 100

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Bi egoeretan, beherakada handia izan da 2019ko zifrekin alderatuta. Bi urteko epean aldatzeko aukeraren kasuan, zortzi portzentaje-puntutik gorako beherakada gertatu da (% 47,5 2019an eta % 39,2 2021ean), eta lau urteko epean aldatzeko aukeraren kasuan, berriz, portzentajezko 6 puntutik gorakoa (% 62,9 2019an eta % 56,5 2021ean).

43. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak: etxebizitza bi eta lau urteko epeetan aldatzeko aukeraren bilakaera (aukera oso handia edo handi samarra). EAE. 1998-2021




Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza lau urteko epean aldatzeko aukera oso handia edo handi samarra dutela adierazi duten familien % 59,5ek etxebizitza **aktiboki bilatu** du 2021ean. Ehuneko hori 2019koa baino ia portzentajezko 4 puntu handiagoa da (% 55,8 urte horretan). Nolanahi ere, 2019an portzentajezko 14 puntuko beherakada gertatu zen 2017ko edizioako datuekin alderatuta (% 69,7 urte horretan). Horrela, beraz, 2021eko ehunekoa 2015eko mailetara iritsi da (% 59,5 urte horretan).

44. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten eta etxebizitza aktiboki bilatzen ari diren pertsonen bilakaera. EAE. 1998-2021

Oinarria: Etxebizitza 4 urteko epean aldatzeko aukera oso handia edo handi samarra



* 2009. urteatik aurrera, aldatzea metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

3.2.5. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak

Etxebizitza aldatu nahi duten familiek behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak dagokienez, azpimarratu beharra dago familia horien artean etxebizitza berria zein erabilia aukeratu dutenen ehuneko handia (% 73,8).

73. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak. 2009-2021

Ezaugarriak	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Izaera*								
Berria	% 24,1	% 16,6	% 15,7	% 14,1	% 12,3	% 12,7	% 12,7	% 14,5
Erabilia	% 34,1	% 13,4	% 35,7	% 9,1	% 11,9	% 12,0	% 11,1	% 9,3
Bata zein bestea	% 37,9	% 61,2	% 47,2	% 73,5	% 69,2	% 73,5	% 67,4	% 73,8
ED/EE	% 3,9	% 8,8	% 1,4	% 3,4	% 6,6	% 1,7	% 8,8	% 2,4
Azalera erabilgarria*								
60 m ² baino gutxiago	% 15,1	% 18,8	% 16,9	% 15,1	% 18,5	% 19,6	% 15,0	% 17,6
61-75 m ²	% 28,5	% 22,3	% 29,6	% 25,1	% 17,2	% 23,3	% 21,4	% 22,3
76-90 m ²	% 30,6	% 28,5	% 30,8	% 35,3	% 37,7	% 43,5	% 34,8	% 37,2
90 m ² baino gehiago	% 18,3	% 21,8	% 20,6	% 20,1	% 23,6	% 11,2	% 21,1	% 21,3
ED/EE	% 7,4	% 8,6	% 2,2	% 4,5	% 2,9	% 2,4	% 7,7	% 1,6
Batez besteko azalera (m²)	77,6	78,1	77,5	79,1	81,7	78,6	81,6	83,1
Ukaite-erregimena*								
Jabetza	% 64,9	% 62,9	% 65,7	% 51,7	% 54,2	% 53,6	% 51,8	% 51,4
Alokairua	% 27,0	% 24,8	% 26,5	% 35,1	% 28,5	% 37,4	% 36,1	% 37,7
- Erostea aukerarik gabe	-	-	-	-	% 20,3	% 27,9	% 21,6	% 24,8
- Erostea aukerarekin	-	-	-	-	% 8,2	% 9,5	% 14,5	% 12,9
Bata zein bestea	% 8,1	% 12,3	% 7,8	% 13,2	% 17,3	% 9,1	% 12,1	% 10,9

(*) Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Beharra duten familien % 14,5ek etxebizitza berria nahiago du, eta % 9,3k, berriz, etxebizitza erabilia.

2019. urtearekin alderatuta, etxebizitza berria zein erabilia nahi duten familien ehunekoak igoera txiki bat izan du (% 67,4 urte horretan). Era berean, gora egin du egungo etxebizitza ordeztzeko etxebizitza berria nahiago dutenen ehunekoak (% 12,7 ziren 2019an). Etxebizitza erabilia nahiago duten familien ehunekoak, berriz, ia 2 puntuko beherakada izan du azken bi urte hauetan (% 11,1 2019an eta % 9,3 2021ean).

Bestalde, etxebizitzaren azalerari dagokionez, gehien eskatu diren etxebizitzak, berriz ere, 76 eta 90 m² bitartekoak izan dira. 2021. urtean, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 37,2k adierazi du tamaina hori nahi duela etxebizitza berrirako. Ehuneko hori 2019koa baino ia 2,5 puntu handiagoa da (% 34,8 urte horretan), 2017koa baino 6 puntu txikiagoa bada ere (% 43,5 urte horretan).

Nahi den batez besteko azalera 83,1 m² izan da 2021ean. Azalera hori hirugarren erregistrorik handiena da 2000. urteaz geroztik (85,9 m² urte horretan), eta bigarren erregistrotik oso hurbil kokatu da (83,8 m² 2002an).

45. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek nahi duten batez besteko azaleraren bilakaera. EAE. 1997-2021



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


Etxebizitzaren ukaite-erregimenari dagokionez, etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek gehien eskatutako aukera jabetza izan da berriz ere (% 51,4k eskatu du). Nolanahi ere, ehuneko horrek beheranzko joera nabarmena hartu du, eta baliorik txikiena izan du azken edizio honetan.

Aitzitik, alokairua nahiago duten familien ehunekoak bere baliorik handiena lortu du 2021ean (% 37,7), eta 1,5 puntutik gorako igoera izan du 2019ko ehunekoarekin alderatuta (% 36,1 urte horretan). Horrela, beraz, eten egin da adierazle horrek azken edizioetan izan duen beheranzko joera.

2021ean alokairua nahiago dutela adierazi duten familien barruan, % 24,8k erosteko aukerarik gabeko alokairua nahi du, eta % 12,9k, berriz, erosteko aukera duen alokairua.

Alokairua nahiago duten familiak eta alokairua zein jabetza aukeratu dutenak batuta, proportzioa zertxobait handitu azken bi urteetan: % 48,2 2019an eta lau hamarren gehiago 2021ean (% 48,6). 2013ko edizioaz geroztik (% 48,3 urte horretan), aukera bikoitz horren ehunekoak gora egin du nabarmen, nahiz eta serieko lehen urteetako ehunekoetatik oso urrun.

46. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek alokairu-etxebizitza batera (alokairua + bata zein bestea) aldatzeko duten beharraren bilakaera. EAE. 1997-2021



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Nolanahi ere, gogoan izan beharra dago jabetzaren erreferentzia oso deigarria dela oraindik. Jabetza nahiago duten familiak (% 51,4), berariazko lehentasunik adierazten ez dutenak (bata zein bestea: % 10,9) eta erosteko aukera duen alokairua nahiago dutenak (% 12,9) batuta, jabetza erreferentziatzeko elementua da etxebizitza aldatzeko beharra duten lau familietako hirurentzat (% 75,2rentzat).

Etorkizuneko etxebizitzaren kokapenari dagokionez, % 21,4k auzo berean geratu nahi du, eta % 50,7k, udalerri berean. Balio horiek aurreko ediziokoen antzekoak dira.

Hortaz, familien % 23,7k udalerritik kanpo ere bila dute etxebizitza, eskualde berean (% 18,6) edo beste batean (% 5,1).

74. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek behar dituzten etxebizitzaren kokapena. 2009-2021

Etxebizitzaren lekua	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Auzo berean	% 30,8	% 30,6	% 28,5	% 29,6	% 30,2	% 30,5	% 22,6	% 21,4
Udalerri berean	% 49,2	% 50,7	% 54,3	% 51,5	% 48,9	% 49,1	% 49,6	% 50,7
Eskualde berean	% 10,5	% 13,0	% 10,7	% 13,6	% 11,8	% 13,9	% 17,8	% 18,6
Beste eskualde batean	% 4,2	% 3,9	% 2,9	% 4,0	% 6,3	% 4,6	% 5,0	% 5,1
ED/EE	% 5,4	% 1,8	% 3,6	% 1,3	% 2,8	% 1,9	% 5,0	% 4,2

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


3.3. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien finantza-ahalmena

3.3.1. Diru-sarrerren maila

2021ean, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien hileko diru-sarrera garbiak 2.133,5 euro izan dira batez beste⁹. Horrela, beraz, % 1,4ko igoera izan da 2019ko erregistroarekin alderatuta (2.104,9 euro urte horretan).

Epe luzea kontuan hartuta, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien hileko diru-sarrerren mailak 1999an hasitako goranzko joerari eutsi dio. Joera hori, 2009an (1.511,4 €) eta 2013an (1.290,5 €) izan ezik, gainerako edizio guztietan agertu da, eta 2021ean mailarik handienara iritsi da, termino arruntetan.

47. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarrerren bilakaera. 1998-2021



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Familien banaketa aitortutako diru-sarrerren tartearen arabera aztertuta ikusten denez, familien % 45,2 ez da 1.650 eurora iritsi, eta ehuneko horrek portzentajezko 9,7 puntuko igoera izan du 2019. urtearekin alderatuta (% 35,4 urte horretan). Hala ere, kontuan hartu behar da, orobat, 2021ean erantzun ez dutenak gutxiago izan direla (ED/EE: % 7,8 2021ean eta % 22,3 2019an). Era berean, gora egin du hilean 2.160 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten familien ehunekoak (% 28,9 2019an eta % 36,4 2021ean).

75. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarrerren maila. 2009-2021

Hileko diru-sarrera garbiak	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
840 eurora bitarte	% 14,2	% 11,6	% 8,2	% 16,7	% 12,5	% 9,3	% 5,7	% 9,0
841-1.140 euro	% 10,7	% 10,2	% 12,3	% 20,2	% 12,0	% 12,2	% 11,1	% 11,5
1.141-1.410 euro	% 11,1	% 16,6	% 10,8	% 10,3	% 10,5	% 11,3	% 8,9	% 14,2
1.411-1.650 euro	% 7,0	% 10,8	% 9,0	% 8,4	% 6,9	% 7,8	% 9,8	% 10,5
1.651-2.160 euro	% 7,9	% 11,7	% 11,7	% 11,7	% 11,4	% 11,9	% 13,3	% 10,5
2.160 euro baino gehiago	% 16,1	% 18,8	% 20,6	% 22,1	% 33,5	% 36,4	% 28,9	% 36,4
ED/EE	% 32,9	% 20,3	% 27,4	% 10,5	% 13,3	% 11,0	% 22,3	% 7,8
Batezbestekoa (€)	1.511,4	1.585,7	1.776,6	1.690,5	1.964,9	1.975,9	2.104,9	2.133,5

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


⁹ Diru-sarrerak etxebizitza berria ordaintzen lagunduko duten pertsona guztienak dira.

3.3.2. Hilean ordaintzeko ahalmena eta ordaindu daitekeen gehieneko prezioa

2021. urtean, familiek etxebizitza aldatzeko hilean batez beste ordaindu dezaketen zenbatekoa 547,9 euro da hilean, eta, beraz, etxebizitza berria finantzatzeko baliabide ekonomikoek % 1,2ko igoera izan dute 2019. urtearekin alderatuta (541,5 euro urte horretan).

2019tik 2021era hilean ordaintzeko ahalmenean ikusitako igoerak bere horretan jarraitu du 2008. urteaz geroztik izandako goranzko joeran (urte horretan lehen aldiz gainditu zen hileko 500 euroko zenbatekoa). Nolanahi ere, hurrengo urteetan zifrak 500 eurotik beherakoak izan ziren berriz ere, eta ez zuten zenbateko hori gainditu 2015era arte (524,3 euro hilean urte horretan). Azken bi edizioetan, berriz, 540 euroko zenbatekoa gainditu da.

48. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek hilean ordaintzeko duten ahalmenaren bilakaera, 1998-2021




* 2009. urtetik aurrera, aldageta metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Azterketan aurreikusitako ukaite-erregimenari eta behar-motari erreparatuz gero, ñabardura batzuk agertzen dituzte emaitzek.

Behar-motari dagokionez, etxebizitza aldatzeko beharra dutela uste duten familiek batez besteko balioa baino gastu-ahalmen txikiagoa dutela ikus daiteke: 490,0 euro (batez besteko zenbatekoa 547,9 euro da). Aitzitik, beharra kontuan hartu gabe etxebizitza epe labur edo ertainean aldatzeko asmoa duten familien gastu-ahalmena, berriz, nabarmen handiagoa da: 662,4 euro.

49. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek hilean ordaintzeko duten ahalmena, aurreikusitako ukaite-erregimenaren eta behar-motaren arabera. 2021




Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Aurreikusitako ukaite-erregimenaren kasuan ere alde esanguratsuak ikus daitezke. Adibidez, jabetza-erregimena nahiago duen taldeak du gastu-ahalmenik handiena (638,0 €). Batezbestekoaren azpitik, alokairua zein jabetza aukeratu duten familiak (518,7 euro) eta erosteko aukera duen alokairua nahiago dutenak (490,0 euro) kokatu dira. Hilean ordaintzeko ahalmenik txikiena dutenak erosteko aukerarik gabeko alokairua nahiago duten familiak dira: 420,8 euro.

2021. urtean, batez besteko diru-sarreraren maila kontuan hartuta familiek ordaintzeko duten ahalmenari (**finantza-ahaleginari**) dagokionez, familiek diru-sarrera garbien % 25,7 erabiliko lukete etxebizitza berria ordaintzeko. Zifra hori 2019koa bera da, eta 2017koa baino portzentajezko 0,7 puntu txikiagoa (% 26,4 urte horretan).

50. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien finantza-ahaleginaren bilakaera, 1998-2021




* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bilakaerari dagokionez, badirudi azken edizioetan diru-sarreraren laurdenaren inguruan egonkortu dela finantza-ahalegina. Edonola ere, serieko baliorik txikiak izan dira.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek etxebizitza aldatzeko **batez beste ordaindu dezaketen gehieneko prezioa** 233.903 eurora iritsi da 2021ean.

51. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek ordain dezaketen gehieneko prezioaren bilakaera. 1998-2021 (**)



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

** 2009tik 2013ra bitarte, ez dira kontuan hartu alokairuaren ukaite-erregimena baino nahi ez duten familiak. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea.**

** 2015. urteaz geroztik, ez dira kontuan hartzen erosteko aukerarik gabeko alokairuaren ukaite-erregimena baino nahi ez duten familiak. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetza, alokairua erosteko aukerarekin, edo bata zein bestea.**


Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Zenbateko horrek % 11,5eko igoera izan du 2019ko 209.865 euroekin alderatuta (24.038 euro gehiago), eta serieko baliorik handiena izan da.

Berriz ere, alde esanguratsuak daude etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek ordaindu dezaketen gehieneko prezioan eta nahi duten ukaite-erregimenean. Etorkizuneko etxebizitzaren ukaite-erregimena jabetza izatea nahi duten familien kasuan, batez besteko gehieneko prezioa 264.305 euro da (2021eko batez besteko balioa baino 30.400 euro gehiago). Jabetza zein alokairua nahi duten familien kasuan, 149.953 euro da, eta erosteko aukera duen alokairua nahi dutenen kasuan, berriz, 143.201 euro.

52. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten pertsonak ordain dezaketen gehieneko prezioa, aurreikusitako ukaite-erregimenaren arabera. 2021

Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea



* 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Behar-motari dagokionez, etxebizitza aldatu nahi izateko arrazoi objektiboren bat dutela uste dutenek ordaindu dezaketen gehieneko prezioa batezbestekoa baino txikiagoa da (177.012 euro eta 233.903 euro, hurrenez hurren). Beharra kontuan hartu gabe etxebizitza epe labur edo ertainean aldatzeko asmoa dutenek ordaindu dezaketen gehieneko prezioa, berriz, alderatutako kolektibo guztien arteko handiena da (298.224 euro).

Etxebizitza epe labur edo ertainean aldatzeko asmoa duten familiek gainerako kategoriakoek baino finantza-ahalmen handiagoa dutelako sortu dira alde horiek. Ildo horretan, familia horiek diru-sarrerarik handienak dituzte (2.819,4 euro, batez beste), hilean ordaintzeko ahalmenik handiena dute (662,4 euro, batez beste) eta finantza-ahaleginik txikiena egin beharko lukete (diru-sarreraren % 23,5). Egoera horren ondorioz, prezio handiagoko etxebizitzak eskuratu ditzakete (298.224 eurokoak, batez beste).

Antzekoa gertatzen da etxebizitza jabetzan eskatzen duten familien kasuan: diru-sarrerarik handienak dituzte gainerako erregimenak aukeratu dituztenekin alderatuta (2.713,4 euro, batez beste), hilean ordaintzeko ahalmen handiagoa dute (638,0 euro batez beste) eta finantza-ahalegin txikiagoa egin beharko lukete (diru-sarreraren % 23,5). Hori dela eta, 264.305 euroko etxebizitzak eskuratu ditzakete batez beste.

76. taula: Diru-sarrerak, hilean ordaintzeko ahalmena, finantza-ahalegina eta ordaindu daitekeen gehieneko prezioa, aurreikusitako ukaite-erregimenaren arabera. 2021

Finantza-ahalmena	Guztira	Aurreikusitako ukaite-erregimena				Behar-mota	
		Jabetza	Alokairua, erosteko aukerarik gabe	Bata zein bestea	Alokairua, erosteko aukerarekin	Etxebizitza aldatu behar dute	Etxebizitza epe labur/ertainean aldatzeko asmoa dute
Diru-sarrerak	2.133,5	2.713,4	1.312,7	1.598,1	1.960,4	1.775,8	2.819,4
Hilean ordaintzeko ahalmena	547,9	638,0	420,8	518,7	490,0	490,0	662,4
Finantza-ahalegina	% 25,7	% 23,5	% 32,1	% 32,5	% 25,0	% 27,6	% 23,5
Ordain daitekeen gehieneko prezioa	233.903	264.305	-	149.953	143.201	177.012	298.224

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

3.3.3. Finantzaketa-formulak

Finantzaketa-formulen azterketari dagokionez, aurreko edizioetan bezala, etxebizitzaren aldaketa finantzatzeko bi bide nagusi identifikatu dira 2021ean: kredituetara jotzea (kasuen % 53,6tan) eta norberaren aurrezkiak (kasuen % 45,0tan).

77. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek aurreikusitako finantzaketa-formulak. 2009-2021

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Finantzaketa-iturriak (*)								
Kredituak	% 78,9	% 71,7	% 56,0	% 54,7	% 44,3	% 51,6	% 64,4	% 53,6
Norberaren aurrezkiak	% 48,8	% 34,5	% 33,4	% 23,9	% 28,1	% 55,2	% 53,9	% 45,0
Familiaren laguntza	% 11,7	% 8,9	% 11,1	% 8,9	% 5,9	% 8,1	% 20,6	% 12,8
Aurreko etxebizitzaren salmenta	% 50,8	% 50,3	% 55,3	% 40,7	% 48,0	% 40,3	% 42,9	% 31,2
Beste ondare baten salmenta	% 3,2	% 4,1	% 1,4	% 2,0	% 2,8	% 0,7	% 6,4	% 1,9
Aurreko etxebizitzaren alokairua	% 7,2	% 4,1	% 1,4	% 2,2	% 4,1	% 3,5	% 6,1	% 5,6
Laguntza publikoak	% 34,5	% 14,8	% 16,1	% 8,5	% 8,3	% 5,4	% 14,4	% 11,2
Beste baliabide batzuk	% 10,9	% 4,6	% 6,9	% 10,4	% 9,9	% 1,4	% 0,0	% 5,3
Oinarria: Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetza, alokairua erosteko aukerarekin, edo bata zein bestea								
% (kreditua / prezioa) (**)								
% 0 (ez du krediturik eskatuko)	% 20,4	% 22,7	% 40,8	% 42,5	% 48,4	% 50,7	% 43,4	% 32,4
% 1-25	% 3,8	% 8,8	% 5,9	% 4,3	% 5,6	% 1,1	% 4,5	% 5,1
% 25-49	% 14,5	% 13,7	% 7,6	% 8,2	% 8,6	% 4,4	% 8,6	% 11,5
% 50-74	% 11,8	% 11,4	% 9,2	% 9,0	% 10,0	% 9,4	% 8,2	% 15,9
% 75-100	% 19,0	% 18,2	% 11,2	% 19,2	% 12,4	% 15,4	% 11,8	% 30,9
ED/EE	% 30,6	% 25,2	% 25,4	% 16,8	% 15,0	% 18,9	% 23,4	% 4,3

*: Askotariko erantzunen %-a.

**: Beharra duten pertsona guztiekiko %-a.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Halaber, nolabaiteko garrantzi erlatiboa dute aurreko etxebizitza saltzea aurreikusten dutenek (% 31,2) eta, neurri txikiagoan, familiaren laguntza jasotzea aurreikusten dutenek (% 12,8).

Nolanahi ere, azpimarratutako finantzaketa-iturri horiek guztiek balio txikiagoak dituzte aurreko edizioetakoek baino.

Jabetza-erregimena, erosteko aukera duen alokairua edo alokairua zein jabetza lehenesten dituztenak baino aztertzen ez badira, egiaztza daiteke familia horietako hirutik batek ez duela kreditu bidezko finantzaketara joko (% 32,4k: serieko ehunekorik txikienetakoa).

Bestalde, familia horien % 30,9k adierazi du etxebizitzaren prezioaren % 75eko edo gehiagoko zenbatekoa izango duen kreditua eskatuko duela. Ehuneko hori 2019koa baino nabarmen handiagoa da (% 11,8 urte horretan), eta, gainera, ehunekorik handiena da 2009. urteaz geroztik.

2021ean, prezioaren % 50-74ko zenbatekoa izango lukeen kreditua eskatuko luketen familien proportzioa % 15,9ra iritsi da (2019ko ehunekoaren ia bikoitza: % 8,2 urte horretan); familien % 16,6k, berriz, etxebizitzaren prezioaren % 50etik beherako zenbatekoa izango lukeen kreditua eskatzea aurreikusi du.

Oro har, kreditua eskatzea aurreikusten duten eta etxebizitzaren prezioaren % 75etik beherako zenbatekoa beharko luketen familien proportzioak gora egin du azken hiru edizioetan: % 14,9 2017an, % 21,3 2019an eta ia herena 2021ean (% 32,5).

3.4. Etxebizitza aldatzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak

2021. urtean, EAEko 82.326 familiak aurreikusi dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra; hau da, EAEko familia guztien % 9,1ek.

2019ko datuekin alderatuta, 2021ean txikitu egin da behar hori adierazi duten familien kopurua. Izan ere, urte horretan 83.410 familiak adierazi zuten behar hori (guztien % 9,3k). Nolanahi ere, 2021ean aldatzeko beharra adierazi duten familien ehuneko hori bigarren handiena da 2005. urteaz geroztik, bai balio absolutuetan, bai balio erlatiboetan.

Zehazkiago, 2021ean etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarriei dagokienez, datu hauek azpimarra daitezke:

- Etxebizitza aldatzeko beharraren maila subjektiboa % 65,1era iritsi da (hau da, behar handia dutenen eta behar handi samarra dutenen batura: % 32,8 eta % 32,3, hurrenez hurren). Gainera, 2019koa baino 2,4 puntu handiagoa izan da.
- Etxebizitza eskatzeko epeari dagokionez, behera egin du, berriz ere, beharrari urtebeteko epean erantzutea aurreikusi duten familien ehunekoak (% 35,7 2017an, % 28,0 2019an eta % 24,3 2021ean). Eta behera egin dute, halaber, bi urterako eskariak (% 47,5 2019an eta % 39,2 2021ean) eta lau urterako eskariak (% 62,9 eta % 56,5, hurrenez hurren).

- 2019. urtearekin alderatuta etxebizitza aldatzeko beharraren indizeetan gora egin duen lurralde bakarra Gipuzkoa izan da (% 8,4 2019an eta % 9,1 azken edizioan). Bizkaian ehuneko horrek behera egin du (% 10,4 2019an eta % 9,6 2021ean), eta Araban, berriz, berdintsu jarraitu du (% 7,7 2019an eta % 7,6 2021ean).

Donostiak eta Bilbok aldatzeko beharraren indize handiak izan dituzte (% 10,8 eta % 11,0, hurrenez hurren).

- Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien profil soziodemografikoari dagokionez, titularren batez besteko adina 47,9 urte da. Pertsona horietako gehienek Espainiako nazionalitatea dute (% 84,4k), eta 2,8 pertsonak osatutako familia batean bizi dira.
- Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien etxebizitzaren oinarritzko ezaugarriak honako hauek dira: 75,2 m²-ko azalera dute batez beste, 49,1 urte batez beste, eta ia erdiak (% 48,7) alokairu-erregimenekoak dira (2019an baino ia portzentajezko 10 puntu gehiago: % 39,3 urte horretan).
- Aldatzeko beharraren arrazoi nagusia tamaina desegokia da. Horixe adierazi du behar hori duten hiru familiatik batek (% 33,3k). Etxebizitza aldatzeko arrazoiaren artean garrantzi handia duten beste hiru arrazoiak hauek dira: etxebizitzaren egoera txarra, irisgarritasuna hobetzea (% 12,7 bi kasuetan) eta etxebizitza bat jabetzan nahi izatea (% 11,1).
- Gehiengo handia dira, oraindik ere, bizi diren ingurunearekin eta auzoarekin pozik dauden familiak (% 71,9), baina proportzio hori 2019koa (% 75,6) eta 2017koa (% 80,8) baino txikiagoa izan da.
Orobat, 2021ean, familien % 23,7k etxebizitza aldatzeko beste udalerriri batera joatea aurreikusi du. Ehuneko hori apur bat handitu da 2019koarekin eta 2017koarekin alderatuta (% 22,8 eta % 18,6, hurrenez hurren).
- Etxebizitza aldatzeko beharra duten euskal familiek behar dituzten etxebizitzaren ezaugarrien artean, 83,1 m²-ko batez besteko azalera da nagusi (familia horien egungo etxebizitzaren batez besteko azalera baino 7,9 m² handiagoak).
Familien erdiek baino gehiagok (% 51,4k) jabetza-erregimeneko etxebizitza bat nahiago du. Zifra hori 2019koaren antzekoa da, zertxobait txikiagoa bada ere (% 51,8 2019an). Alokairu-erregimena nahiago duten familien ehunekoa % 36,1etik % 37,7ra igo da 2019tik 2021era bitarte.
- Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien hileko diru-sarrera garbiak 2.133,5 euro dira batez beste; beraz, igoera txiki bat izan da 2019ko batez besteko diru-sarrerarekin alderatuta (2.104,9 euro urte horretan). Nolanahi ere, diru-sarreraren mailak azken edizioetako goranzko joerarekin jarraitu du.
- Familiek etxebizitza aldatzeko hilean ordaindu dezaketen zenbatekoa 547,9 euro da 2021ean. Zenbateko hori diru-sarreraren % 25,7 da. Finantza-ahalegin hori azken edizioetan % 26 inguruko ehunekoan egonkortu dela dirudi.

2021ean, 233.903 euro da familia horiek etxebizitza aldatzeko ordaindu dezaketen gehieneko prezioa. Zenbateko hori serieko handiena da, eta % 11,5eko (24.000 euroko) iguera izan du 2019ko datuarekin alderatuta (209.865 euro urte horretan).

- Etxebizitza aldatzeko finantzaketa-iturri nagusiak kreditua (% 53,6) eta norberaren aurrezkiak (% 45,0) izan dira berriz ere.

Laburpen modura, ondorengo laburpen-taulan etxebizitza nagusia aldatzeko beharrari lotutako EAEko 2005-2021 aldiko adierazle nagusiak agertzen dira.

78. taula: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien ezaugarri nagusien bilakaera. 2005-2021

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Kuantifikazioa												
Behar-indizea (familien %)	% 6,4	% 6,1	% 8,1	% 4,9	% 6,7	% 6,7	% 4,5	% 7,1	% 6,2	% 8,6	% 9,3	% 9,1
Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kopurua)	49.559	47.851	64.393	40.894	56.652	56.397	38.048	61.621	53.132	75.970	83.410	82.326
Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak												
Pertsona nagusiaren batez besteko adina (urteak)	46,1	46,2	48,3	48,6	43,7	45,8	44,4	47,3	47,3	46,2	48,1	47,9
Familiaren batez besteko tamaina (familiako pertsona-kopurua)	3,2	3,1	3,1	2,8	3,0	3,0	2,8	3,0	3,0	3,0	2,8	2,8
Etxebizitzaren batez besteko azalera (m ²)	69,0	66,4	71,4	67,9	71,4	68,1	72,9	72,4	74,4	73,9	75,8	75,2
Etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna (urteak)	36,2	41,7	39,4	39,0	39,0	40,6	40,4	42,7	39,2	44,9	48,9	49,1
Alokairu-erregimena (%)	% 26,6	% 32,8	% 23,0	% 36,6	% 38,7	% 33,4	% 32,8	% 35,1	% 34,2	% 41,2	% 39,3	% 48,7
Aldatzeko beharraren bilakaera												
Arrazoia: tamaina eta egoera txarra (%)	% 39,5	% 44,7	% 37,0	% 46,6	% 32,9	% 45,9	% 36,1	% 41,4	% 44,2	% 46,9	% 42,9	% 46,0
Arrazoia: jabetza nahi dute (%)	% 13,6	% 9,1	% 8,4	% 15,4	% 10,4	% 8,6	% 5,9	% 4,0	% 3,7	% 4,6	% 10,7	% 11,1
Beharra: handia eta handi samarra (%)	% 84,2	% 83,4	% 82,9	% 73,0	% 75,5	% 73,2	% 69,9	% 74,2	% 64,9	% 76,4	% 62,7	% 65,1
Behar den denbora: > 4 urte (%)	% 50,4	% 48,5	% 43,1	% 52,5	% 31,9	% 35,7	% 37,0	% 32,6	% 26,5	% 19,5	% 26,5	% 31,4
4 urteko epean aldatzeko aukera oso handia/handi samarra	% 48,9	% 40,6	% 47,7	% 48,1	% 57,3	% 45,8	% 50,5	% 49,5	% 70,5	% 63,6	% 62,9	% 56,5
Nahi diren etxebizitzaren ezaugarriak												
Nahi den batez besteko azalera (m ²)	76,4	74,4	74,8	71,3	77,6	78,1	77,5	79,1	81,7	78,6	81,6	83,1
Ukaite-erregimena (alokairua + bata zein bestea)	% 17,1	% 26,6	% 24,7	% 36,5	% 35,1	% 37,1	% 34,3	% 48,3	% 45,8	% 46,4	% 48,2	% 48,6
Egoera ekonomikoa eta finantzarioa												
Batez besteko diru-sarrerak	1.514,0	1.609,0	1.618,0	1.625,0	1.511,4	1.585,7	1.776,6	1.690,5	1.964,9	1.975,9	2.104,9	2.133,5
Hilean ordaintzeko ahalmena	416,0	471,0	477,0	522,0	470,0	485,0	471,6	467,3	524,3	521,3	541,5	547,9
Ordain daitekeen gehieneko prezioa (*)	195.900	209.220	229.085	214.369	203.465	188.501	213.672	186.936	188.623	210.545	209.865	233.903

(*) 2009. urteaz geroztik, ez da kontuan hartu alokairu-erregimena baino nahi ez duten familiek adierazitako prezioa. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako ukaite-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea.**

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

4. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRA DUTEN FAMILIEN EZAUGARRIAK

4.1. Etxebizitza birgaitzeko beharraren eta eskariaren kuantifikazioa

Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestak agerian utzi duenez, 2021. urtean EAEko 87.857 etxebizitzak **birgaitzeko** esku-hartze bat behar dute. Ehuneko hori familia-etxebizitza guztien % 9,7 da, eta adierazten du birgaitzeko beharrak igoera handia izan duela aurreko edizioko datuekin alderatuta, bai termino absolutuetan (2019an baino 19.434 etxebizitza gehiago), bai termino erlatiboetan (portzentajezko 2 puntu gehiago).

79. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2005-2021

(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a
2005	111.469	% 14,3	15.152	% 13,9	60.748	% 14,5	35.566	% 14,3
2006	134.028	% 17,0	18.112	% 16,3	70.975	% 16,8	44.950	% 17,8
2007	113.396	% 14,2	13.957	% 12,3	63.181	% 14,7	36.264	% 14,2
2008	128.669	% 15,5	18.231	% 15,3	71.544	% 16,1	38.893	% 14,7
2009	142.099	% 16,9	8.174	% 6,6	91.995	% 20,5	41.930	% 15,6
2010	80.969	% 9,7	12.785	% 10,3	40.942	% 9,2	27.242	% 10,2
2011	75.342	% 8,9	7.829	% 6,2	38.649	% 8,6	28.864	% 10,6
2013	90.139	% 10,3	18.132	% 13,5	44.499	% 9,7	27.508	% 9,8
2015	58.017	% 6,7	6.684	% 5,1	27.612	% 6,1	23.720	% 8,4
2017	76.286	% 8,6	9.790	% 7,2	43.590	% 9,4	22.906	% 7,9
2019	68.423	% 7,7	8.374	% 6,1	37.934	% 8,1	22.115	% 7,6
2021	87.857	% 9,7	9.582	% 7,0	48.525	% 10,3	29.750	% 10,2

(*) Birgaitzeko beharraren indizea birgaitzeko beharra duten familien kopuruaren eta EAEko familia guztien kopuruaren arteko erlazioa da.

Iturria: Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


Birgaitu beharreko etxebizitzen kopuruak izan duen igoera hori hiru lurraldeetan gertatu da, baina neurri desberdinean. Behar horrek Bizkaian eta Gipuzkoan izan duen igoera nabarmentzen da. Araban, berriz, txikiagoa izan da.

Bizkaian, birgaitu beharreko etxebizitzen kopuruak gora egin du azken bi urteetan; hain zuzen, 10.591 etxebizitza gehiago dira (% 27,9). 37.934 etxebizitza ziren 2019an, eta 48.525 etxebizitza 2021ean. Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ehunekorik handienak dituzten lurraldeak Bizkaia eta Gipuzkoa dira (% 10,3 eta % 10,2, hurrenez hurren).

2019. urtearekin alderatuta, Gipuzkoak izan du igoera erlatiborik handiena (% 34,5: 7.635 etxebizitza gehiago). Araban, igoera % 12,3ra iritsi da (1.028 etxebizitza gehiago), eta birgaitzeko beharraren indizea % 7,0 da (2019an baino ia portzentajezko puntu bat handiagoa).

EAEEn, eskuarki, birgaitzeko beharraren indizea (% 9,7) 2010eko eta 2013ko mailetara hurbildu da (% 9,7 eta % 10,3, hurrenez hurren), 2009. urteaz geroztik (% 16,9 urte horretan) adierazleak behera egin ondoren (mailarik txikiena 2015ekoa izan zen: % 6,7).

53. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharraren indizearen bilakaera EAEEn. 1996-2021




Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza birgaitzeko beharraren serieak Bizkaian izan duen portaerak EAE osoan izan duenaren antzekoa izan da. 2009tik 2015era bitartean, % 20,5etik % 6,1era jaitsi zen (hori izan zen baliorik txikiena). 2016. urtetik aurrera, berriz, gora egiten hasi zen (% 9,7), eta 2021ean lortu da baliorik handiena (% 10,3) 2009. urteaz geroztik.

Gipuzkoak beherakada txikiagoa eta joera egonkorragoa izan du, eta 2021ean (% 10,2) 2010eko, 2011ko eta 2013ko balioetara hurbildu da (% 10,2, % 10,6 eta % 9,8, hurrenez hurren).

54. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Arabak, serieak gorabehera gehiago izan ditu. 2013an, adierazleak baliorik handienetako bat izan zuen (% 13,5), beherakada handia izan zuen 2015ean (% 5,1), eta igoera txiki bat izan du 2021ean (% 7,0).

Etxebizitzak birgaitzeko beharra udalerrien tamainaren arabera aztertuz gero ere (hiriburuak, 20.000-100.000 biztanleko udalerriak eta 20.000 biztanletik beherako udalerriak), egoerak ez dira berdinak.

EAE, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten eta hiriburuak ez diren udalerriek dute birgaitzeko beharraren indize handiena (% 10,6). Inkestaren azken lau edizioetan gertatu da hori. Hiriburuak (% 9,5) batezbestekora (% 9,7) hurbildu dira, eta gorakada handia izan dute 2019. urtearekin alderatuta (% 5,9 urte horretan). Udalerri txikienak, berriz, balio txikiagoak dituzte (% 9,3 2021ean), baina aurreko urteetan baino alde txikiagoekin.

80. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharraren kuantifikazioa, udalerriaren tamainaren arabera. EAE. 2015-2021

(Balio absolutuak eta familien guztizkoarekiko ehunekoak)

		2015		2017		2019		2021	
		Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a	Kop.	Familia guztiekiko %a
EAE	Guztira	58.017	% 6,7	76.286	% 8,6	68.423	% 7,7	87.857	% 9,7
	Hiriburuak	21.317	% 7,0	27.394	% 8,7	19.214	% 5,9	31.180	% 9,5
	20.000-100.000 biztanle	21.197	% 8,8	24.508	% 9,5	25.576	% 10,0	27.903	% 10,6
	<20.000 biztanle	15.504	% 4,9	24.384	% 7,7	23.633	% 7,6	28.774	% 9,3
Lurralde historikoa									
Araba	Guztira	6.684	% 5,1	9.790	% 7,2	8.374	% 6,1	9.582	% 7,0
	Gasteiz	5.176	% 5,2	8.040	% 7,9	6.287	% 6,0	7.212	% 6,9
	<20.000 biztanle	1.508	% 4,5	1.750	% 5,1	2.087	% 6,5	2.370	% 7,3
Gipuzkoa	Guztira	23.720	% 8,4	22.906	% 7,9	22.115	% 7,6	29.750	% 10,2
	Donostia	7.605	% 10,7	5.470	% 7,5	5.841	% 7,6	10.043	% 12,9
	20.000-100.000 biztanle	6.502	% 9,4	6.221	% 8,2	7.173	% 9,4	7.234	% 9,1
	<20.000 biztanle	9.614	% 6,8	11.215	% 8,0	9.101	% 6,6	12.473	% 9,2
Bizkaia	Guztira	27.612	% 6,1	43.590	% 9,4	37.934	% 8,1	48.525	% 10,3
	Bilbo	8.535	% 6,3	13.884	% 10,0	7.087	% 4,9	13.925	% 9,5
	20.000-100.000 biztanle	14.695	% 8,6	18.287	% 10,0	18.403	% 10,2	20.669	% 11,2
	<20.000 biztanle	4.382	% 3,1	11.419	% 8,0	12.445	% 8,8	13.931	% 9,9


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza birgaitzeko beharrari dagokionez, Donostiak gainerako bi hiriburuak eta gainerako udalerriak baino ehuneko handiagoa izan du (% 12,9). Bigarren baliorik handiena Bizkaiko 20.000-100.000 biztanleko udalerriena izan da (% 11,2). Araban, 20.000 biztanletik beherako udalerriak eta hiriburuak EAEko baliorik txikiak izan dituzte (% 7,3 eta % 6,9, hurrenez hurren).

EAE, oro har, birgaitzeko beharrik handiena biztanleek horri aurre egiteko duten ahalmenik handienarekin lotuta dago 2021. urtean.

2021ean birgaitzeko beharra dutela adierazi duten 87.587 familien % 26,8k (23.541 familiak) uste du urtebeteko epean birgaitu ahal izango duela. Ehuneko hori 2019koa baino portzentajezko 2 puntu handiagoa izan da (% 24,8 urte horretan), eta 2015eko mailara hurbildu da.

55. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharraren bilakaera EAEn, birgaitzeko aurreikusitako dataren arabera. 2005-2021¹⁰



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

(**) 2005etik 2007ra bitarteko balioak berriz zenbatetsi dira, familiei buruz eskuragarri dauden datu berrien arabera.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Halaber, gora egin du hurrengo bi urteetan birgaitzeko obrak egitea aurreikusten duten familien ehunekoak (% 56,7 2021ean: 49.808 etxebizitza; % 51,9 2019an eta % 54,2 2017an). Era berean, 2021ean gora egin du etxebizitza 4 urteko epean birgaitzea aurreikusten duten familien ehunekoak 2019ko datuekin alderatuta (% 67,7 eta % 63,8, hurrenez hurren). Ehuneko hori, gainera, handiena izan da 2015. urteaz geroztik (% 67,6 urte horretan).

81. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioa. EAE. 2007-2021

(Familia guztiekiko eta beharra duten familiekiko ehunekoak)

	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Beharra (*)	% 14,2	% 15,5	% 16,9	% 9,7	% 8,9	% 10,3	% 6,7	% 8,6	% 7,7	% 9,7
4 urterako eskaria (**)	% 63,7	% 61,6	% 61,5	% 54,1	% 58,4	% 50,2	% 67,6	% 66,7	% 63,8	% 67,7
2 urterako eskaria (**)	% 49,1	% 50,3	% 51,6	% 39,2	% 53,7	% 37,7	% 58,8	% 54,2	% 51,9	% 56,7
Urte 1erako eskaria (**)	% 26,7	% 26,6	% 26,4	% 14,7	% 32,2	% 18,9	% 26,8	% 25,9	% 24,8	% 26,8

(*) Familia guztiekiko %-a.

(**) Beharra duten familien %-a.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

¹⁰ 1, 2 eta 4 urterako eskariaren zenbatespenari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus definizioei buruzko eranskina.

Azken bi urteetako aldakuntza-tasa nabarmen positiboa da, batez ere birgaitzea hurrengo bi urteetan egiteko asmoa duten familien kasuan. Hala ere, 2021eko egoera oso urrun dago 2017kotik.

82. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharren eta eskariaren kuantifikazioaren aldakuntza. EAE. 2007-2021 eta 2017-2021¹¹

	2007		2019		2021		2007-2021 aldiko aldakuntza				2019-2021 aldiko aldakuntza			
	Absolutuak		Tasa (%)		Absolutuak		Tasa (%)				Absolutuak		Tasa (%)	
	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.
Beharra	% 14,2	113.396	% 7,7	68.423	% 9,7	87.858	-% 4,5	-25.538	-% 31,3	-% 22,5	% 2,0	19.435	% 26,6	% 28,4
4 urterako eskaria	% 63,7	72.194	% 63,8	43.650	% 67,7	59.474	% 4,0	-12.720	% 6,3	-% 17,6	% 3,9	15.824	% 6,1	% 36,3
2 urterako eskaria	% 49,1	55.655	% 51,9	35.543	% 56,7	49.808	% 7,6	-5.847	% 15,5	-% 10,5	% 4,8	14.265	% 9,2	% 40,1
Urte 1erako eskaria	% 26,7	30.270	% 24,8	16.952	% 26,8	23.541	% 0,1	-6.729	% 0,4	-% 22,2	% 2,0	6.589	% 8,0	% 38,9

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


4.2. Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriak

4.2.1. Gizarte- eta bizitegi-ezaugarriak

Aurreko kapituluan bezala, etxebizitza nagusia birgaitzeko beharrari lotuta dauden familia-nukleoaren eta ohiko etxebizitza horren ezaugarri nagusiak aztertzen dira atal honetan.

Birgaitu beharreko etxebizitzaren titularren batez besteko adina 58,3 urte da; hau da, 2019an erregistratutako batez besteko adina (55,9 urte) baino bi urte inguru gehiago eta 2015ean erregistratutako batez besteko adinetik hurbil (59,2 urte).

56. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familietako pertsona nagusiaren batez besteko adina. EAE. 1996-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

¹¹ 1, 2 eta 4 urterako eskariaren zenbatespenari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus definizioei buruzko eranskina.

2021ean, 65 urte eta gehiagokoen adin-taldeak ehuneko bereziki handia izan du (% 32,6), eta portzentajezko 7 puntutan baino gehiagotan gaintu du 2019ko ehunekoa (% 25,3 urte horretan). Halaber, neurri txikiagoan bada ere, gora egin du 55-64 urteko pertsonen ehunekoak (% 23,5 2019an eta % 24,1 2021ean). Gazteenen ehunekoek, berriz, behera egin dute azken bi urteetan. Horrenbestez, etxebizitzan eraberritzeren bat egin behar dutela dioten etxebizitzaren titularren % 56,7k 54 urte baino gehiago ditu.

83. taula: EAEn etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoak. 2009-2021

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Pertsona nagusiaren adina								
34 urtera bitarte	% 8,8	% 5,0	% 5,6	% 7,2	% 2,3	% 3,6	% 5,0	% 3,6
35-44 urte	% 16,4	% 14,3	% 14,6	% 18,0	% 11,6	% 17,9	% 16,2	% 13,4
45-54 urte	% 23,8	% 29,1	% 22,5	% 29,9	% 28,3	% 24,0	% 30,0	% 26,3
55-64 urte	% 24,3	% 22,7	% 22,0	% 22,8	% 23,3	% 26,1	% 23,5	% 24,1
65 urte eta gehiago	% 26,7	% 28,9	% 35,3	% 22,0	% 34,6	% 28,3	% 25,3	% 32,6
Batez besteko adina (urteak)	55,4	56,6	58,2	54,1	59,2	57,7	55,9	58,3
Nazionalitatea								
Espainiakoa	% 99,3	% 98,6	% 98,9	% 98,4	% 100,0	% 98,8	% 98,5	% 98,7
Atzerrikkoa	% 0,7	% 1,4	% 1,1	% 1,6	% 0,0	% 1,2	% 1,5	% 1,3
Familiako pertsonen kopurua								
Pertsona 1	% 22,1	% 19,5	% 23,9	% 24,5	% 18,0	% 23,9	% 25,0	% 26,9
2 pertsona	% 27,5	% 30,0	% 30,1	% 28,8	% 34,2	% 29,1	% 27,2	% 28,3
3 pertsona	% 25,4	% 21,4	% 26,2	% 22,4	% 24,0	% 25,2	% 21,7	% 23,5
4 pertsona	17,7%	20,2%	17,0%	16,2%	14,7%	17,1%	21,8%	17,1%
5 pertsona edo gehiago	% 7,4	% 8,9	% 2,8	% 8,2	% 9,2	% 4,6	% 4,3	% 4,2
Batez besteko kopurua (pertsonak)	2,6	2,7	2,5	2,6	2,7	2,5	2,6	2,5
Familien tipologia								
Bakarrik	% 22,3	% 19,5	% 23,9	% 24,5	% 18,0	% 23,9	% 25,0	% 26,9
Ezkontidearekin/bikotekidearekin	% 20,4	% 20,0	% 22,3	% 19,6	% 27,4	% 20,8	% 13,4	% 20,2
Ezkontidearekin/bikotekidearekin eta seme-alabekin (beste senide batzuekin edo gabe)	% 36,7	% 44,7	% 36,0	% 39,3	% 39,9	% 39,9	% 40,1	% 37,7
Aita/ama seme-alabekin	% 14,3	% 11,7	% 14,8	% 11,5	% 11,7	% 11,8	% 12,5	% 11,0
Beste egoera bat	% 6,3	% 4,1	% 2,9	% 5,1	% 3,0	% 3,6	% 9,0	% 4,3
Lan-egoera								
Landunak	% 48,3	% 42,6	% 42,2	% 44,6	% 43,5	% 52,1	% 58,7	% 55,9
Langabeak	% 7,7	% 8,1	% 5,1	% 15,9	% 11,3	% 8,4	% 6,3	% 5,9
Etxeko lanak egiten dituztenak	% 10,8	% 16,4	% 18,5	% 11,7	% 9,8	% 8,9	% 4,3	% 4,9
Erretirodunak / Pentsiodunak	% 30,6	% 31,8	% 33,4	% 26,0	% 34,8	% 28,9	% 28,5	% 33,4
Beste batzuk	% 2,6	% 1,1	% 0,9	% 1,8	% 0,6	% 1,7	% 2,2	% 0,0


*: Nazionalitate bikoitza Espainiako nazionalitatearen kategorian sartu da.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2009az geroztik, gutxienez, birgaitzeren bat behar duten etxebizitzaren atzerriko titullarrak inoiz ez dira iritsi behar hori dutenen taldearen % 2ra. 2021. urtean, % 1,3 izan dira: hau da, 2017an baino bi hamarren gutxiago (% 1,5 urte horretan).

Familiaren batez besteko tamainak egonkor jarraitu du 2008. urteaz geroztik, bi hamarreneko aldeak dituzten balioetan (2,5-2,7 pertsona batez beste). Azken edizio honetan, 2,5 pertsonakoa izan da batez besteko tamaina.

57. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien batez besteko tamaina. EAE. 1997-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bilakaerari dagokionez, 2021ean birgaitzeko aurreikuspenak lotuta daude, berriz ere, tamaina txikiko familien beharrezkin (2006. urteaz geroztik, 3 pertsonatik beherakoa da familien batez besteko tamaina).

Izan ere, etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien erdietan baino gehiagotan (% 51,8), bi kide (kasuen % 28,3tan) edo hiru kide (kasuen % 23,5etan) daude. Hiru pertsona baino gehiagoko familiak % 21,3 dira; hots, 2019an baino ia portzentajezko 5 puntu gutxiago (% 26,1 urte horretan).

Pertsona bakarrek familiak % 26,9 dira 2021ean. Hortaz, ia 2 puntuko igoera izan dute 2019. urtearekin alderatuta (% 25,0), eta ehunekorik handiena lortu dute 2009. urteaz geroztik.

Birgaitzeko beharra duten familien tipologiari dagokionez, seme-alabak dituzten bikoteen familiak (beste senide batzuekin edo gabe) izan dira, berriz ere, kategoria nagusia, eta % 37,7ko ehunekora iritsi dira 2021ean.

Azkenik, familia horietako titularren lan-egoerari dagokionez, adierazi beharra dago 2021ean % 55,9 landuna dela. Ehuneko hori aztertutako serieko bigarren baliorik handiena izan da, 2019ko datuaren atzetik (% 58,7).

Bestalde, erretirodunen edo pentsiodunen ehunekoak gora egin du, eta herenera iritsi da 2021ean (% 33,4), 2015eko erregistrorik handienetik hurbil (% 34,8). Langabezia-egoeran dauden pertsonen ehunekoak behera egin du azken bost edizioetan, eta % 5,9 izan da 2021ean.

Ondoren, birgaitu beharreko etxebizitzaren beste ezaugarri estrukturalago batzuk izango dira azterketaren ardatza.

84. taula: EAEn etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien bizitegi-ezaugarriak. 2009-2021


	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Etxebizitzaren azalera erabilgarria								
60 m ² baino gutxiago	% 17,2	% 16,4	% 14,2	% 14,7	% 14,8	% 19,2	% 13,1	% 14,2
61-75 m ²	% 27,4	% 28,1	% 30,1	% 30,1	% 27,1	% 30,0	% 32,0	% 29,4
76-90 m ²	% 30,4	% 29,6	% 31,8	% 31,3	% 29,3	% 30,1	% 31,1	% 33,8
90 m ² baino gehiago	% 22,6	% 23,4	% 23,4	% 22,8	% 26,5	% 20,8	% 23,8	% 22,7
ED/EE	% 2,3	% 2,4	% 0,6	% 1,1	% 2,3	-	-	-
Batez besteko azalera (m²)	79,2	79,9	80,0	80,1	85,1	83,8	83,7	83,3
Etxebizitzaren antzinatasuna								
60 urte baino gehiago	% 17,8	% 15,2	% 20,7	% 17,6	% 18,3	% 18,3	% 18,5	% 23,5
41-60 urte	% 33,2	% 34,8	% 32,4	% 39,0	% 39,6	% 49,2	% 48,4	% 52,6
26-40 urte	% 34,1	% 36,1	% 32,6	% 26,1	% 28,8	% 20,2	% 19,6	% 12,0
16-25 urte	% 6,1	% 5,8	% 10,5	% 8,6	% 7,1	% 5,7	% 7,7	% 8,8
15 urte eta gutxiago	% 4,9	% 4,1	% 3,3	% 4,4	% 3,5	% 6,6	% 5,8	% 3,1
ED/EE	% 4,0	% 4,0	% 0,6	% 4,3	% 2,8	-	-	-
Batez besteko antzinatasuna (urte kopurua)	42,3	42,0	42,4	43,1	44,9	49,0	49,3	51,4
Urte kopurua etxebizitzan								
2 urte eta gutxiago	% 2,1	% 3,2	% 2,1	% 2,2	% 1,2	% 3,4	% 8,2	% 6,6
3-4 urte	% 5,0	% 2,5	% 2,4	% 3,2	% 1,9	% 2,9	% 6,5	% 4,5
5-9 urte	% 12,3	% 8,5	% 10,4	% 10,1	% 7,7	% 10,4	% 9,5	% 8,9
10 urte eta gehiago	% 80,5	% 85,8	% 85,1	% 84,5	% 89,1	% 83,2	% 75,8	% 80,1
Lehen etxebizitza								
Bai	% 56,7	% 66,3	% 60,6	% 58,4	% 62,1	% 52,6	% 57,6	% 55,2
Ez	% 43,0	% 33,7	% 39,2	% 41,4	% 37,9	% 47,4	% 42,4	% 44,3
ED/EE	% 0,3	-	% 0,2	% 0,2	-	-	-	% 0,6
Etxebizitzaren izaera								
Berria	% 38,3	% 43,7	% 40,5	% 36,7	% 34,5	% 31,5	% 29,3	% 31,2
Erabilia	% 61,7	% 56,3	% 59,5	% 63,3	% 65,5	% 68,5	% 70,7	% 68,9
Etxebizitza babestua								
Bai	% 13,8	% 16,0	% 8,3	% 10,1	% 12,5	% 13,7	% 9,9	% 14,4
Ez	% 86,2	% 84,0	% 91,7	% 89,9	% 87,5	% 86,3	% 90,1	% 85,6
Etxebizitza-mota								
Eraikin kolektiboa	% 92,0	% 91,6	% 92,5	% 87,8	% 91,6	% 93,5	% 92,1	% 93,9
Familia bakarreko eraikina	% 8,0	% 8,4	% 7,5	% 12,2	% 8,4	% 6,5	% 7,9	% 6,1
Ukaite-erregimena								
Jabetzan, erabat ordaindua	% 61,0	% 62,4	% 65,8	% 51,9	% 57,2	% 55,5	% 47,6	% 61,5
Jabetzan, ordainketa batzuk egiteko	% 27,2	% 24,6	% 22,3	% 31,9	% 27,3	% 32,0	% 34,4	% 32,3
Alokatua	% 5,1	% 4,7	% 3,6	% 4,7	% 2,3	% 2,7	% 4,8	% 5,0
Beste egoera bat (lagatakoa eta abar)	% 6,8	% 8,3	% 8,4	% 11,4	% 13,2	% 9,8	% 13,2	% 1,2

*: Nazionalitate bikoitza Espainiako nazionalitatearen kategorian sartu da.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021. urtean, etxebizitza horien batez besteko tamaina 83,3 m² izan da. Erregistrorik handiena 2015ekoa izan zen (85,1 m²), eta azken edizioetan 83 eta 84 m² inguruko azalera egonkortu dela dirudi.

58. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko azaleraren bilakaera. 1997-2021




(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Familiak etxebizitzaren azaleraren arabera duten banaketari dagokionez, ikus daiteke familia gehienak (% 63,2) 61 eta 90 m² bitarteko etxebizitzetan bizi direla (% 29,4 61 eta 75 m² bitarteko etxebizitzetan eta % 33,8 76 eta 90 m² bitartekoetan). Familia horien ehuneko horrek eutsi egin dio 2019ko ehunekoari (% 63,1 urte horretan), eta 2017koa baino 3 puntu handiagoa izan da (% 60,1 urte horretan).

Antzintasunari dagokionez, inkestak agerian utzi du birgaitu beharreko etxebizitzak duela 51,4 urte eraiki zirela, batez beste. Batezbesteko horrek gora egin du edizioz edizio, eta, datuak daudenez geroztik, lehen aldiz gainditu da 50 urteko antzintasuna (batez beste).

59. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien etxebizitzaren batez besteko antzintasunaren bilakaera. 1997-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ikus daitekeenez, 40 urtetik gorako etxebizitzaren ehunekoak igoera handia izan du: % 66,9 ziren 2019an, eta 2021ean, berriz, lautik hiru inguru dira (% 76,1). Batez ere 60 urtetik gorako etxebizitzaren ehunekoak egin du gora (portzentajezko 5 puntu). Izan ere, % 18,5etik % 23,5era igo da azken bi urte hauetan. 41 eta 60 urte bitarteko etxebizitzek portzentajezko 4,2 puntuko igoera izan dute biurtekoan, eta % 48,4tik % 52,6ra igo dira. Bi kasuetan, ehunekorik handienak izan dira 2009. urteaz geroztik.

2019tik 2021era bitartean, gora egin du, birgaitu behar diren etxebizitzaren artean, egungo egoiliarrenak duela 10 urte baino gehiagotik direnen ehunekoak: % 75,8 ziren 2019an (baliorik txikiena) eta % 80,1 dira 2021ean (balio txikia seriearen barruan). Bestalde, okupatuta 10 urte baino gutxiago daramatzaten etxebizitzaren ehunekoak behera egin du, baina beherakada hori are esanguratsuagoa izan da okupatuta 3-4 urte daramatzatenean kasuan (% 6,5etik % 4,5era jaitsi da, hau da, portzentajezko 2 puntu txikiagoa izan da). Duela gutxiago (duela 2 urte edo gutxiago) okupatutako etxebizitzaren kasuan, ehunekoak 1,6 puntuko beherakada izan du (% 8,2tik % 6,6ra jaitsi da), eta 5-9 urte okupatutako etxebizitzaren ehunekoa, berriz, egonkorrago agertu da (% 9,5 2019an eta % 8,9 2021ean), puntu-erdiak gorako beherakada izan badu ere.

Familien % 55,2rentzat, birgaitu beharreko etxebizitza okupatutako lehena da familia sortu zenetik. Eskuratzeko unean, etxebizitzaren % 68,9 etxebizitza erabiliak edo bigarren eskukoak ziren.

Kasuen % 93,9tan, birgaitu beharreko etxebizitzak eraikin kolektiboetan daude. 2009. urteaz geroztik jasotako ehunekorik handiena da.

Halaber, ehuneko handia izan du etxebizitza birgaitzeko beharra duten, etxebizitzaren jabeak diren eta erabat ordainduta duten familien proportzioak, eta baliorik handienetako bat lortu du (% 61,5).

Alokairu-erregimenari lotutako birgaitze-beharra oso txikia da oraindik (kasu guztien % 5,0), baina serieko daturik handienetako batera iritsi da. Bestalde, beste ukaite-mota batzuei (dohaintza, lagapena, jaraunspena eta abar) lotutako beharrak nabarmen egin du behera, eta ehunekoa % 1,2 baino ez da izan 2021ean.

Bestalde, adierazi beharra dago 2021ean birgaitu beharreko etxebizitzaren % 49,3k trastelekua duela, % 34,6k garajea, eta % 72,2k igogailua.

85. taula: EAEn etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien etxebizitzaren elementu erantsiak eta irisgarritasuna. 2009-2021

ETXEBIZITZAK HONAKO HAUEK DITU:	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Trastelekua								
Bai	% 41,7	% 46,8	% 45,7	% 44,5	% 49,9	% 47,2	% 52,1	% 49,3
Ez	% 58,3	% 53,2	% 54,3	% 55,5	% 50,1	% 52,8	% 47,9	% 50,7
Garajea								
Bai	% 28,6	% 26,9	% 31,0	% 28,0	% 29,7	% 30,1	% 31,4	% 34,6
Ez	% 71,4	% 73,1	% 69,0	% 72,0	% 70,3	% 69,9	% 68,6	% 65,4
Igogailua								
Bai	% 60,4	% 59,5	% 51,0	% 56,7	% 67,2	% 56,7	% 64,1	% 72,2
Ez	% 39,6	% 40,5	% 49,0	% 43,3	% 32,8	% 43,3	% 35,9	% 27,8
EGOKITUTA AL DAGO ERAIKINA?								
Bai	% 40,2	% 37,8	% 32,8	% 51,5	% 53,0	% 37,1	% 61,1	% 50,8
Ez	% 59,8	% 62,2	% 67,2	% 48,5	% 47,0	% 62,9	% 38,9	% 49,2

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Trastelekua duten etxebizitzaren ehunekoak behera egin du 2019. urtearekin alderatuta (% 52,1 urte horretan), baina baliorik handienetako bat izan da. Garajea duten etxebizitzaren ehunekoa handiena izan da 2021ean, eta gauza bera gertatu da igogailua duten etxebizitzaren ehunekoarekin, 8 puntuko igoera izan baitu 2019tik 2021era (% 64,1 eta % 72,2, hurrenez hurren).

Oro har, birgaitzeren bat behar duten etxebizitzak dauden eraikinen erdiak (% 50,8) irisgarriak dira, eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitu daude.

4.2.2. Etxebizitza birgaitzeko beharraren arrazoiak eta birgaitzearen ezaugarriak

Etxebizitzek behar duten birgaitze-obraen tipologiari dagokionez, birgaitzeen % 39,9 etxebizitzaren barnealdea hobetzeko beharrei dagozkie, eta % 38,7, berriz, eraikineko eremu komunetan egin beharreko birgaitze-ekintzei lotuta daude. Birgaitzeen gainerako % 21,5a elementu pribatiboak zein komunei lotuta dago.

60. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak, birgaitze-motaren arabera. EAE. 2021



Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*


Bilakaerari dagokionez, eraikineko elementu komunetan eraberritzeak behar dituzten birgaitze-prozesuen ehunekoaren igoera handia da alderdirik azpimarragarriena.

86. taula: Beharra duten etxebizitzaren birgaitze-mota. EAE. 2007-2021

(Beharra duten familia guztiekiko ehunekoak)

	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
Elementu pribatiboak	% 42,0	% 47,8	% 35,9	% 50,7	% 32,8	% 49,8	% 44,3	% 49,9	% 49,3	% 39,9
Elementu komunak	% 50,6	% 36,8	% 41,9	% 18,3	% 47,1	% 18,4	% 30,7	% 32,1	% 25,7	% 38,7
Elementu pribatiboak eta komunak	% 7,3	% 15,5	% 22,2	% 31,1	% 20,1	% 31,8	% 25,0	% 18,0	% 25,1	% 21,5

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

61. grafikoa: Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopurua, birgaitze-motaren arabera, EAE. 2007-2021

	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
■ Elementu pribatiboak	47.672	61.468	51.080	41.011	24.702	44.844	25.708	38.069	33.706	35.038
◆ Elementu komunak	57.424	47.303	59.499	14.781	35.470	16.594	17.796	24.458	17.557	33.977
▲ Elementu pribatiboak eta komunak	8.301	19.898	31.521	25.177	15.170	28.700	14.513	13.759	17.160	18.842

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Elementu komunetan egin beharreko eraberritzeen ehunekoa % 25,7tik % 38,7ra (33.977 etxebizitza) igo da 2019tik 2021era bitartean, eta etxebizitzaren elementu pribatiboetan egin beharreko eraberritzeen ehunetara hurbildu da (% 39,9: 35.038 etxebizitza). Nolanahi ere, bigarren ehuneko hori handiagoa izan ohi da.


2019tik 2021era bitartean, elementu komunen zein pribatiboen birgaitzea dakarten obren ehunekoak ia portzentajezko 4 puntuko beherakada izan du, eta % 25,1etik % 21,5era (18.842 etxebizitza) jaitsi da.

87. taula: Beharra duten etxebizitzaren birgaitze-motaren aldakuntza. EAE. 2007-2021 eta 2017-2021

	2007		2019		2021		2007-2021 aldiko aldakuntza				2019-2021 aldiko aldakuntza			
							Absolutuak		Tasa (%)		Absolutuak		Tasa (%)	
	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.	%	Etxeb. kop.
Guztira	% 100,0	113.397	% 100,0	68.423	% 100,0	87.857	% 0,0	-25.540	% 0,0	-22,5%	% 0,0	19.434	% 0,0	% 28,4
Elementu pribatiboak	% 42,0	47.672	% 49,3	33.706	% 39,9	35.038	-% 2,2	-12.634	-% 5,1	-26,5%	-% 9,4	1.332	-% 19,0	% 4,0
Elementu komunak	% 50,6	57.424	% 25,7	17.557	% 38,7	33.977	-% 12,0	-23.447	-% 23,6	-% 40,8	% 13,0	16.420	% 50,7	% 93,5
Elementu pribatiboak eta komunak	% 7,3	8.301	% 25,1	17.160	% 21,4	18.842	% 14,1	10.541	% 193,0	% 127,0	-% 3,6	1.682	-% 14,5	% 9,8

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Oro har, 2021ean etxebizitza nagusia birgaitu behar duten familien % 61,3k gutxienez etxebizitzako elementu pribatibo bati lotutako birgaitze-jarduketak aipatu dituzte. Proportzio hori 2019koa baino txikiagoa da (% 74,3 urte horretan), eta 2013ko eta 2010eko datuetatik urrun geratu da (% 81,6 eta % 81,8, hurrenez hurren).

62. grafikoa: Etxebizitza nagusian birgaitu beharreko elementu moten bilakaera (%). EAE. 1996-2021

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Bestalde, birgaitzeko ekintzak egin behar dituzten familien % 60k baino gehiagok eraikineko elementu komunen bati lotutako jarduketak aipatu ditu. Ehuneko hori 2019koa baino ia 10 puntu handiagoa da (% 50,8 urte horretan).

2021eko inkestan, 53.443 familiak gutxienez etxebizitzako elementu pribatibo bat birgaitu behar dute; alegia, birgaitzeko beharra dutela adierazi duten familia guztien % 60,8k.

Bainugela edo sukaldea izan ohi da (edo biak) Euskadiko familiek birgaitzeko gehien aipatzen duten elementu pribatiboa; azken edizioan ere gauza bera gertatu da (birgaitzeko beharra adierazi duten familien % 47,9k aipatu du). Haren atzetik, leihoak/ateak (% 26,1) eta zorua (% 23,9) izan dira aipatuenak. Modu esanguratsu samarrean aipatu diren beste obra batzuk ur- edo elektrizitate-instalazioak konpontzea (% 14,4), trenkadak eraitsi edo eraikitzea (% 10,6) edo berokuntza-instalazioari lotutako obrak (% 9,7) izan dira.

2021ean elementu pribatiboren bat eraberritzeko edo aldatzeko duten etxebizitzak 2015, 2017 eta 2019ko edizioetan erregistratutakoak baino gehiago izan badira ere balio absolutuetan, termino erlatiboetan 2021eko ehunekoa (% 60,8) edizio horietakoa baino nabarmen txikiagoa izan da (% 69,3, % 66,1 eta % 72,2, hurrenez hurren).

Birgaitzeko gehien aipatu diren elementu pribatiboei dagokienez, eta 2019. urtearekin alderatuta, sukaldea edo bainugela aldatzeko beharra aipatu dutenen ehunekoak behera egin du (% 52,3tik % 47,9ra), baina gora egin dute gainerako elementu pribatiboak aipatu dituztenen ehunekoek: ateak edo leihoak aldatzea (% 23,3tik % 26,1era), zorua aldatzea (% 16,2tik % 23,9ra), ur- edo elektrizitate-instalazioak (% 10,7tik % 14,4ra), trenkadak eraistea/eraikitzea (% 5,9tik % 10,6ra) eta berokuntza-instalazioa (% 6,1etik % 9,7ra).

88. taula: EAEn birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusietan birgaitu beharreko elementuak. 2009-2021


	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Birgaitzeko beharra duten familiak	142.100	80.969	75.342	90.138	58.017	76.286	68.423	87.857
Elementu pribatiboren bat birgaitzeko beharra duten familiak	82.601	66.188	39.872	73.544	40.221	50.448	50.079	53.443
Elementu pribatiboren bat birgaitu behar duten familien %	% 58,1	% 81,7	% 52,9	% 81,6	% 69,3	% 66,1	% 73,2	% 60,8
ELEMENTU PRIBATIBOAK (*)								
Bainugela edo sukaldea aldatzea	% 41,7	% 60,3	% 39,2	% 55,3	% 46,5	% 41,5	% 52,3	% 47,9
. Sukaldea aldatzea	-	-	-	-	-	% 23,2	% 38,9	% 32,2
. Bainugela aldatzea	-	-	-	-	-	% 32,6	% 38,8	% 38,3
Trenkadak eraistea/eraikitzea	% 9,3	% 13,8	% 6,8	% 9,2	% 6,9	% 5,3	% 5,9	% 10,6
Zorua aldatzea	% 24,2	% 31,9	% 22,5	% 25,3	% 21,3	% 14,6	% 16,2	% 23,9
Ur- edo elektrizitate-instalazioak konpontzea	% 14,8	% 23,6	% 12,8	% 12,8	% 13,9	% 9,6	% 10,7	% 14,4
Berokuntza-instalazioa	% 15,2	% 21,9	% 12,1	% 9,0	% 9,8	% 5,5	% 6,1	% 9,7
Leihoak/ateak aldatzea	% 30,5	% 39,3	% 26,6	% 37,8	% 29,2	% 20,9	% 23,3	% 26,1
Arkitektura-oztopoak kentzea	-	-	-	-	-	% 4,3	% 4,7	% 5,1
Beste batzuk	% 15,7	% 11,9	% 7,5	% 11,3	% 6,6	% 6,0	% 6,7	% 3,7
Elementu komun bat birgaitzeko beharra duten familiak	91.020	39.958	50.640	45.294	32.309	38.217	34.718	52.819
Elementu komun bat birgaitzeko beharra duten familien %-a	% 64,1	% 49,3	% 67,2	% 50,3	% 55,7	% 50,1	% 50,7	% 60,1
ELEMENTU KOMUNAK (*)								
Fatxada	% 29,8	% 23,8	% 29,8	% 19,8	% 33,9	% 19,1	% 31,8	% 33,8
Teilatua	% 17,8	% 16,0	% 19,9	% 13,5	% 14,7	% 9,8	% 14,2	% 17,5
Igogailua	% 26,7	% 19,8	% 34,6	% 17,4	% 16,0	% 19,6	% 15,3	% 15,7
Gas naturala	% 3,3	% 3,1	% 4,2	% 1,3	% 1,7	% 0,6	% 2,3	% 1,1
Ezkaratzaren/eskaileraren irisgarritasuna	-	-	-	-	-	% 6,7	% 8,8	% 12,1
Ezkaratzeko/eskailerako beste hobeakuntza batzuk	-	-	-	-	-	% 3,2	% 7,0	% 10,2
Energia-efizientzia hobetzea	-	-	-	-	-	% 5,1	% 11,8	% 14,4
Energia berriztagarriak	-	-	-	-	-	% 0,2	% 2,4	% 3,3
Saneamendu- edo hornidura-sareak	-	-	-	-	-	% 2,1	% 1,6	% 2,8
Beste batzuk	% 18,3	% 9,9	% 12,1	% 12,1	% 6,3	% 3,4	% 0,9	% 2,9

(*) Erantzun bat baino gehiago eman daiteke. Behar hori dutela adierazi duten familiek birgaitzeko beharra duten familien guztizkoan duten ehunekoa.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Gutxienez etxebizitzako elementu komun bat birgaitu behar duten familiak 52.819 dira guztira. 2021ean, birgaitzeko gehien eskatu den elementua fatxada izan da, alde handiarekin (familien % 33,8k aipatu du). Haren atzetik, honako hauei lotutako obrak kokatu dira: teilatua (% 17,5), igogailuaren instalazioa (% 15,7), energia-efizientzia hobetzeko isolamenduak (% 14,4) eta ezkaratzaren irisgarritasuna (% 12,1).

63. grafikoa: EAEn birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusietan birgaitu beharreko elementuak (familien %-a / beharra duten familiak). 2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Elementu komunen kasuan, eta 2019. urtearekin alderatuta, fatxadan birgaitze-jarduketak egiteko beharrak portzentajezko 2 puntuko igoera izan du 2019tik 2021era (% 31,8tik % 33,8ra igo da). Energia-efizientzia hobetzeko beharraren kasuan, igoera portzentajezko 2,6 puntukoa izan da (% 11,8tik % 14,4ra igo da). Teilatuan egin beharreko obren kasuan, igoera handiagoa izan da (% 14,2 2019an eta % 17,5 2021ean; hau da, portzentajezko 3 puntutik gorako igoera). Igogailuari lotutako obren ehunekoak egonkortasun handiagoa izan du (% 15,3 2019an eta % 15,7 2021ean).


Birgaitzeko beharra dakarten elementu nagusien epe luzeko bilakaerari dagokionez, egiazta daiteke edizio guztietan sukaldea/bainugela aldatzea izan dela gehien eskatu den eraberritzea, gorabehera handiak izan badira ere (batez ere 2009. urtetik aurrera).

Bigarren elementurik aipatuena desberdina izan da urtearen arabera, gorabehera ugari gertatu baitira birgaitze-jarduketetan.

Nolanahi ere, 2015. urteaz geroztik (2017ko edizioaren salbuespenarekin), eraikinen fatxadetan egin beharreko jarduketak izan dira aipatuenak.

Hirugarrena leihoak edo ateak aldatzea izan da (2017an bigarrena izan zen, fatxaden birgaitzearen oso antzeko ehunekoarekin), eta laugarrena, berriz, zorua aldatzea.

Igogailuari lotutako jarduketak bosgarrenak izan dira edizio askotan (batez ere hasieran: 1996tik 2003ra bitartean). Azken bi edizioetan ere, gorabehera batzuen ondoren, bosgarrenak izan dira.

64. grafikoa: Etxebizitza nagusian birgaitu beharreko elementu nagusien bilakaera. EAE. 1996-2021

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

4.2.3. Ingurunearekiko/auzoarekiko eta etxebizitzarekiko gogobetetze-maila

Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familia gehienek iritzi positiboa dute bizi diren ingurunearen edo auzoaren inguruan. Zehazki, % 89,6k pozik dagoela adierazi du (gogobetetze handia kasuen % 56,2tan, eta handi samarra kasuen % 33,4tan).

89. taula: Ingurunearekiko/auzoarekiko gogobetetze-maila. 2009-2021

Gogobetetze-maila	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 53,1	% 64,0	% 36,4	% 54,6	% 65,6	% 58,7	% 53,7	% 56,2
Handi samarra	% 37,2	% 27,5	% 55,1	% 34,3	% 26,9	% 30,0	% 31,9	% 33,4
Txiki samarra	% 8,5	% 7,0	% 7,6	% 7,6	% 5,9	% 8,8	% 10,3	% 7,0
Txikia	% 1,2	% 1,5	% 0,8	% 3,5	% 1,6	% 2,5	% 4,1	% 3,3
Batez besteko gogobetetze-maila¹²	79,8	84,8	75,4	79,7	85,3	81,4	78,1	80,6

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Batez besteko gogobetetze-mailak bi puntu eta erdiko igoera izan du 2019tik 2021era bitartean (78,1 puntu eta 80,6 puntu, hurrenez hurren), eta 2017ko baloraziotik puntu bat baino gutxiagora geratu da 2021ean (81,4 puntu 2017an).

¹² Batez besteko gogobetetze-maila 0tik 100erako eskala batean zehazten da. Elkarriketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuak dagozkien erantzunen batezbestekoa islatzen du, honako eskala honi jarraikiz: handia (100), handi samarra (66), txiki samarra (33) eta txikia (0).

Birgaitzeko jarduketak behar dituzten etxebizitzak dauden ingurune edo auzoarekiko gogobetetzea nagusi bada ere, zenbait problematika espezifiko ikus daitezke.

65. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ingurunean/auzoan detektatutako arazoen balorazioa. 2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021ean, aparkatzeko arazoa etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 48,9k aipatu du. Oraindik auzoko edo inguruneko arazo nagusia bada ere, ehunekorik txikiena izan du azken edizioan. Ehuneko horrek behera egin du 2009. urteaz geroztik (% 77,9 urte horretan), eta 2019an gora egin bazuen ere (% 67,8), azken edizioan % 50etik beherako balioetara jaitsi da berriz ere.

90. taula: EAEn etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ingurunean/auzoan detektatutako arazoen balorazioa. 2009-2021

Ingurune / auzoko arazoak*	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Kanpoko zaratak	% 26,1	% 34,8	% 25,7	% 28,2	% 23,6	% 21,0	% 31,7	% 25,0
Kutsadurari/usain txarrei lotutako arazoak	% 16,7	% 20,1	% 12,1	% 19,4	% 9,5	% 11,7	% 16,9	% 11,2
Mantentze-lanik eza	% 16,1	% 22,4	% 9,9	% 20,7	% 8,6	% 14,2	% 23,5	% 15,0
Garbiketa/zabor-bilketa urria	% 9,0	% 13,3	% 9,2	% 10,8	% 9,4	% 12,9	% 15,1	% 15,5
Komunikazio/garraibide txarrak	% 14,5	% 19,3	% 18,8	% 20,8	% 8,6	% 12,9	% 17,5	% 9,6
Berdegune gutxi	% 22,3	% 22,5	% 19,0	% 19,6	% 8,9	% 14,0	% 19,3	% 10,9
Aparkatzeko arazoak	% 77,9	% 74,9	% 72,8	% 64,6	% 63,1	% 51,5	% 67,8	% 48,9
Zerbitzu gutxi	% 22,7	% 22,9	% 23,9	% 24,5	% 15,3	% 19,5	% 26,0	% 20,6
Irisgarritasunik eza	% 44,5	% 36,0	% 28,8	% 36,1	% 15,6	% 18,9	% 32,7	% 19,4
Delinkuentziari/segurtasunik ezari lotutako arazoak	% 32,0	% 29,8	% 24,7	% 26,3	% 13,4	% 17,0	% 27,1	% 19,9

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a. Erantzun bat baino gehiago eman daiteke.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Auzoko bigarren arazorik handiena kanpoko zaratak dira (% 25,0k aipatu du). Ehuneko hori 2019koa baino txikiagoa da (% 31,7 urte horretan), baina 2015ekoa eta 2017koa baino handiagoa (% 23,6 eta % 21,0, hurrenez hurren).

% 20 inguruko ehunekoarekin, honako arazo hauek aipatu dira: zerbitzu gutxi (% 20,6), delinkuentzia edo segurtasunik eza (% 19,9) eta irisgarritasunik eza (% 19,4). Hiru kasu horietan, erregistroak duela bi urtekoak baino txikiagoak izan dira.

Birgaitu beharreko etxebizitzarekiko batez besteko gogobetetze-mailak 2,3 puntuko igoera izan du 2019tik 2021era (71,7 puntu eta 74,0 puntu, hurrenez hurren). Era berean, 2017ko puntuazioa gainditu du (72,7 puntu urte horretan).

91. taula: Birgaitzeko beharra duten familiek ohiko etxebizitzarekin duten gogobetetze-maila. 2009-2021

Gogobetetze-maila	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 50,5	% 51,1	% 19,5	% 40,9	% 50,9	% 45,1	% 41,4	% 44,9
Handi samarra	% 38,6	% 32,3	% 55,2	% 38,5	% 32,4	% 35,6	% 38,4	% 37,6
Txiki samarra	% 7,5	% 13,0	% 18,8	% 14,2	% 12,4	% 12,5	% 14,8	% 12,8
Txikia	% 3,4	% 3,7	% 6,5	% 6,4	% 4,3	% 6,8	% 5,3	% 4,7
Batez besteko gogobetetze-maila¹³	78,4	76,6	62,1	71,0	76,4	72,7	71,7	74,0

(*): beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021. urtean, etxebizitza birgaitu behar duten familien % 82,5ek gogobetetze-maila handia du etxebizitzarekin (% 44,9k) edota handi samarra duela adierazi du (% 37,6k). Ehuneko hori duela bi urtekoa baino ia portzentajezko 3 puntu handiagoa izan da (% 79,8 2019an).

Gogobetetze-maila txiki samarra dutela adierazi dutenak (% 12,8) edo txikia dutela adierazi dutenak (% 4,7) 2019an baino gutxiago dira (% 14,8 eta % 5,3, hurrenez hurren).

4.2.4. Beharraren maila subjektiboa eta eskari-epeak

Atal honetan, etxebizitza birgaitzeko beharraren ezaugarriak azalduko dira, aldagai hauen aztertuta: eraginpean hartutako familiek hautemandako beharraren maila subjektiboa, behar-egoeran daramaten denbora eta birgaitzeko aurreikusi dituzten epeak.

Etxebizitza birgaitzeko beharraren batez besteko maila 60,5 puntura iritsi da 2021ean, 0 eta 100 arteko eskalan. Laugarren puntuaziorik txikiena izan da, 2010ekoaren (59,9 puntu), 2013koaren (60,2 puntu) eta 2019koaren (59,2 puntu) aurretik.

¹³ Batez besteko gogobetetze-maila 0tik 100erako eskala batean zehazten da. Elkarriketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuak dagozkien erantzunen batezbestekoa islatzen du, honako eskala honi jarraikiz: handia (100), handi samarra (66), txiki samarra (33) eta txikia (0).

92. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharraren maila subjektiboa. 2009-2021

Behar-maila*	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Handia	% 36,0	% 27,3	% 42,4	% 25,9	% 34,1	% 46,0	% 25,7	% 23,9
Handi samarra	% 34,7	% 33,5	% 37,9	% 36,8	% 30,6	% 27,7	% 37,5	% 39,9
Txiki samarra	% 21,1	% 31,9	% 16,8	% 30,4	% 31,9	% 20,9	% 26,5	% 31,1
Txikia	% 8,3	% 7,4	% 2,9	% 6,9	% 3,5	% 5,4	% 10,3	% 5,1
Batez besteko maila (0-100)¹⁴	65,8	59,9	73,0	60,2	64,8	71,2	59,2	60,5

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.

Iturria: Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Emitza hori behar handia dutela adierazi dutenen ehunekoaren (% 23,9, baliorik txikiena 2009. urteaz geroztik) beherakada handiaren eta behar handi samarra dutela adierazi dutenen ehuneko handiaren (% 39,9, baliorik handiena 2009. urteaz geroztik) ondorioa da. Halaber, ehuneko handia izan dute behar txiki samarra dutela adierazi dutenek (% 31,1).

Etxebizitza birgaitzeko beharraren denborari dagokionez, familien % 54,8k adierazi du lau urte daramatzala egoera horretan. Ehunekorik handiena da 2009az geroztik, urte horren aurretik erregistratutako ehunekoetara iritsi ez bada ere.

93. taula: Etxebizitza nagusia birgaitzeko behar-egoeran emandako denbora. 2009-2021

Behar-egoeran daramaten denbora*	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Urte 1 baino gutxiago	% 15,5	% 12,9	% 5,5	% 8,8	% 10,8	% 16,2	% 12,9	% 9,2
1-2 urte	% 20,0	% 16,7	% 17,2	% 18,7	% 29,8	% 24,2	% 25,0	% 19,2
2-4 urte	% 18,0	% 18,8	% 27,3	% 21,1	% 18,4	% 16,3	% 20,5	% 16,9
4 urte baino gehiago	% 46,4	% 51,6	% 50,0	% 51,4	% 41,0	% 43,3	% 41,6	% 54,8
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.


Iturria: Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bi urtera bitarteko eskariaren proportzioa nabarmen txikiagoa izan da 2021ean 2019an baino (% 28,4 eta % 37,9, hurrenez hurren), eta baliorik txikiena izan du 2009. urteaz geroztik, 2011ko eta 2013ko datuak salbuetsita (% 22,6 eta % 27,5, hurrenez hurren).

Bi eta lau urte bitarteko eskariaren beharrak (% 16,9 2021ean) gorabehera handiagoak izan ditu, eta ehuneko hori, 2013. urteaz geroztik, aztertutako gainerako bi taldeena baino txikiagoa izan da beti.

¹⁴ Batez besteko behar-maila 0tik 100erako eskala batean zehazten da. Elkarriketatutako pertsonen iritzi indibidualizatuak dagozkien erantzunen batezbestekoa islatzen du, honako eskala honi jarraituz: handia (100), handi samarra (66), txiki samarra (33) eta txikia (0).

66. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko behar-egoeran emandako denbora (< 2 urte, 2-4 urte eta > 4urte). EAE. 2002-2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

67. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko behar-egoeran emandako denbora (< 2 urte eta > 4 urte). EAE. 2002-2021



Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Birgaitzea egiteko aurreikusitako epea aztertuta egiazta daitekeenez, 2021ean etxebizitza birgaitu behar duten familien % 52,2k uste du aukera oso handia edo handi samarra duela bi urteko epean birgaitzeko (% 26,7k eta % 25,5ek, hurrenez hurren).

Proportzio hori % 67,7ra iritsi da epea lau urtera luzatzen bada: % 52,5ek uste du oso aukera handia duela, eta % 15,2k, berriz, handi samarra.

Birgaitzea bi urteko zein lau urteko epean egiteko aurreikuspenen ehunekoek gora egin dute 2019. urtearekin alderatuta. Duela bi urte, etxebizitza bi urteko epean birgaitzeko aukera % 51,9 zen, eta lau urtean birgaitzeko aukera, berriz, % 63,8.

94. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak: etxebizitza birgaitzeko aukera bi eta lau urterako eskariarekin. 2009-2021

Birgaitzeko aukera	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
2 urteko epean birgaitzeko aukera								
Oso handia	% 28,9	% 14,7	% 35,3	% 19,6	% 26,6	% 30,3	% 26,2	% 26,7
Handi samarra	% 22,7	% 24,6	% 18,4	% 18,0	% 32,2	% 23,9	% 25,7	% 25,5
Txiki samarra	% 31,6	% 21,7	% 25,6	% 32,2	% 25,3	% 24,0	% 31,0	% 33,1
Aukerarik ez	% 16,8	% 39,0	% 20,7	% 30,1	% 15,9	% 21,8	% 17,1	% 14,7
4 urteko epean birgaitzeko aukera								
Oso handia	% 52,2	% 41,5	% 54,0	% 39,2	% 58,8	% 54,4	% 52,8	% 52,5
Handi samarra	% 9,2	% 12,6	% 4,5	% 11,1	% 8,8	% 12,4	% 11,0	% 15,2
Txiki samarra	% 26,1	% 21,0	% 26,0	% 28,7	% 20,2	% 16,8	% 26,0	% 23,2
Aukerarik ez	% 12,4	% 24,9	% 15,5	% 21,1	% 12,2	% 16,4	% 10,2	% 9,1

(*): Beharra duten pertsona guztiekiko %-a, mota bakoitzean.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

4.2.5. Etxebizitza aldatzea, birgaitzearen alternatiba gisa

2021ean, etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 78,3k ez du etxebizitza aldatu nahi; % 12,3 baino ez dago aldatzearen alde.

95. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak: aldaketa nahiago dutenak. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak: birgaitzea nahiago dutenak. 2009-2021

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Oinarria: etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak								
Aldatu nahiago?								
Bai	% 18,6	% 22,0	% 20,7	% 20,8	% 11,9	% 15,5	% 15,8	% 12,3
Ez	% 76,4	% 71,6	% 75,8	% 74,5	% 81,9	% 79,9	% 77,9	% 78,3
ED/EE	% 4,9	% 6,4	% 3,5	% 4,6	% 6,2	% 4,6	% 6,3	% 9,4
Oinarria: etxebizitza birgaitzeko beharra duten eta aldaketa nahiago duten familiak								
Zergatik ez dute aldatzen?								
Arrazoi ekonomikoak	% 77,3	% 84,5	% 88,1	% 84,1	% 64,4	% 83,2	% 93,3	% 92,5
Beste arrazoi batzuk	% 17,6	% 12,9	% 9,5	% 13,1	% 27,0	% 12,5	% 0,0	% 7,5
ED/EE	% 5,1	% 2,6	% 2,5	% 2,8	% 8,6	% 4,3	% 6,7	-
Oinarria: etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak								
Birgaitzea aldatzearen alternatiba gisa								
Bai	% 18,8	% 17,1	% 13,5	% 18,7	% 17,1	% 8,0	% 15,6	% 14,5
Ez	% 77,1	% 74,5	% 84,6	% 78,0	% 79,2	% 90,2	% 78,7	% 81,0
ED/EE	% 4,1	% 8,4	% 1,9	% 3,2	% 3,7	% 1,8	% 5,7	% 4,5


Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza aldatzearen alde dauden familien artean, etxebizitza ez aldatzeko aipatutako arrazoi nagusia baliabide ekonomikorik eza da. Faktore hori etxebizitza birgaitu ordeztatu nahiago duten familien % 92,5ek aipatu du. Datu hori 2019koa baino txikiagoa da (% 93,3 urte horretan).

Aitzitik, etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi duten familien % 14,5ek aldaketaren alternatibatzat hartzen du birgaitzea.

Bilakaerari dagokionez, etxebizitza birgaitu ordeztatu nahiago dutenen % 12,3ko datu hori Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren bigarren erregistrorik txikiena izan da 1997. urteaz geroztik, 2015eko gutxienekoaren ondoren (% 11,9 urte horretan).

68. grafikoa: Birgaitzearen alternatiba gisa etxebizitza nagusia aldatu nahiago dutenak, eta alderantziz. EAE. 1997-2021



(**) Oinarria: etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi duten familiak.

Iturria: *Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitza aldatzeko beharra duten eta alternatiba gisa etxebizitza birgaituko luketen familien 2021eko ehunekoa (% 14,5) 2019koa baino portzentajezko puntu bat txikiagoa izan da (% 15,6 urte horretan), eta 2017koa baino nabarmen handiagoa (% 8,0 urte horretan), baina ez da serieko txikienetako bat izan.

4.3. Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien finantza-ahalmena

4.3.1. Diru-sarrerren maila

Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien hileko diru-sarrera garbiak¹⁵ 2.151,90 euro izan dira 2021ean, batez beste. Duela bi urte baino 8 euro gutxiago dira (2.159,8 euro 2019an).

96. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien diru-sarrerren maila. 2009-2021

Hileko diru-sarrera garbiak	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
840 eurora bitarte	% 8,0	% 11,7	% 12,1	% 14,3	% 6,2	% 13,6	% 7,4	% 4,3
841-1.140 euro	% 8,8	% 10,3	% 8,4	% 14,8	% 12,2	% 15,3	% 11,6	% 10,8
1.141-1.410 euro	% 8,9	% 10,1	% 11,8	% 12,0	% 6,6	% 18,4	% 12,8	% 9,1
1.411-1.650 euro	% 5,2	% 8,8	% 8,8	% 7,3	% 7,5	% 9,2	% 8,3	% 7,2
1.651-2.160 euro	% 10,1	% 12,3	% 9,8	% 12,7	% 15,1	% 23,4	% 16,8	% 17,9
2.160 euro baino gehiago	% 15,5	% 22,6	% 26,9	% 24,5	% 25,4	% 46,3	% 44,0	% 34,7
ED/EE	% 43,5	% 24,2	% 22,3	% 14,4	% 27,0	% 25,1	% 35,8	% 16,0
Batezbestekoa (€)	1.630,6	1.668,3	1.850,0	1.707,6	1.962,1	2.001,8	2.159,8	2.151,9


(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Hiru familiatik batek baino apur bat gehiagok (% 34,7k) 2.160 eurotik gorako diru-sarrerak ditu hilean. Ehuneko horrek, nolanahi ere, beheranzko joera hartu du azken bi edizioetan. Diru-sarrerarik txikiak dituzten familiak (1.410 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak), berriz, 2021ean (% 24,2) 2019an baino 7,5 puntu gutxiago izan dira (% 31,7 urte horretan), eta 2017koen erdiak ia (% 47,3 urte horretan).

Epe luzean, 2021ean etxebizitza birgaitzeko beharra duten biztanleen diru-sarrera arrunten batezbestekoa bigarren handiena izan da Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta hasi zenetik, 2019koaren azpitik. 2017. urteaz geroztik, errenten batezbestekoa 2.000 eurotik gorakoa da familiako.

69. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien diru-sarrerren bilakaera. 1996-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

¹⁵ Diru-sarrerak familiako diru-sarrera edo errenta propio guztiak dira.

4.3.2. Birgaitzeko aurreikusitako kostua

Etxebizitzako elementu pribatiboak birgaitu behar dituzten familien ustez, eraberritzearen kostua 20.168,30 eurora iritsiko litzateke, batez beste¹⁶, 2021ean.

Etxebizitzako elementu pribatiboak birgaitzea aurreikusten duten familien % 28,3k uste du obrak 12.001 eta 30.000 euro bitarteko kostua izango duela. Ehunekorik handieneko bigarren taldea 30.000 eurotik gorako kostua aurreikusten duten familiena da (% 20,6). Talde horrek oso igoera handia izan du aurreko edizioetako datuekin alderatuta.

Kosturik txikieneko obrek antzeko emaitzak izan dituzte: % 14,7ko datua 6.001 eta 12.000 euro bitartekoen taldean, eta % 14,1, 3.000 eta 12.000 euro bitartekoen taldean¹⁷.

97. taula: Etxebizitza nagusia birgaitzeko aurreikusitako kostua. 2009-2021

Aurreikusitako kostua	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Oinarria: etxebizitza nagusiko <u>elementu pribatiboak</u> birgaitzeko beharra duten familiak**								
3.001-6.000 euro	% 9,6	% 11,2	% 15,3	% 14,5	% 11,8	% 14,4	% 9,0	% 14,1
6.001-12.000 euro	% 11,6	% 18,8	% 7,7	% 17,9	% 13,4	% 14,3	% 10,4	% 14,7
12.001-30.000 euro	% 12,2	% 14,3	% 17,2	% 22,4	% 20,4	% 14,8	% 11,5	% 28,3
30.000 euro baino gehiago	% 10,4	% 12,9	% 13,2	% 9,5	% 9,6	% 4,8	% 7,3	% 20,6
ED/EE	% 56,2	% 42,8	% 46,5	% 35,8	% 44,8	% 51,6	% 61,8	% 22,3
Batez besteko kostua (euroak)	16.309,1	15.615,2	16.752,5	15.201,7	16.407,9	15.744,7	16.469,6	20.168,3
Oinarria: etxebizitza nagusiko <u>elementu komunak</u> birgaitzeko beharra duten familiak								
3.000 eurora bitarte	% 7,7	% 6,0	% 9,2	% 14,0	% 5,8	% 5,3	% 3,3	% 9,3
3.001-6.000 euro	% 9,8	% 9,9	% 12,2	% 12,7	% 9,5	% 6,9	% 4,0	% 9,3
6.001-12.000 euro	% 12,2	% 15,5	% 12,7	% 13,0	% 10,6	% 11,9	% 13,1	% 13,0
12.001-30.000 euro	% 8,0	% 13,9	% 9,7	% 10,0	% 11,0	% 13,9	% 12,6	% 23,6
30.000 euro baino gehiago	% 7,3	% 11,3	% 7,0	% 8,1	% 8,0	% 5,6	% 7,7	% 13,0
ED/EE	% 55,1	% 43,4	% 49,3	% 42,2	% 55,1	% 56,4	% 59,3	% 31,8
Batez besteko kostua (euroak)	12.938,5	14.942,3	11.989,2	11.579,7	15.474,5	15.006,0	17.976,6	16.413,9

(*): Elementu pribatiboak birgaitzeko beharra duten familia guztiekiko %-a.

(**): Ez dira kontuan hartu elementu pribatiboan 3.000 eurotik beherako kostuak.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitzaren elementu komunak birgaitzearen kostuari dagokionez, 2021ean behar hori duten familiek adierazi dute batez besteko kostua 16.413,90 eurora iritsiko litzatekeela. Datu hori 2019koa baino 1.600 euro (-% 8,7) txikiagoa da (17.976,6 euro urte horretan).

¹⁶ Ez dira kontuan hartu elementu pribatiboan 3.000 eurotik beherako kostuak.

¹⁷ Kostuari buruzko galdera honi erantzun ez dioten familien ehunekoa handia bada ere, txikiena da 2009. urteaz geroztik-


Etxebizitzako elementu komunak birgaitzea aurreikusten duten familien % 23,6k uste du obrak 12.001 eta 30.000 euro bitarteko kostua izango duela. Tarte horren aurrekoak eta ondorengoak ehuneko bera izan dute (% 13,0). Eta kosturik txikieneko tarteek ere ehuneko bera izan dute (% 9,3)¹⁸.

Etxebizitza birgaitzeko aurreikusitako gastuen epe luzeko bilakaera historikoak hainbat alderdi osagarri interesgarri jarri ditu agerian.

Historikoki, elementu pribatiboak birgaitzeko aurreikusitako batez besteko kostuak handiagoak izan dira elementu komunak birgaitzeko aurreikusitakoak baino. 2019an soilik ez zen premisa hori bete.

Elementu pribatiboen kasuan, serieak gora egin zuen hasi zenetik 2006. urtera arte (20.062 euro urte horretan). Urte horretatik aurrera, behera egin zuen, 2013an 15.202 eurora iritsi zen arte. Hurrengo edizioetan gainditu zen gutxieneko hori, eta azken edizioan serieko gehienekoa lortu da (20.168 euro).

70. grafikoa: Etxebizitza nagusia birgaitzeko aurreikusitako batez besteko gastua, elementu-motaren arabera. EAE. 1996-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Elementu komunak birgaitzearen kasuan, aurreikusitako gastuak 2000. urtean gora egin eta 12.056 eurora iritsi ondoren, behera egin zuen eta 10.000 euro inguruan egonkortu zen 2007. urtera arte. Hurrengo edizioan, nabarmen igo zen (15.185 euro 2008an), eta gorabehera-fase bat hasi zen. Fase horretan, lehen gehieneko bat izan zen 2015ean (15.475 euro), eta gainditu egin zen 2019an (17.977 euro). 2021eko edizioan, erregistratutako datua (16.414 euro) bigarren handiena da 1996az geroztik.

¹⁸ Kontuan hartu behar da ezjakintasunagatik edo berariaz galdera honi erantzun ez dioten familien ehunekoa. Dena dela, ehuneko handia bada ere, serieko txikiena izan da 2021ekoa.

4.3.3. Birgaitzeko laguntzak ezagutzea eta eskatzea

Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 26,5ek adierazi du badakiela zer diren birgaitzeko laguntzak, eta %49,7k, berriz, badu laguntza horien berri, baina ez daki zehazki zertan diren. Gainerako % 23,8k ez daki laguntza horiek badaudenik. Datu hori, 2010ekoarekin batera, bigarren txikiena da 2009. urteaz geroztik, eta 2011ko datutik portzentajezko 1 puntura geratu da (% 21,8 urte horretan).

98. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien artean birgaitzeko laguntzak ezagutzen eta eskatzen dituztenak. 2009-2021

Birgaitzeko laguntzak	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Badaki zer diren	% 37,9	% 33,4	% 40,0	% 18,5	% 37,0	% 28,3	% 34,2	% 26,5
Badu haien berri, baina ez daki zehazki zer diren	% 36,3	% 42,8	% 38,3	% 46,2	% 33,8	% 39,4	% 33,0	% 49,7
Ez daki badaudenik	% 25,8	% 23,8	% 21,8	% 35,3	% 29,2	% 32,3	% 32,9	% 23,8
Oinarria: etxebizitza birgaitzeko beharra duten eta birgaitzeko laguntzak daudela badakiten familiak								
Bai, eskatu ditu	% 46,4	% 38,4	% 20,8	% 42,9	% 44,1	% 39,0	% 35,5	% 28,9
Bai, eskatzeko asmoa du	% 24,5	% 24,6	% 41,5	% 20,8	% 28,8	% 34,7	% 21,7	% 37,3
Ez, uste du ez dituela baldintzak betetzen	% 7,2	% 13,7	% 7,4	% 17,5	% 3,3	% 12,7	% 20,1	% 17,3
Ez, izapide asko egin behar dira	% 1,7	% 5,2	% 3,9	% 6,4	% 6,2	% 4,0	% 2,1	% 6,6
Ez, beste arrazoi batzuk	% 12,8	% 17,1	% 23,6	% 9,8	% 9,3	% 6,4	% 10,0	% 2,2
ED/EE	% 7,4	% 1,0	% 2,9	% 2,7	% 8,2	% 3,3	% 10,7	% 7,8

(*): Beharra duten familia guztiekiko %-a.

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza birgaitzeko neurriak ezagutzen dituzten eta zer diren badakiten familien % 29,9k adierazi du eskatu dituela laguntza horiek. Daturik txikiena da 2011. urteaz geroztik (% 20,8 urte horretan). Laguntza horiek oraindik eskatu ez dituzten baina eskatzeko asmoa duten familien ehunekoa, berriz, bigarren handiena izan da 2021ean (% 37,3), 2011ko % 41,5aren atzetik.

Laguntzarik eskatuko ez duten familien artean, baldintzak betetzen ez dituztela uste dutelako eskatuko ez dutenen taldearen ehunekoa nabarmentzen da (% 17,3, 2019ko % 20,1etik hurbil). Familien % 6,6ren ustez, izapide asko egin behar dira, eta % 2,2k ez du arrazoirik zehaztu.

Laguntzarik eskatuko ez duten familia guztien ehunekoa % 26,1era iritsi da 2021ean. Hortaz, 2019ko datutik urrun (% 32,1 urte horretan) eta 2017ko datutik hurbilago (% 23,1 urte horretan) geratu da.

Epe luzearen ikuspegitik, 2021. urtean etxebizitza birgaitzeko laguntzak ezagutzen dituzten familien proportzioa hirugarren baliorik handienara iritsi da 1997. urteaz geroztik, 2010eko ehuneko berdinarekin (% 76,2 urte horretan), eta 2008ko % 76,5aren eta 2011ko % 78,2aren atzetik.

71. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien artean birgaitzeko laguntzak ezagutzen eta eskatzen dituztenak. EAE. 1997-2021



(*) 2009. urtetik aurrera, aldaketa metodologiko bat gertatu da inkestaren prozesuan. Ildo horretan, laginaren tamaina handitu egin da, eta inkestak elkarriketa pertsonalen bidez egin dira.

(4) Oinarria: etxebizitza birgaitzeko beharra duten eta birgaitzeko laguntzak daudela badakiten familiak

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2021ean, etxebizitza birgaitzeko beharra duten eta laguntzak daudela badakiten familien % 66,2k eskatu ditu laguntza horiek, edo eskatzeko asmoa du.

4.4. Etxebizitza birgaitzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak

2021. urtean, EAEko 87.857 familiak dute ohiko etxebizitza birgaitzeko beharra; hots, EAEko familia guztien % 9,7k. Beraz, azken bi urteetan nabarmen gora egin du birgaitzeko beharrak, bai balio absolutuetan (ia 19.500 familia gehiago), bai balio erlatiboetan (portzentajezko 2 puntu gehiago).

Zehazkiago, 2021ean etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriei dagokienez, elementu hauek azpimarra daitezke:

- Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien artean, behar horren batez besteko maila 60,5 puntukoa izan da 2021ean (100etik). Laugarren puntuaziorik txikiena izan da, 2010ekoaren (59,9 puntu), 2013koaren (60,2 puntu) eta 2019koaren (59,2 puntu) atzetik.
- Birgaitzeko eskariari (birgaitzeko beharrari aurre egin ahal izango dioten familien eta birgaitzeko beharra duten familia guztien arteko erlazioari) dagokionez, familien % 26,8k urtebeteko epean birgaituko du etxebizitza, % 56,7k bi urteko epean eta % 67,7k 4 urteko epean. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren azken hiru edizioetako baliorik handienak izan dira.
- Birgaitzeko beharraren indizeari (birgaitzeko beharra duten familien kopuruaren eta familien guztizko kopuruaren arteko erlazioari) dagokionez, igoera bat gertatu da hiru lurraldeetan. Igoera erlatiborik handiena Gipuzkoak izan du, eta % 7,6tik % 10,2ra igo da 2019tik 2021era bitarte (portzentajezko 2,6 puntuko igoera). Bizkaiak portzentajezko 2,1 puntuko igoera izan du (% 8,1etik % 10,3ra igo da), eta Araban, berriz, igoera txikiagoa izan da (ez da portzentajezko puntu batera iritsi: % 6,1etik % 7,0ra igo da azken bi urteetan).

- Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien profil soziodemografikoari dagokionez, familia horietako titularren batez besteko adina 58,3 urte da, eta, batez beste, 2,5 pertsonak osatutako familiak dira.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiekin alderatuta, titularrek *adin handiagoa* dute, eta familiaren tamaina txikiagoa da (47,9 urte eta 2,8 pertsona batez beste familia horien kasuan).

- Birgaitu beharreko etxebizitzek 83,3 m²-ko batez besteko azalera eta 51,4 urteko batez besteko antzinatasuna dute.

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familienak baino etxebizitza handiagoak eta zaharragoak dira (75,2 m² eta 49,1 urte, batez beste).

- Elementu pribatiboak birgaitu behar dituzten familiak (% 39,9) elementu komunak birgaitu behar dituztenak (% 38,7) baino gehiago dira. Bi kasuetan, elementu pribatiboak zein komunak birgaitu behar dituztela adierazi duten familiak gehitu behar dira (% 21,5).
- Etxebizitzako elementu pribatiboetan egin beharreko jarduketei dagokionez, 2021ean gehien eskatu diren jarduketak bainugela/komuna aldatzea eta ateak edo leihoak aldatzea izan dira (birgaitzeko beharra duten familia guztien % 47,9k eta % 26,1ek aipatu dituzte, hurrenez hurren).

Elementu komunen kasuan, gehien aipatu dituzten birgaitzeak fatxadako jarduketak eta teilatuko jarduketak izan dira (familien % 33,8k eta % 17,5ek aipatu dituzte, hurrenez hurren).

- Familia gehienak pozik daude gaur egun bizi diren etxebizitzarekin (74,0 puntuko gogobetetze-maila, 100etik), eta puntuazioak gora egin du 2019. urtearekin eta 2017. urtearekin alderatuta (71,7 puntu eta 72,7 puntu, hurrenez hurren). Nolanahi ere, azken hamarkadako bigarren puntuaziorik handiena izan da.
- Etxebizitza birgaitzeko beharra dutela adierazi duten familien hileko batez besteko diru-sarrerara garbiak 2.151,9 euro izan dira 2021ean. Duela bi urtekoen ia berdinak izan dira (8 euro txikiagoak: 2.159,8 euro 2019an).

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiekin adierazitako diru-sarreraren oso antzekoak dira (2.133,5 euro familia horien kasuan).

- Familiekin etxebizitza birgaitzeko aurreikusi duten batez besteko kostuak gora egin du azken bi urteetan elementu pribatiboetan egin beharreko jarduketaren kasuan, eta behera egin du elementu komunen egin beharrekoen kasuan.

Elementu pribatiboen eraberritzeen kasuan, aurreikusitako batez besteko kostuak % 22,5eko igoera izan du, eta 20.168,3 eurora iritsi da batez beste (16.469,6 euro 2019an). Eraikineko elementu komunen eraberritzeen kasuan, berriz, batez besteko kostuak % 8,7ko beherakada izan du 2019tik 2021era bitarte (17.976,6 euro eta 16.413,9 euro, hurrenez hurren).

- Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 12,3k etxebizitza aldatu nahiago du. Aldaketa ez egiteko arrazoi nagusia ekonomikoa da, etxebizitza aldatzeko aukera nahiago duten familien % 92k adierazi duenez.

Azkenik, laburpen gisa, EAEn 2005-2021 aldian etxebizitza nagusia birgaitzeko izan den beharrari lotutako adierazle nagusien laburpen-taula aurkeztuko dugu.

99. taula: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ezaugarri nagusien bilakaera. 2005-2021

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021
Kuantifikazioa												
Behar-indizea (familien %)	% 14,3	% 17,0	% 14,2	% 15,5	% 16,9	% 9,7	% 8,9	% 10,3	% 6,7	% 8,6	% 7,7	% 9,7
Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kopurua)	111.469	134.028	113.396	128.669	142.099	80.969	75.342	90.139	58.017	76.286	68.423	87.857
Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoen bilakaera												
Pertsona nagusiaren adina (urteak)	49,9	52,9	55,0	57,1	55,4	56,7	58,2	54,3	59,2	57,7	55,9	58,3
Batez besteko tamaina (familiako pertsona-kopurua)	3,1	2,8	2,7	2,5	2,6	2,7	2,5	2,6	2,7	2,5	2,6	2,5
Hileko diru-sarrera garbiak (euroak)	1.554,0	1.610,2	1.620,0	1.467,9	1.630,6	1.668,3	1.850,0	1.707,6	1.962,1	2.001,8	2.159,8	2.151,9
Etxebizitzaren antzintasuna (urteak)	38,0	38,4	39,0	42,9	42,3	42,0	42,4	43,1	44,9	49,0	49,3	51,4
Etxebizitzaren batez besteko azalera (m ²)	78,2	78,2	77,0	78,1	79,2	79,9	80,0	80,1	85,1	83,8	83,7	83,3
Etxebizitzarekiko gogobetetzearen eta birgaitzeko beharraren bilakaera												
Etxebizitzarekiko batez besteko gogobetetze-maila	80,9	78,3	86,0	77,6	78,4	76,6	62,1	71,0	76,4	72,7	71,7	74,0
Batez besteko behar-maila	63,4	74,2	73,0	66,5	65,8	59,9	73,0	60,2	64,8	71,2	59,2	60,5
Behar-egoeran > 4 urte (%)	% 63,0	% 65,3	% 59,7	% 56,5	% 46,4	% 51,6	% 50,0	% 51,4	% 41,0	% 43,3	% 41,6	% 54,8
Behar-egoeran 2-4 urte (%)	% 16,3	% 14,6	% 15,3	% 23,5	% 18,0	% 18,8	% 27,3	% 21,1	% 18,4	% 16,3	% 20,5	% 16,9
Behar-egoeran <2 urte (%)	% 20,7	% 20,1	% 25,0	% 20,0	% 35,6	% 29,6	% 22,6	% 27,5	% 40,6	% 40,4	% 37,9	% 28,4
Aldatu edo birgaitu nahiago dutenak												
Aldaketa nahiago: baiezkoak (%)	% 32,4	% 32,9	% 22,5	% 22,9	% 18,6	% 22,0	% 20,7	% 20,8	% 11,9	% 15,5	% 15,8	% 12,3
Ez dute aldatu arrazoi ekonomikoengatik (*)	% 81,4	% 83,7	% 71,5	% 79,3	% 77,3	% 84,5	% 88,1	% 84,1	% 64,4	% 83,2	% 93,3	% 92,5
Birgaitzea aldatzearen alternatiba gisa (*)	% 10,4	% 11,5	% 9,5	% 18,7	% 18,8	% 17,1	% 13,5	% 18,7	% 17,1	% 8,0	% 15,6	% 14,5
Birgaitze-mota												
Elementu pribatiboak (*)	% 57,2	% 51,0	% 42,1	% 47,8	% 35,9	% 50,7	% 32,8	% 49,8	% 44,3	% 49,9	% 49,3	% 39,9
Elementu komunak (*)	% 25,6	% 36,0	% 50,6	% 36,8	% 41,9	% 18,3	% 47,1	% 18,4	% 30,7	% 32,1	% 25,7	% 38,7
Biak (%)	% 17,2	% 13,0	% 7,3	% 15,5	% 22,2	% 31,1	% 20,1	% 31,8	% 25,0	% 18,0	% 25,1	% 21,5
Birgaitzeko aurreikusitako kostua												
Elementu pribatiboak (euroak)	17.599,0	20.062,0	19.203,0	17.877,8	16.309,1	15.615,2	16.752,5	15.201,7	16.407,9	15.744,7	16.469,6	20.168,3
Elementu komunak (euroak)	10.692,0	10.980,0	10.104,0	15.184,5	12.938,5	14.942,3	11.989,2	11.579,7	15.474,5	15.006,0	17.976,6	16.413,9

Iturria: Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta. 2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

ERANSKIN METODOLOGIKOA

Txosten honetan, Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren (EBEI) 2021eko edizioko emaitza nagusiak daude jasota. Eragiketa estatistiko hori bi urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak.

Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestak ematen duen informazioa bi biztanleria-motari buruzko informazioa lortzeko aukera ematen duten galde-sorta banatan dago oinarrituta. Hona hemen biztanle-mota horiek:

- ✓ EAEko familia-etxebizitza nagusietan bizi diren familiak.

Etxebizitza nagusitzat hartzen dira **urte osoan edo urteko zatirik handienez** (urtean sei hilabete baino gehiagotan) pertsona baten edo gehiagoren **ohiko bizileku gisa erabiltzen direnak** (errolatuta dauden ala ez kontuan hartu gabe). Azterketatik kanpo geratzen dira bigarren bizileku gisa erabiltzen diren edo hutsik dauden etxebizitzak.

Etxebizitza nagusi horietan bizi diren familiek etxebizitza nagusia eraberritzeko edo aldatzeko duten beharra aztertzen da.

- ✓ Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonak/familia-taldeak (diru-sarrerekin edo gabe). Tipologia hori 2019. urtean hasi zen aztertzen, eta honako talde hauek bereizten dira:

- **18-44 urteko pertsonak, emantzipatu gabeak eta gurasoekin, tutoreekin edo beste senide batzuekin** (anai-arrebekin, osaba-izebekin, aitona-amonekin...) **bizi direnak.**

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren azterketa eragiketaren hasieratik egin da biztanle-talde horrekin. Hala ere, azpimarratu beharra dago 2013. urtera arte, inkestan behar hori kontuan hartzeko, beharrezkoa zela errenta edo diru-sarrera propioak izatea. 2015. urteko ediziotik aurrera, galde-sorta txikiagoa erabiltzen da emantzipatzeko beharra duten eta diru-sarrerarik ez duten biztanleen taldeari buruzko informazioa jasotzeko. Ordura arte, talde hori ez zen kontuan hartzen EBEIn.

- **44 urtetik gorako pertsonak, emantzipatu gabeak** eta beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan gurasoekin, tutoreekin edo beste senide batzuekin (anai-arrebekin, osaba-izebekin, aitona-amonekin...) **bizi direnak.** Helburua da etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra aztertzea eta hainbat arrazoren ondorioz familiaren etxera bizitzera itzultzen diren pertsonak identifikatzea.
- **Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonak/familia-taldeak.** Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan beste pertsona/familia-talde batzuekin bizi diren pertsonak/familia-taldeak dira. Helburua da etxebizitza modu independentean —alokairuan edo jabetzan— eskuratzeko beharra aztertzea. Bi tipologia identifikatu dira:

- Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan senideak ez diren pertsonekin bikote-harremanik edo harreman sentimentalik gabe bizi diren **18 urtetik gorako pertsonak**.
- Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan beste familia-talde batzuekin (familia-harremanarekin edo gabe) bizi diren **familia-talde ez-nagusiak**.

Familia-etxebizitzei zuzendutako galde-sorta betetzeko, **gutxienez 4.000 familiako lagin** bat egitea ezarri da. Lagina ausaz hautatzen da Eustaten Biztanleen Erregistro Estatistikotik eta Etxebizitzen Direktoriotik, laginketa estratifikatu baten bidez, lurralde historikoaren eta udalerrien tamainaren arabera (hiriburuak, 20.000-100.000 biztanleko udalerriak eta 20.000 biztanletik beherako udalerriak).

Laginean jasotako etxebizitzetan gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urtekoen zuzendutako galde-sorta betetzeko, **emantzipatu gabeko gutxienez 1.200 pertsonako lagina** egitea ezarri da.

2021eko edizioan, 4.882 etxebizitza nagusiren lagin bat jaso da aldatzeko eta birgaitzeko beharra aztertzeko, eta, bestalde, etxebizitza horietan gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko 1.853 pertsonako lagin bat jaso da, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra ezagutzeko.

DEFINIZIOAK

Beharra: etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko edo lehen etxebizitza eskuratzeko beharra agertzen duten familien kopurua adierazten du. Hiru motatan sailkatzen da:

- **Etxebizitza aldatzeko beharra.** Etxebizitzarekiko gogobetetzetik ezaren ondorioz sortzen da.
- **Okupatutako etxebizitza birgaitzeko beharra.** Familiek birgaitzea planteatzen dute beren etxebizitzarekiko gogobetetzetik ezaren arrazoiak ebazteko bide egoki gisa. Birgaitzeko beharra eraikineko elementu komunei edota etxebizitzaren berezko elementuei lotuta egon daiteke (azken kasu horretan, 3.000 eurotik gorako zenbatekoa badute).
- **Lehen etxebizitza eskuratzeko behar indibiduala.** Familia-etxebizitzan bizi diren eta familia-unitatetik edo tutoreengandik independizatu eta beren familia osatu nahi duten 18-45 urteko pertsonen (seme-alabak nagusiki) beharra. 2013ra arte, beharra kontuan hartzeko interesdunek errenta edo diru-sarrerara propioak izateko betekizuna ezarri zen, eta 2015. urteaz geroztik, errenta edo diru-sarrerara propiorik ez duten pertsonak adierazitako beharra ere aztertzen da.
- **Etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra:** Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan etxebizitzaren titulartasuna duten beste pertsona/familia-talde batzuekin bizi diren pertsonak/familia-taldeak dira. Bi tipologia identifikatu dira:
 - Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan senideak ez diren pertsonekin bikote-harremanik edo harreman sentimentalik gabe bizi diren **18 urtetik gorako pertsonak**.
 - Beren jabetzakoak ez diren etxebizitzetan beste familia-talde batzuekin (familia-harremanarekin edo gabe) bizi diren **familia-talde ez-nagusiak**.

Eskaria: etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko edo lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta behar horri epe jakin batean erantzutea espero duten familien edo pertsonen kopurua adierazten du. Egindako azterketan, 1, 2 edo 4 urterako eskariak jasotzen dira.

- **4 urterako eskaria:** etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko edo eskuratzeko beharra duten eta behar horri epe horretan erantzuteko aukera oso handia edo handi samarra dutela adierazten duten familien ehunekoa.

Lau urterako eskariaren barruan, urte baterako zein bi urterako eskaria egiten dutenen familiaena ere sartzen da.

- **2 urterako eskaria:** etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko edo eskuratzeko beharra duten eta behar horri epe horretan erantzuteko aukera oso handia edo handi samarra dutela adierazten duten familien ehunekoa.

Bi urterako eskariaren barruan, urte baterako eskaria egiten duten familiaena ere sartzen da.

- **Urte 1erako eskaria:** etxebizitza aldatzeko, birgaitzeko edo eskuratzeko beharra duten, behar horri hurrengo bi urteetan erantzuteko aukera oso handia edo handi samarra dutela adierazten duten eta dagoeneko etorkizuneko etxebizitza bilatzen ari diren edo, birgaitzearen kasuan, obra-aurrekontuak eskatu dituzten familien ehunekoa.